

# Zu hemen zaude. goiena

## "IKERLANEKO EGOITZAREN ENERGIA-KONTSUMOAREN %20 EGUZKI-PLAKEN BIDEZ HORNITUKO DUGU"

Arrasateko Ikerlan kooperatibako zuzendari nagusi Jon Etxeberriak dio plaka fotovoltaikoak "laborategi antzekoak" izango direla enpresarendako / 5



Jon Etxeberria, Ikerlaneko zuzendari nagusia, Arrasateko egoitzaren teilatuan, eguzki-plaken ondoan.

XABIER URZELAI




Pilotari biak Soraluzen asteen. I.Z.

### SINADURAK

 URTZI AMIANO SALTERAIN / 6	 AINHOA PARDINA / 28
 RAMON UGALDE / 11	 ONEKA ANDUAGA / 35
 MARIA IZAGA / 17	 AINTZANE OIARBIDE / 48

### ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



## La Palmako hondamenaren berri, ibarreko lekukoek kontatuta

Mertxe Almeida bergararra La Palman bizi da, eta etxea galduko du; Mikel Apraiz arrasatearra boluntario lanetan ari da / 2



Mikel Apraiz, aste honetan, La Palman, laguntza lanetan. GURUTZE GORRIA

## Manex Balerdi eta Ander Murua, munduko pilota txapelak Euskadirekin / 38



Pou anai eskalatzaileei elkarrizketa

'Brexit'-a: hasierako arazoa, geroko konponbide?

### Teknologiarik aurreratuenarekin hornitutako optikak

Graduazio konputerizatua  
Begiaren tentsioa neurtzea  
Patologiak detektatzeko bideokamera  
Arazoak detektatzeko erretinografoa  
hartu hitzordua



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

www.multiopticas.com

**MULTIOPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen



La Palmako sumendiak eragindako kaltetak agerian uzten dituzten irudi bi. MERTXE ALMEIDA

# La Palma: batzuentzat ikuskizun hipnotiko eta besteentzat amesgaizto

Bailaratik 2.500 kilometrora dagoen uhartea urruti sentituko dute debagoiendar gehienek, baina gutxi batzuek han dute burua. Burua, bihotza eta batek, behintzat, etxea ere bai. La Palmako hondamendia gertutik bizi dute hainbat debagoiendarrek

**Uxue Igarza Loiola** BERGARA

Sortzez Bergakoa den baina La Palman bizi den Mertxe Almeida une gogorrek bizi izaten ari da egunotan; maletak prest ditu jada, une batetik bestera, magmaren olatuak bere etxea erabat estal dezakeelako.

Goizeko hamarretan –bederatzia Kanariar uharteetan– egin dugu hitzordua elkarriketa egiteko. "Lurrikarak ikaragarriak dira momentu honetan. Alabaren bila joan behar dut ikastetxera, eskolak bertan behera geratu direlako. Etxera iristean deituko dizut", erantzun dit. Azkenean, gaueko bederatzietan –hango zortziak– lortu dut Almeidarekin hitz egitea. "Ezinean gabiltza, ez dut mokadurik probatu ere egin egun osoan", esan dit, eta barkamena eskatu. Lasai hartzeko esan diot, eta alabak ere

errieta egin dio, eskuan zuen ogitartekoa amaitu gabe hasi delako elkarriketa egiten.

"Momentu honetan, ikaragarriko dardara sumatzen dugu hemen; balkoiko leihoa ere ireki egin zait", esan du hasi orduko. Pare bat egunean seismo handiak dituztela azaldu du.

Telebistan ezin da apreziatu zer den hura; Almeidak dioenez, imajinatu ere ezin dugu egin: "Pentsa une batetik bestera Debagoien osoa desagertu eta mendi tontorrek bakarrik ikusten direla". Irudiak ikaratu egin nau. "Hegazkinean joan eta une oro turbulentiak egongo balira bezala da", jarraitu du lurrikaren inguruan hitz egiten. Hala ere, "momentu beldurgarriena" gauean iristen dela azaldu du: "Egun bukaerarako, begietako hazkura itzela da, eta sufre usai-

na da nagusi. Gainera, itsasoaren ondoan egotea bezalakoa da labaren soina, eta txakurrek batera egiten dute zaunka".

Eguna argitzean, baina, egoera ez da askorik aldatzen: "Gerra baten gaudela ematen du. Jendea hara eta hona dabil: altzariekin, maletekin, bide ertzetan zain, negarrari ezin eutsita...". Bergararrak adierazi duenez, erupzioaren lehenengo egunetan hogeita minutu izan zituzten herritarrek beren etxeak uzteko; orain, dena "hobeto programatuta" dagoela esan du. Nolanahi

**HERRITARRAK IRLATIK IHES EGITEN ARI DIRA; MAGMAK 2.000 ERAIKIN SUNTSITU DITU DAGOENKO**

ere, "ezer gabe" geratzen ari da jendea eta laguntzak ez dira iristen erakundearen partetik.

Berriz esan du hedabideetan ez dela egoera "ondo" islatzen; oraingoan, gehitu du "alderdi humanoa" eta "pertsonen bizi duten krisia" ez dela inon ageri. "Ez da gura izan ikuspegi dramatikoa eman", iritzi du.

Beste lurrikara bat; eta oraingoan, telefonoz ere igarri da dardara Almeidaren ahotsean.

Bergararra boluntarioa da Gurutze Gorrian: anbulantzia bat gidatzen du, ahal duen guztietan, eta, legeetan ere aditua denez, bizilagunei administrazio kontuekin laguntzen die. Hori guztia, bere lanorduetatik kanpo. Oro har, La Palmako herritarren elkartasuna "itzela" dela dio: "Etxebizitzak hutsik dituzten askok herritarrei utzi dizkiete. Azken finean, jendeak ezin du lanik egin eta Madrilgo Gobernutik eta erakundeetatik ez da dirurik iristen. Nolabait, aurrera egiteko bide bakarra elkarri laguntzea da". Horren beste adibide bat ere jarri du: "Txikienek ere janaria prestatzen laguntzeko borondatea erakutsi dute, baten baino gehiagotan. Halako egoerak helduek bezain erraz ulertzen dituzte".

Kirolari lotutako beste irabazi asmorik gabeko elkarte baten ere parte hartzen du Almeidak, eta, besteak beste, Tolosako enpresa baten egin dituzten kamisetak eta bizikletan ibiltzeko maillotak saltzen ari dira ([www.ciclo21.com/maillot-solidario](http://www.ciclo21.com/maillot-solidario)). "Diru dezente ari gara jasotzen, eta dagoeneko hasi gara erabiltzen; errautsa kentzeko makinak erosi ditugu eta garraiolari bat kontratatu dugu, kamioiarekin herritarrek lagun ditzan", azaldu du. Bihar, bilera bat egingo dute elkarteko kideek, eta "lehen-tasunen arabera zerrenda bat" prestatzea da asmoa, jasotako dirua "modu egokian" kudeatzeko: "Dirua ematen duen jendeak dohaintza zertan gastatuko den ikustea nahi dugu; garden jokatuta nahi dugu".

Herritar asko eta asko egoera "oso zailetan" daudela kontatzen jarraitu du: "Eskolara joan ezinda daude haur batzuk, ez dute lako materialik, eta ezer gabe geratu den jendeak janaria eta arropa apur bat du, baina ez gehiago. Garbigailuak edota koltxoak eskatzen dituzte, baina, sinestezina eman dezakeen

arren, gehienei lotsa ematen die eskean ibiltzeak". Bestetik, adinoko jendea "etsituta" dagoela azaldu du: "Ez dute beraien bizitza beste inon irudikatzen; psikologikoki oso gaizki daude eta askok ez dute aurrera egiteko indarrik".

Herritarren egoera emozionalaz gain, alderdi ekonomikoak ere kezka eragiten du, eta lehen sektorerara begira jarri da bergararra: "Batez ere, platanoen kontua entzuten da telebistan, baina hemen, arazo larriena abeltzainek dute. Animaliak galdu dituzte askok eta beste hainbatek ez dakite zer egin abereekin". Lursailak dituzten herritarrei lur horiek uzteko eskatzen ari dira Almeida eta elkarteko gainerako kideak; izan ere, orain, abereak "eremu itxi eta desegokietan" daudela diote.

## Luzerako joango den laba-isuria

Cumbre Vieja sumendiak isuritako labak 900 hektarea eta 2.000 eraikin baino gehiago suntsitu ditu dagoeneko, eta, momentuz, erupzioak ez du atsedenik hartuko; hori diote adituen aurreikuspenek.

Martin Arriolabengoa Aramaioko geologoak azaldu duenez, hainbat dira amaiera "urruti" dagoela erakusten duten adierazleak; adibidez, lurrikarak: "Seismo dezente ari dira erregistratzen egunero; adibidez, eguaztenean, 12 orduan 138 izan ziren. Horiek murriztu ezean, erupzioa ez da etengo". Bestetik, kraterretik gertu laba-konkor bat irten berri dela esan du Arriolabengoak:

"Momenturen batean, gainazalera irtengo da sumendiaren ahoan pilotutako magma hori".

Bi adierazle horiez gain beste hainbat daudela aipatu du geologo aramaioarrak; esate baterako, gasen isuria.



Mikel Apraiz arrasatearra, teilatu bat garbitzen. GURUTZE GORRIA

Honen guztiarengatik eta gehiagorengatik, La Palmako herri-arrantzat Cumbre Viejaren erupzioa ez da naturaren ikusizun "eder" eta "hipnotiko" bat: "Hau ez da polita, hau amesgaizto bat da guretzat". Hausnarke-tarako gonbita egin nahi dute bertakoek, sumendiak erakarritako "turismo eredu jakin bat" sortu den garai honetan.

Mertxe Almeidak –eta bere alaba– badute beste bizitoki bat La Palman, labak haien egungo etxea irensten duenerako; baina Bergara ere badute buruan. "2011n joan ginen Bergarara eta handik 2016an itzuli ginen uhar-tera. Ekainera arte, behintzat, hemen, La Palman, geratzeko asmoa dugu"; hori esanez amaitu du bergararrak. Izan ere, alabak dagoeneko esan dio datorren ikasturtean batxilergoa Bergaran egin nahi duela.

#### Uhartetik, "barrenak mugituta"

Oso bestelako testuinguruan bada ere, beste debagoiendar bat La Palmatik iritsi berri da duela pare bat egun. Autobusean, Bergarara iristen ari zela, telefonoz hitz egin genuen. Inigo Lete aretxabaletarrak eta bere lagun Josu Otxaran gasteiztarrak mendiko ibilbide luzeak egiten dituzte, GR izenekoak. Iaz, Menorcan izan ziren, eta aurten, Cumbre Vieja sumendia erupzioan sartu baino sei hilabete lehenago, La Palmara joan eta hango ibilaldiak egitea erabaki zuten. Hegaldiak eten baino egun bat aurretik iritsi ziren uhartera; hilaren 15ean, hain zuzen ere.

"Hasierako planteamendutik bi martxa kendu zizkiguten, sumendiaren inguruan zirelako, eta horien orde besta bi egin ditugu. Ibilaldi guztietatik ikusten genuen sumendia, eta baita

botatzen zuen kea ere", azpimarratu du, bere ibilaldiei buruz galdetuta. Errauts beltz eta sendoak erabat estaltzen zituela azaldu du, eta maskarak erabiltzea garrantzitsua dela; partikula horiek arnastea arriskutsua baita.

Uhartekoei buruz galdetuta, "lur-jota" ikusi dituztela kontatu du: "Negargarria da dena, eta oraindik ez da bukatu". Ibilaldirik ez zuten egunetan bertakoekin hitz egiteko aukera izan zuten, baita nekazariekin ere. "Ikaragarria da; ezinezkoa da haien lekuan jartzea", zioen Lete, "barrenak mugituta" zeto-rrera onartu bitartean.


#### Boluntario arrasatearra ere bai

Mikel Apraiz boluntario arrasatearra aurreko eguaztenean irten zen La Palma aldera eta eguenean, hilak 21, hasi zen han lanean. Zehazki, Gurutze Gorriak zabalduko operatiboan laguntzeko joan da Apraiz beste gipuzkoar batekin batera, eta Larrialdietako Berehalako Erantzuna Emateko Taldean dabil.

150 boluntario batzen ditu operatiboak, eta askotariko lanak egiten dituzte, hala nola familiei beren gauzak ateratzen lagundu, teilatuak eta etxebizitzetarako sarbideak garbitu, kaltetutako herriarrak artatu... Sumendiak botatuko errautsa garbitzen ere aritu da arrasatearra; izan ere, 15 zentimetroko errauts geruza batek metro bateko elur geruza batek beste pisatzen du, eta hori arriskutsua da teilatu eta terrazetan, pisuak eraginda eraitsi egin baitaitezke. Gainera, euri iragarpenak kezka eragin du, eta errautsa kentzeko premia handitu egin da. Gurutze Gorriaren aurreikuspenen arabera, gaur gauean itzuliko da Apraiz Euskal Herrira.

## Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



## Herri handienetan baieztatu dira azken COVID-19 positiboak

Azken astean, 33 kasu izan dira Debagoiengan; horietatik 30, Oñati, Bergara eta Arrasateren artean

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Hilaren 18tik 24ra, 33 positibo hauteman dira eskualdean. Zentebatekoa berdintsu mantendu da azken hiru asteetan –urriko bigarren astean 35 atzeman ziren eta hirugarrenean, 34–, baina bailarako herri handienetan batu dira kasu gehienak azken aste honetan.

Horren eraginez, intzidentzia-tasa orokorrak ere ez du gorabehera handirik izan; martitzenetik domekara arte 100 eta 103 artean kokatu da tasa. Herriei dagokienez, Leintz Gatzaga da intzidentzia handiena duena –eta 400eko langa gorria gainditzen duen bakarra–; hala ere, azken astean ez da kasurik atzeman gatzagarren artean. Eta Aramaioen kasua ere aipatzekoa da: eremu gorritik horira igaro da zazpi egunean, positiborik izan ez delako.

#### EAEko egoerak, okerrera

Erkidegoan, astebetean, bikoiztu egin dira plantako ospitale-eratzak, eta positiboek, heriotzek eta intzidentzia-tasak gora egin dute. Nolanahi ere, ZIUetako okupazioak ez du okerre-eragin; aurreko astean baino bi lagun gutxiago daude, zehatz esanda.

Datuen bilakaera ikusita, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak esan du "goizegi" dela beste olatu baten aurrean gaudela esateko, baina "tentuz" jokatzeko eskatu die herriarrei.

## Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Oñati	13	7	1.705	%14,87	174
Bergara	11	10	1.871	%12,44	139
Arrasate	6	12	3.552	%16,09	81
Eskoriatza	2	2	529	%12,89	97
Elgeta	1	0	84	7,43	88
Antzuola	0	0	294	%13,49	0
Aramaio	0	1	245	%16,55	67
Aretxabaleta	0	0	979	%13,83	0
Gatzaga	0	2	16	%6,40	854
<b>DEBAGOIENA</b>	<b>33</b>	<b>34</b>	<b>9.275</b>	<b>%14,31</b>	<b>103</b>

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA



Obrak egingo dituzten bihurtzeetako batean, bi kamioi ozta-ozta aurrera egiten, eta atzetik txirindularia. IBAI ZABALA

# Kanpanzarko zatirik estuenean, moldaketak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,2 milioi euro inbertituko ditu Sara Merenderotik mendatearen puntu altuenera doan errepide zatia bi metro gehiago zabaltzeko. Obrak urtebete barru hastea da asmoa, eta sei hilabete inguru iraungo dute

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Gaur egun, 7.000 ibilgailuk egiten dute joan-etorria Arrasate eta Elorrio arteko N-636 errepideatik –horietatik 1.000, ibilgailu astunak–. Gorabeheraz eta bihurtzeetako bidea da, eta estua, bereziki, Sara Merenderoan gora doan aldapa. Hain justu, errepide zati horrek Bizkaiko mugaraino hartzen dituen 900 metroak hobetu nahi ditu Aldundiak: "Ibilgailuen erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko, zazpi metro eskaseko zabalera duen plataformari bi metro gehituko dizkiogu; hala, zazpi metroko galtzada eta alde bakoitzean metro bateko bazterbidea jarriko dugu", zehaztu du Aintzane Oiarbidek, Bide Azpiegituretako diputatuak.

**Urte eta erdiko prozesua**

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua onartu du dagoeneko, eta orain, alegazio publikoak jasotzeko epea irekiko dute. Hala, datorren urtean esleituko dituzte lanak, 2022ko udazkenerako

martxan jartzeko. Egokitzapenek sei hilabete irautea aurreikusiko dute; beraz, 2023ko udaberrirako prest egon beharko luke errepide zati itxuraldatuak.

Lanek ezpondak eragingo dituzte errepide bazterretan. Aldundiaren kalkuluen arabera, 9 metroko altuera izango du handienak, baina horiei eusteko sistema pentsatua dute: "Lur mugimenduren bat saihestu eta lurzari eusteko, landareak ereingo ditugu, hidro-ereite moduaren bidez".

Arrasateko alkate Maria Ubarretxena esker oneko agertu da Aldundiaren inplikazioarekin. Bizkaikoak, bestalde, asteon iragarri du urte amaieran eraikiko dutela Elorrio aldeko hirugarren erreiarren azken fasea.

**MENDATEKO ZATIRIK ARRISKUTSUENEAN ERABILTZAILEEN SEGURTASUNA BERMATU NAHI DUTE**

## Tunela egitea aztergai

Durango eta Beasain autobidez zeharkatzeko proiektu potoloaren inguruan ere mintzatu ziren Ubarretxena eta Oiarbide. 120 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egitea aurreikusten dute uneotan, eta "bai ala bai" egin beharko litzateke tunela Kanpanzarren. Baina ingurumen arauak aldatu direla-eta, berriz aztertuko dute proiektua: "Legedia zorrotzagoa da orain, eta, ondorioz, ingurumen zein geometria parametroak eta kostuak berrikusiko ditugu".



ELAko arlo soziosanitarioko ordezkariak, Bergarako egoitzan, atzo. TXOMIN MADINA

## Lan baldintzak hobetzeko grebek aurrera jarraitzen dute

Gipuzkoako adineko egoitzetako langileak eta Aita Mennikoak negoziazioak lortzeko mobilizatzen ari dira

**H.L.** DEBAGOIENA

ELA eta LAB sindikatuek eta Gipuzkoako Senideak elkarteak deituta, greba eguna deitu zuten atzoko Gipuzkoako adinekoen egoitzetan. Deitzaileek salatzen dutenez, egun indarrean dagoen lan hitzarmena 2015-2016koa da, eta, atzoko grebarekin eta aurreko asteetan burututako mobilizazioekin, pandemia aurretik abian zizuten aldarrikapenei jarraipena eman gura diete: "Langile gehiago behar ditugu egoitzetan, ratioak igotzeaz gain, 2007tik baitaramagu ratio berarekin", azaldu du Bego Gainza ELAko ordezkariak, eta gaineratu du "greba egunean %100eko zerbitzu minimoak eman beharrean" daudela.

Egoiliarrei kalitatezko atentzioa emateko "denbora nahikoa ez" daukatela diote grebara batu diren langileek. Horren harira, Aldundiak asteon argitaratu

ditu pandemian zehar adinekoen egoitzetan egin den zainketa kalitateari buruzko ebaluazioaren emaitzak. Hala, egoiliarren %77,2k, senideen %73,5ek eta profesionalen %62,7k balorazio positiboa egin dute, baina Gaiuzak gezurtatu egin ditu datuok.

Aldundiarekin negoziatzerik lortzen ez badute, azaroaren 12rako beste greba egun bat deituko dute.

**Greba gehiago azaroan**

Aita Menni ospitaleko langileek ere euren eskariekin jarraitzen dute, eta, oraingoz, ez dute enpresako zuzendaritzaren aldetik inolako erantzunik jaso. Ondorioz, datorren astearte, asteazken eta ostegunerako deitutako grebak mantendu egingo dituzte. Urriaren 13an egin zuten azkena, hiru kilometroko ibilbidea aldarriekin betez eta ospitale aurrean elkarretaratzea eginez.

## Pentsiodunen aldarrikapenak, Legebiltzarrerara

Debagoieneko pentsiodun elkar- teek bat egin zuten atzo Euskal Herriko herri eta hiriburuetatik deitutako deialdiekin. Hala, Gasteizko Eusko Legebiltzarrean egindako elkarretaratze eta manifestazioan parte hartu zuten bailarako pentsiodunek. Aldarrikapenen artean, "euskal herritarrei pentsio publiko duinak, kalitatezkoak, enplegu eta zer-

bitzu publiko unibertsalak bermatzea" eskatu zuten, beste behin. 2.000 lagun elkartu ziren.

Bergaratik pentsiodunen autobusa 09:30ean irten zen, Eloregetatik 09:45ean eta Arrasatetik 10:00etan. Manifestazioa Gasteizko Plaza Berritik abiatu zen, goizeko hamaiketan, eta salatu zuten ezin dutela euren eskariak betetzeko "egun bat gehiago itxaron". Eusko Legebiltzarre- raino iritsi ziren, azkenean, eta aldarrikapen agiria eman zieten parlamentu-taldee.

# "2019an egindako obra borobildu dute plakek"

**JON ETXEBERRIA** IKERLAN-EKO ZUZENDARI OROKORRA

Ekainean hartu zion testigua Marcelino Caballerori, eta dio momentu onean dagoela Arrasateko ikerketa zentroa; eguzki-plakek laborategi funtzioa ere beteko dute

**Hasier Larrea** EDEBAGOIENA

Energia berriztagarrien aldeko beste apustu bat egin du Ikerlanek, bere egoitzan plaka fotovoltaikoak instalatuta. Jon Etxeberriak (Arrasate, 1975) nabarmendu du energiaren alorrean datozen berrikuntzara moldatzen dabiltzala.

**Lehenik eta behin, zer moduz kargu berrian?**

Ikerlan momentu onean dagoela izendatu naute zuzendari orokor; duela gutxi, datozen lauzpabost urteetarako plan estrategikoa diseinatu dugu. Aurretik, Giza Baliabideetako zuzendaria nintzen; hortaz, orpo orpo lan egiten genuen [Marcelino] Caballerok eta biok. Trantsizio suabea izan da, beraz. **Ikerlaneko teiltatua plaka fotovoltaikoz hornitu duzue hilabete honetan. Zer dela eta?**

Gaur egun asko hazi den joera da, bi kontugatik: alde batetik, inbertsio horien kostuak izugarri jaitsi dira, energia eredu tradizionalen pare helderaino; eta, bestetik, Espainiako araudiak autokontsumorako zeuzkan hesi batzuk desagertu edo leundu egin ditu azken hilabeteetan. Abantaila horietaz baliatu gara, inguruarekiko konpromisoa dugulako eta epe luzera errentagarria egingo zaigulako. Egoi-



Jon Etxeberria, Ikerlaneko Arrasateko egoitza nagusian. XABIER URZELAI

tza estetikoki ere hobetu genuen, eta, bide batez, ibilgailu hibrido zein elektrikoak kargatzeko zutoinak jarri genituen.

**Izan ere, oraindik eguzki-plakak ez dira zuen jabetzakoak, ezta?**

Ondean taldeko enpresa batek egin digu instalazioa, eta hura arduratu da inbertsioaz. Hain zuzen, guk enpresa horri energia erosiz ordainduko diogu, eta hemendik hamar urtera izango dira gureak. Bistan denez, modelo berezia da.

**Egoitzako kontsumoaren ze zati hornituko du eredu horrek?**

%20. Urtero ia 80.000 euroko faktura elektrikoak ordaintzen dugu. Beraz, plakek energia sare tradizionaletik gutxiago kontsumitzea ahalbideratuko digute. Kontuan hartu behar da 2019an eraikineko fatxadei eta leihoei bigarren azal bat erantsi genielea, hein batean, isolamendu termiko eta akustikoa hobetzeko. Aldaketa harekin nabarmen igarri genuen faktura elektrikoaren jaitsiera. Beraz, instalazio honekin borobildu egin dugu 2019an egindako obra. Egoitza 70eko hamarkadan eraiki zuten,

baina gaur egun ez du orduko itxurarekin inolako zerikusirik. **Etorkizuneko erronkei adi jarraitzen diozuen seinale da egin berri duzuen...**

Plaka fotovoltaikoak laborategi antzekoak izango dira guretzat. Guk energia biltegitratzeko sistemak eta bateriak garatzen ditugu; agian, hemen ez da horren ohikoa oraindik, baina Alemaniako gero eta gehiago sustatzen dira berriztagarriekin egiten diren bateriak. Energia fotovoltaikoetan eta eolikoan oso murgilduta gaude, eta bateriek garrantzi handia daukate, energia hobeto erabili eta kontsumitzeke. Hain zuzen, berriztagarrietan ezin duzu sortuko duzun energia planifikatu, naturak ematen dizunaren arabera al dakorra delako.

**Baterien alorrean, ze proiektutan zaudete murgilduta?**

Europa mailako proiektu batean gaude, Mercedes eta beste zenbait enpresarekin batera lanean. Erronka auto elektrikoaren baterien iraupena luzatzea da, autoak gaur egun heltzen direna baino urrunago joan daitezela.

**Atzera begira, ze beste proiektu nabarmenduko zenuke?**

Aipatuko nuke CAFekin batera egin genuena Sevillako tranbian. Biltegi sistema bat jarri genuen, eta horri esker produktu berria garatu zuen CAFek. Hiri askotan biltegi sistema horrekin garatutako tranbiak eraiki dituzte. Bestalde, Airbus hegazkinetan hegalk berotzeko sistema garatu genuen, hegaldian zehar izotza sortzea galarazteko.

**Halako dimentsioko egitasmoak garatzeko talentua erakartzea funtsezkoa al duzue?**

Erabat. Ikerlanen harrobi lanak egiten ditugu, ikasleak gurekin formatu eta ikerlari bezala gu-

rekin geratzeko, edo beste enpresa batzuetan lan egiteko. Hamabost unibertsitatekin harremana dugu; horietan garrantzitsuena Mondragon Unibertsitatea da. Aliantza estrategikoa dugu eurekin. Ingeniari beharra dugu orain, eta, egia esan, askotan ez gara gai ikasketak teknikoek daukaten interes orokorraz eta lan baldintza duinei buruz komunikatzeko.

**Zer esanik ez emakumei dagokionez, ez al da hala?**

Jakina da ikasketak teknikoetan emakumeen presentzia %30ekoa dela; Ikerlaneko 350 langileen %30 dira emakumeak, hain justu. Berdintasun batzorde bat sortu dugu, sentsibilizazioaren aldetik barrualdean neurriak zeintzuk izan daitezkeen aztertzeko, besteak beste.

**2019an, BRTAra batu zineten (Basque Research and Technology Alliance). Ze helbururekin?**

EAEko hamazazpi zentro gaude Eusko Jaurlaritzaren babesa duen elkarteetan. Ikerlan zentro nahiko handia da hemen, baina Europa mailan nahiko txikia. Helburua da EAEko zentroekin koordinatu, indarrak batu eta kanpora goazenean Euskadin teknologiaren alorrean daukagun maila erakustea. Hau da, elkarrekin joanda, Europako beste zentroen pare egotea. Garrantzitsua da zentrook ondo koordinatzea, ikerketa berberak egin beharrean, bakoitzak egiteko bere espezializazioak, esparru desberdinetan osagarri izateko.

**"AUTO ELEKTRIKOEN BATERIEN IRAUPENA HANDITU NAHIAN GABILTZA, HORI BAITA ETORKIZUNA"**



**abiātu**

**A-636 Beasain-Bergara**

autobian ere bai,  
askoz gehiago!

**AURREZ AURREKO INFORMAZIOA**

BIDEGIK A-636 autobideko bidesari berrari buruz informazioa emateko eta ABIATU gailua tramitatzeke gaitu dituen informazio-puntuak:

- **ANTZUOLA** Azaroak 4. Udaletxean.
- **BERGARA** Azaroak 5-8. Ondartzan-AP-1 (Golbez) Udaletxean (Arratsaldez)

Ordutegia: 9.30-13.30 / 16.00 - 20.00



**ERRAZTASUN  
GEHIAGO**



**AURREZPEN  
HANDIAGO**



**INBERTSIO  
HANDIAGO**

**Informazio gehiago:** info@bidegi.eus / 943 105 106 / GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil



ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

## Meatzerreka

**A**stelehena, 12:45, presaka nabil. Ia beti bizikletan ibiltzen naiz; oraingoan, aldiz, autoa hartu beharra daukat –kaka zaharra, ez daukat beste aukerarik!-. Bihar ikasle talde batekin Askasibar baserrira joan beharra daukat eta bertako ugazaba ezagutu gura dut, telefonoz hitz egitea gauza bat delako eta beste bat pertsona aurrez aurre ikustea eta ezagutzea.

Bidean, Omu Ceramics parean geratu beharra izan dut; ez dakit, zehazki, Askasibar non dagoen, eta parean baratzean jardunean dabiltzan bi gizonak ederki asko azaldu didate non dagoen.

Iritsi naiz Askasibarrera. Dedio! Ze baserri polita; zenbat urte izango ditu? Hurbildu eta ate gaineko kanpaia jo dut; bitxia, baina eraginkorra: instant batean atera zait neska. Jarri diot aurpegia telefonoko ahotsari. Gauza bat dela edo bestea dela, berrikeretan hasi gara. Arrasate Meatzerrekan sortua dela, errege

### ARRASATE MEATZERREKAN SORTUA DA, ERREGE BIDEA HANDIK PASATZEN DA...

bidea bertatik pasatzen dela, batek baino gehiagok zona horri Veneras deitzen diola, lehenengo Santamas azokak bertan egiten zirela, Askasibar baserria Arrasateko zaharrena dela... Ez naiz hasiko baratzearen eta naturaren inguruan esandakoak

zerrendatzen, beste bi artikulua beharko nituzke eta. Bua! Ze gustura nagoen, baina joan beharra daukat, eguerdirako ikastolan egon beharra daukat eta.

Autoan bueltan noala, a ze lotsa nirea. Bizikletan ondoko errepidetik eta Meatzerrekako elkartetik sarri pasatu izan naiz, eta ez neukan ezere berri.

Hemendik aurrera, ez daukat zalantzarik: mendiko bizikletan polikiago ibili, burua gehiagotan altxatu eta ingurua hobeto aztertu eta norbait berrikerarako gogoz badago, geratu! Altxor bat erakusteko gooa edukiko du eta.

Hau guztiau Meatzerrekan bizi den baserritar batek, edo, hobeto esanda, naturatik, naturan eta oso modu naturalean bizi den pertsona zoragarri batek, erakutsi eta ikusarazi dit. Bejondeizula, eta eskerrik asko!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Lasai zeharkatu

#### ANDER IZAGIRRE

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Laura Alzola Kirschgens gasteiztarrek bere aitona-amaña alemaniarrek 1944 eta 1949 artean elkarri idatzi zituzten eskutitzak topatu zirenen karpeta zahar batean. Bitxiaren da urte haietan bikoteak ez zuela zuzenean elkar ezagutzen. Mutila albaitari lizentziatu berria zen 1939an, 24 urterekin gerrara bidali zutenean, Ekialdeko Frontera laster; neska lau urte gazteagoa zen, nazien derrigorrezko zerbitzu zibila bete zuen eta etxean eguneroko ikaran bizi zen, aliatuen bonbardaketan

azpian. Lagun komun batek harremanetan jarri zituen eta elkarri gutunak bidaltzen hasi ziren, milaka kilometroko infornuaz gandi, Europa errausten ari zen bitartean. Mutila hainbat hilabetez desagertu zen gerraren amaieran. Sobietarren kontzentrazio-esparru batetik idatzi zion neskeri berriz eta 34 urterekin itzuli zen etxera: "Gaztaroa kendu digute".

Alzola Kirschgens *No os recuerdo* liburuan kontatu du historia hau –Libros del K.O. argialetxean–. Bere arbasoek nazismoaren garaian izan zuten jarreraz gogoeta egin du... [...] Egileak 30 urte dauka, familia euskal-alemaniar batean hazitakoa

da eta hasieratik lotzen zaio orainaldiari: "Ume europar zuriak ginen. Orain konturatu naiz. Mugak lasai zeharkatzen genituela gogoratzen dut". Esaldi hauek irakurri nituen egunean, gipuzkoar baten kexu biziak ere entzun nituen Hendaiaiko taberna batean ziotelako garagardoa barruan edateko. Pentsatu nuen gehienoi ez zaigula halako sumindurarik pizten betidanik derrigorrez eraman behar izan dugun beste agiri horrekin: nortasun agiriarekin, guri Bidasoa eskuak poltsikoetan gurutzatzeko aukera ematen diguna, beste batzuk itozten diren leku bereberetan.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Monika Belastegi.  
Zuzendari nagusia  
Iban Arantzabal.  
Eduki zuzendaria  
Eneko Azkarate.

#### Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

#### Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.  
Administrazio zuzendaria  
Agurtzane Gaintzarain.

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

#### Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

#### Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
Maketazioa  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martinez de Arenaza.  
Publizitatea  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

#### Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

#### Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

#### Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

#### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Estrategiak pentsatu behar ditugu logika kolektibotik"

IBAI FRESNEDO HIRUKI LARROXA KOOPERATIBAKO KIDEA

**Larraitz Zeberio Lekuona** ARRASATE EHGAM mugimenduak Arrasaten eman dio hasiera KOSA hausnarketa zikloari. *Noiz bukatzen da armairua?* liburuaren aurkezpena egin zuten eguaztenean gaztetxean. Ibai Fresnedo (1985 - Portugalete) da egileetako bat, Egoitz Arbiol Albenizekin batera.

**Ekainean aurkeztu zenuten Hernaniko LGTB+ kolektiboaren testigantzak jasotzen dituen lana. Zer-nolako harrera izan du?**

Balorazio oso positiboa egiten dugu. Dugun informazioaren arabera, Euskal Herrian gai honen inguruan egin den mota honetako lehen lana da. Bestetik, positiboa izan da ez bakarrik Hernaniko Udalak egin duen apustu politikoa, baizik eta herriak egin dion harreragatik.

**Lekukotzak hartuta osatu duzue lana.**

Historiografia moduko bat sortu dugu, non hamarkadaz hamarkada joan garen



Ibai Fresnedo. HIRUKI LARROXA KOOPERATIBA

aztertzen LGTB+ pertsonentzat zein izan den testuingurua Hernanin, zer-nolako indarkeriak jazo diren, indarkeria horiek guztiek denboraren poderioz zer bilakaera izan duten...

**Esan izan duzue: "Historiak okerroi ez digu inoiz ezer galdetzen".**

Eta horrela da. Bizipen horiek guztiak isilean egon dira beti, edo, gutxienez, ez dute plazarik izan. Azkenean,

memoria ariketa bat egin dugu eta memoriaren garrantziaz jabetu gara. Asko erabiltzen den kontzeptua da; batez ere, gerra testuinguruetan edo orain E'TAren armagabetzearen bueltako gaietan. Uste dugu eguneroko gerrak, zapalkuntzak eta eskubide urraketa ere badaudela, eta ez bakarrik LGTB+ kolektiboan. Emakumeen kontrako indarkeria gertatzen da, jarrera arrazistak daude... Lan honek argitara ekartzen du zenbat eta zenbat bizipen dauden herriaren historia eraikitzen lagundu dutenak; kasu honetan, Hernanin. **EHGAMetik bultzatutako KOSA hausnarketa zikloaren barruan kokatu zen Arrasateko aurkezpena.**

Memoriarena moduan, beste gai asko ditugu orain arte lehentasunezko zat jo ez ditugunak, eta mahai gaineratu nahi ditugunak. Horregatik da KOSA hausnarketa zikloa hain berezia guretzat; hasiko gara gai horiek guztiak modu xehatuagoan lantzen, eta, batez ere, kolektiboki pentsatzen.

**Zein gai nabarmenduko zenituzke?**

Argi dago erasoan aurreko estrategiak pentsatu behar

ditugula, eta, batez ere, logika kolektibotik. Beldurretik bizi dugu hau guztia, eta arduratik eta konpromisotik bizi nahi dugu. Pedagogia izan beharko litzateke estrategietako bat; hezkuntza sisteman bermatuta dagoen pedagogia. Bestetik, euskaldunak gara, eta euskaratik militaritzen dugu. Gai horrek zentralitatea hartu behar du. Gero, familia ereduaren afera dugu. Familia tradizionalaren kontzeptua irauli ahal izateko estrategiak aztertu beharko ditugu.

**Politikoki zuzenak diren diskurtsoak nagusitu dira?**

Guztiz. Egunerokoan etengabe entzuten ditugu *normalizazioa, tolerantzia, integrazioa eta berdintasuna* kontzeptuak. Kontzeptu horiei esker pedagogia egin dugu modu eraginkorrean, baina itsutzen gaituzten diskurtsoak ere sortzen dituzte. Uste dugu bizi garela gizarte oso aurrerakoi batean; dena lortuta dagoela, eskubide guztiak bermatzen direla... Baina normalizazioak, neurri batean, norma betetzera ere eramaten gaitu, eta gu ez gara normalak, bazterrekoak gara. Ematen du gure bizimoduak zentroan kokatzen diren eredu horietara egokitu behar ditugula.

## ITURRI ONETIK

### Aitor Borobia eta Kepa Errasti, 'Altsasu' lanean

Azto estreinatu zuten Bilboko Arriagan eta azaroaren 7an Arrasateko Amaian (19:30) izango da, *Altsasu* antzezlan. 2016an Altsasuko Koxka tabernan bi guardia zibilekin eta haien bikotekideekin izandako liskar baten harira Auzitegi Nazionalak epaitutako zortzi gazteren gorabeherak kontatzen ditu lanak. Maria Goirizelaiak idatzi eta zuzendu du eta Kepa Errasti aretxabaletarrak euskaratu du testua. Bestalde, Aitor Borobia bergararra da taula gainean agertzen diren lau aktoreetako bat.

## ALBISTE IZAN ZEN



2006-10-28

### Gose greba eta manifestazioa presoan alde

Presoen eskubideen aldeko astebeteko baraualdia egin zuten hamabi debagoiendarrek; horien artean, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohiak. Amaiera modura, manifestazio jendetsua egin zuten Arrasaten. Urriaren 21etik 28ra egin zuten gose greba, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Hainbat gizarte eragilerekin batzeko aukera izan zuten aste hartan. Grebalariek "oso gordintzat" jo zuten eskualdeko presoan egoera.

## HAU BE BADOGU!

### Bertsolari Txapelketa Nagusia, Nafarroan

Azken urteetan Barakaldoko BECen izan ostean, 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Iruñean jokatu da. Gaia berbera izan da txiolari euskaldunen artean:

@ipatxi: "2022a ere ekialdearena izango dela dirudi... Euskal Herriko bertsolari txapelketako finala Iruñean".

@mtxoperena: "Nafarroa Arena da BEC berria. #Iruñea #Hiriburuzagia".

@petxarroman: "Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Iruñean izatea albiste ezin hobea iruditzen zait".

## D2030: ELKARRIZKETA



Gorka Artola, Bergarako udaletxeko balkoian. GOIENA

# "D2030ek eta Bergarako Udalak kezka berberak partekatzen ditugu, bai eta egiteko moduak ere"

## GORKA ARTOLA BERGARAKO ALKATEA

Datozen hamarkadetan etorriko diren aldaketa handiei erantzuten hasi beharri ezinbesteko deritza Artolak. Bide hori lankidetzatik egitearen indarrean sinisten du

### Miren Arregi ARRASATE

*Erronkak, eraldaketa, saretzea* eta halako kontzeptuen bueltan ari dira lanean bai Bergarako Udala eta baita D2030 ere. Biak dira-eta jakitun komunitatearen indartzetik etorriko direla erronka horiei aurre egiteko erantzunak.

**Eraldaketa eta lankidetzak, bi kontzeptu D2030ek eta Bergarako Udalak erabat partekatzen dituztenak.**

Pandemiak eta, batez ere, klima larrialdiak argi utzi dute gaur egungo gizartea ez dela jasagarria. Mundu mailako erronkei Bergaratik ere gizarte moduan lehenbailehen aurre egin

behar diegu; eraldaketa beharra begi-bistakoa baita. Gertukoenetik, txikitik handira eragin behar dugu. Erronka horiei, ordea, ezin die administrazioak soilik erantzun. Norbanakoen, gizarte eragileen, sektore pribatuaren eta administrazio publikoaren arteko lankidetzak komenigarria bakarrik ez, beharrezkoa da.

**Bergarako alkatea zara, baina D2030en egonik eskualde eskalan lan egiteari ere garrantzitsu deritza. Zergatik?**

Eskala garrantzitsua da. Herri mailan sor daitezkeen aukerak hazi egiten dira saretzea eskualdera zabaldua, eta, aldi berean, kudeagarria eta

gertukoa izaten jarraituko lukeen sarea osatzen da. Sare baten parte izateak beti dakar ondokoaren esperientziatik ikasteko eta eragileen artean koordinatu eta gerizpe handiagoa izango duten proiektuak aurrera ateratzeko aukera.

**Zergatik Bergara D2030eko kide?**

Bat egiten dugu D2030 abian jartzea ekarri zuten kezkekin: trantsizio energetikoa egin beharra, lan munduan etorriko diren aldaketak... Eta kezka berberak partekatzeaz gain, egiteko moduekin ere bat egiten dugu, argi dagoelako lankidetzatik eta komunitatearen indartzetik baino ez direla etorriko

erronka horiei aurre egiteko erantzunak.

**Uste duzu herritarrek hasi direla etorkizuneko erronkei aurre egin behar hori bere egiten?**

Ez herritarrek eta ezta ardura postuetan gaudenak ere.

Datozen hamarkadetan aldaketa handiak etorriko direla, baina, guztiz asmatzea posible ez izanda ere, egoera posibleen arteko prestatzen joan behar dugu erakunde eta norbanakook.

**Zein erantzukizun duzue erakunde publiko bezala behar horiek gizarteratzen?**

Erantzukizun sozialagatik badagokigu lan hori egitea, erronkak identifikatzea, sozializatzea eta elkarrekin erantzunak topatzeko lan egitea. Udala da herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa; beraz, haiengana heltzeko bidea ere zuzenagoa da, eta, hortaz, eraginkorra izan daiteke. **Eraldaketa bulegoaren berri eman duzue duela gutxi, eta gaur aurkeztuko duzue jendartearen. Zergatik orain?**

Duela urtebete inguru hasitako prozesu herritar baten erantzuna da. Itxialdian eta haren ostean loratu ziren hainbat mugimendu saretzeko eta lankidetzak publiko-komunitarioak espazio bat sortzeko beharra nabarmendu zen herritar talde batek egindako bileretan. Proiektu eraldatzaileak bultzatuko zituen tresna bat nahi zen, administrazioaren ohiko mugak hautsi eta gobernantza modu berri bat praktikatu zuena. Udalak ikuspegi horrekin bat egin eta hitzarmena landu zuen, ekimen hori martxan jartzeko, Olatukoop, D2030 eta MUREkin. **Zein izango dira bulegoak egingo dituen lehen urratsak?**

Bulegoa fisikoki zabalik ez dagoen arren, bertan jardungo duten bi langileak lanean ari dira dagoeneko. Eragile eta norbanakoekin egon eta sarea osatzen joateaz gain, proiektuak sustatzen ere badihardute beste eragile

batzuekin batera; Udalarekin, adibidez. Energia komunitateak sortzeko proiektua lehen pausoak ematen ari da elkarlan horretan oinarrituta, eta lehenengo sektorearen inguruko lanketa bat ere martxan da.

**Nola konektatuko da D2030ekin?**

Ehundu bulegoak ekimen eta dinamika propioak izango dituen arren, D2030en lantzen ari diren proiektuak Bergaran lurreratzeko tresna izango da, herrian proiektuak errotzeko baliabide ere izango delako.

**Lankidetzak aipatu duzue hasieran; zein tradizio du Bergarako lankidetzari dagokionez?**

Tradizio luzea du eragileen arteko edo administrazioaren eta eragileen arteko lankidetzan. 1970eko *Alkartu nai* eta *Promoción cultural* izan daitezke adibide, Bergarara garapen handia eta hainbat zerbitzu ekarri zituztenak. Herri bizia da gurea, oso parte-hartzailea, eta tradizio hori ez da agortu. Bulegoa Udalaren eta herritarren arteko lankidetzak erraztuko duen baliabidea da. **Eragileen gaiari heldu dio D2030ek, eta tartean da Bergaran ere komunitate energetikoak bultzatzeko proiektua. Ezinbestean heldu beharrezkoa?** Mundu mailako arazoa da klima larrialdiarena eta energia subiranotasun faltarena, eta gure txikitik ere aurre egin diezaiogegu. Beharrezkoa da Bergarako norbanakoak, eragileak eta Udala antolatzea eta pausoak ematea, kontsumitzen dugun energia gero eta gehiago izan dadin berriztagarria.

**"ESKUALDE ESKALA GARRANTZITSUA DA, SOR DAITEZKEEN AUKERAK HAZI EGITEN BAITIRA"**

**"DATOZEN ERRONKAK SUMATZEN HASITA GAUDE, BAINA ETORRI BEHAR DUTENEN ZATI TXIKI BAT BAINO EZ"**



## Adierazpen askatasunaren mugak

JON MOLINA BENGOA  
BERGARA

Gutun honen xedea ez da 2021eko urriaren 10ean Asier Elorzak GOIENAn jaurtitako okadari erantzutea.

Hain maila baxura jaisteak lotsa eta higuina ematen du.

Dena den, Asierrek idatzi eta medio honek argitaratutako artikulua harira, adierazpen askatasunaren mugei buruzko debatea taularatu nahi nuke.

Ez dut uste adierazpen askatasunak iraintzeko eskubidea berekin dakarrenik;

ezin ditugu iritziak laidoekin parekatu. Giza duintasunari zor zaion begirunearen oinarrian dago bakoitzak bere ideia eta iritziak publikoki adierazteko eta arrazoitzeko eskubidea. Baina iraintzeko eskubiderik ez dago.

Noski, iraintzea argudioak arrazoitzea baino samurragoa da. Arrazoiketahalegina eskatzen baitu, eta nagikeria intelektuala astindu beharrik ez dago irain merke batzuk oihuka egozteko.

Irainez, ordea, ezberdin pentsatzen dugunon arteko elkarriketa aberasgarria eta

bizikidetzaz oztapatzen dute. Eta, hain zuzen, herri honek horrexen premia larria du: ezberdinen arteko bizikidetzaz baketsua sustatzearen premia. Horregatik deritzot erantzukizun falta handia dela inongo arrazoiketarik gabeko irain piloaz besterik ez den idazkia argitaratzea.

## Mila esker, Arizmendi!

ITSASO NUIN GONZALEZ  
ETA XABIER LATORRE  
ETXANIZ

BEGISARE ELKARTEAREN  
IZENEAN  
ARRASATE

Urriaren 18tik 22ra, Arizmendi ikastolako DBH-2ko ikasleak *Ikus nazazu* proiektua

egiten ibili dira. Proiektu horretan aztertu dute ikusmen murriztua sufritzen dugunok zein arazorekin topo egiten dugun eguneroko bizitzan. Asteazehar zenbait ekintza eta ikerketa egin dituzte; herrietan topatu ditzakegun oztopo urbanistikoak barne.

Astea bukatzeko, jaialdi bat antolatu zuten Arrasaten, eta, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, arrakastatsua izan zen. Begisareko partaideok bertan parte hartzeko gonbita jaso

genuen, eta gustura bertaratu ginen.

Idatzi honekin, Arizmendi ikastolari gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu, gure arazoarekin interesatzeagatik, gizarteari esateagatik badaudela ikusmen murriztua duten pertsonak, eta arazo hori ezin dela konpondu ez betaurrekoekin eta ezta operazioarekin; horretan datza ikusmen murriztuaren gakoak. Eta uste dugu Arizmendik antolatu duen aste honekin asko lagundu digula gure egoera ezagutarazten. Beraz, mila esker, Arizmendi!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus) helbidera!

# Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Maiden Morras EH Bilduren bozeramailea eta Eva Abuin Elkarrekin Arrasate udal taldearena, Goiena telebistako platoon. E.A.

# EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek inprobisazioa egotzi diote Gobernuari

Asteon abiatu da Goiena telebistako 'Harira' saioaren denboraldi berria, Arrasateko gaiak ardatz hartuta; udalbatzan ordezkatuta dauden lau alderdi politikoak gonbidatu ditu GOIENAK, baina, arrazoi ezberdinak tarteko, bi ordezkari soilik izan dira mahaian

**Eneko Azurmendi** ARRASATE Maria Ubarretxena alkateak (EAJ) uko egin dio mahai-inguruan parte hartzeari eta Johanna Sanchez (PSE-EE) parte hartzeko zen arren, ezin izan du, azken orduko gorabehera baten ondorioz. Modu horretan, Maiden Morras (EH Bildu) eta Eva Abuin (Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak) izan izan dira aste honetako saioan.

**Udal Gobernuaren jardunaz** Lehenik eta behin, agintaldi erdia pasa dela-eta, Udal Gobernuak orain arte egindakoa baloratu dute eta Morrasedi adierazi du Gobernu herritarren beharretatik "apur bat urrunduta" ikusi duela. "Agintaldi hau pandemiak baldintzatu du eta aukera bat galdu dugu lana beste modu batean egiteko. Egerra zaila izan da, baina ez da

kudeaketa ona izan; lidergo falta egon da. Bi hilabetez aktibitate politikoa gelditu egon da, arrazoi gabe, telelanaren bidez gauza asko egin zitezkeen eta". Abuinek, aldiz, berba bakarri erabili du: inprobisazioa. "Emakume Txokoaren kokapena, gaztegunearen kokapena, Zalduspeko geltokia eta abar. Gai horiek inprobisazioa dute komunean. EAJren eta PSE-EEren Gobernuak adreilua eta zementua dauzka ardatz nagusi moduan eta guk ez dugu eredu honekin bat egiten, jende asko atzean geratzen delako". Morrasedi bat

**"HERRITARREN BEHARRETATIK APUR BAT URRUN EGON DA UDAL GOBERNUA"**

MAIDER MORRAS, EH BILDU

egin du lehen ideiarekin: "Inprobisazio maila altua egon da".

**TAO sistema, martxan jartzeaz** Mugikortasun gaiei helduta, eredu, oro har, "ondo diseinatuta eta ordenatuta" eduki behar dela uste du EH Bilduren bozeramaileak. TAO sistemari dagokionez, beharrezkoa ikusten du, baina sistema "bigunaren" aldekoa da koalizio abertzalea. "Hau da, lehenengo bizpahiru orduak doakoak izatea gurako genuke. Bestalde, eskatu izan dugu zerbitzuaren gestioa ez azpikontratatzeko, baizik eta Udalak ematen duen zerbitzu bat izan dadila. Ez da dirua batzeko sistema bat izan behar. Zerbitzu asko defizitarioak izan behar dira herritarren beharrak asetzeko". Horrez gain, azpimarratu du auzoak kanpoan gelditu direla. "Hau da, ez dute TAO

sistemarik, baina ez dute taxi zerbitzurik ere".

Atzera egin eta herri-galdeketa bat egitea gurako luke, aldiz, Abuinek. "Eragin zuzena daukaten politikak galdeketa bidez kudeatu beharko lirake. Hasierako proiektutik oraingora aldaketa handiak egon dira. Erguin edota Santa Marina, esaterako, prozesutik kanpo geratu dira. Gure ustez, atzerapauso bat eman behar da, eta berriz hutsetik hasi". Gaineratu du TAO sistemak ez duela herritarren mugikortasuna aldatzen, "mugatu" bakarrik egiten duela. "Askoz ere proposamen gehiago behar dira mugikortasun eredu aldatzeko; esaterako, bizikletaren erabilera sustatzea".

**'Ekobulebar'-a eta bizilagunak**

Beste gaitetako bat *Ekobulebar*-arena izan da, eta Abuinek azpimarratu du ez dela parte-hartzerik egon hasieratik. "Grupo San Juango bizilagunekin ere liskarrak izan ziren. Egun, bizilagun askok oraindik ez dakite nondik nora joango den proiektua. Gauzak ezin dira horrela egin". Morrasedi gaineratu du ez dutela ulertzen Grupo San Juan zergatik atera den proiektutik, nahiz eta akordiorik ez egon bizilagunekin. "Akordio bat lortzen saiatu beharrean, proiektutik kanpo utzi ditu Gobernuak, eta hori ez da bidezkoa bizilagunentzat".

Garibai oinezkoentzako izatea ere euren bizilagunekin egindako lankeari esker izan dela adierazi du Morrasedi. "Gobernuak ez zuen gura izan Laubide proiektua ikusterik ere. Beraz, bizilagunekin hasi ginen lankeata egiten, eta hortik atera zen bizilagunen mugimendu bat Garibai oinezkoentzako izan zedin eskatzen".

**Behin betiko autobus geltokia?**

Morrasedi esanetan, Zalduspeko geltokiak gauza bat du ona: "Erdigunetik hainbat autobus ateratzen ditu". Gaineratu du geltokia erdigunean izatea askoz ere erosagoa litzatekeela, "baina, horretarako, ikusi beharko

**"GOBERNUAREN ARDATZAK ADREILUA ETA ZEMENTUA DIRA; GU EZ GATOK BAT"**

EVA ABUIN, ELKARREKIN ARRASATE

litzateke trafiko fluxuak nola eragingo liekeen bizilagunei", dio. "Guk Arizmendiarieta plaza jartzea proposatu izan dugu Laubide proiektuan. Dena den, herritarrekin adostu beharko da geltoki berriaren kokapena".

Behin betiko geltokia erdigunean irudikatzen du Abuinek ere, eta zehaztasun falta leporatu dio Gobernuari. "Galdetu genion kokapena zehaztuta zeukan eta erantzuna izan zen mugikortasun planean eztabaidatuko dela, datorren agintaldian. Hasieratik parte-hartzea egongo balitz, agian zehaztuta egongo litzateke dagoeneko".

**Bi eraikin, kulturaren sorleku**

EH Bilduren bozeramailea "oso pozik" azaldu da Kulturola proiektua bukatzeaz dela eta. "Azken batean, gure proiektua da, Inaxio Azkarraga-Urizarren agintaldia. Laster, kultura eragileek espazio duinak edukiko dituzte euren jarduna gauzatzeko, eta horrek poztu egiten gaitu, baina atzerapen handiarekin dator". Abuinek, halaber, proiektuaren "kudeaketa penagarria" salatu du. "Hamasei hilabetez gauzatzeko proiektua zen eta 33 hilabete pasa dira dagoeneko. Enpresarekin edukitako malgutasuna herritarrekin edukitzea gustatuko litzazuke". Edozelan ere, Kulturola herriarendako ona izango dela uste du: "Askotariko erabilerearako gelak izatea ere proposatu genuen, baina ezetz esan zigun Gobernuak. Oro har, ados gaude proiektuarekin, baina kritika horrekin".

Juan Arzamendi Musika Etxea ere begi onez ikusten dute biek. Dena den, nabarmendu dute ez direla kontuan hartu beste behar musikaltzat, Arrasate Musikalez eta Goikobalu abesbatzaz aparte, bi horiendako bakarrik izango delako eraikina.

**Zuntz optikoa "berandu" dator**

Zuntz optikoa "oso berandu" iritsiko da alde zaharrera, Morrasedi esanetan. "Itxialdian, zuntz optiko barik jende askok ezin izan du lanik egin, eta oraindik ere ez dute zuntz optikorik etxean. Udaletxean badago. Zergatik ez dago alde zahar osoan? Hori da galdera nagusia". Abuinek dio akademiak atzean geratu direla. "Arazo hau ikuspegi orokor batekin planifikatu beharko litzateke, zuntza kale gutzietara iristeko".

# Lau hitzaldi, Arrasateko iragana astintzeko

Bueltan da Arrasate Zientzia Elkarteak antolatutako Arrasateko Iragana Astintzen hitzaldi zikloa, bederatzigarrenez. "Zortzigarrena egin genuenean esan genuen zaila izango zela beste edizio bat egitea, baina lortu dugu berriro egitaraua osatzea", diote

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Iazko etenaren ostean, zikloa berreskuratu du Arrasate Zientzia Elkarteak, Miguel de Aramburu Elkartearen laguntzari esker. "Elkarte hori Gipuzkoako historia azaltzen saiatzen da", azaldu du Jose Angel Barrutiabengoak, Arrasate Zientzia Elkartearen kideak.

Haren esanetan, elkarteak hainbat historialari zein antropologo batu ditu, Gipuzkoaren historia azaltzeko eta zabaltzeko. "Haiengana jo genuen eta prest azaldu ziren laguntzeko. Hala, zerrenda bat bidali ziguten, hizlariak izan zitezkeenekin, eta horietatik hiru aukeratu genituen. Izan ere, laugarren hizlaria lotuta genuen ordurako".

**Arrasateri lotutako hainbat gai** Xabier Alvarez erlojugilea da lotuta zuten hori. "Jatorriz Beteluko den familia erlojugile baten bosgarren belaunaldia da Alvarez, eta antzinako erlojuak konpontzen ditu gaur egun".

Bigarren hitzaldia Beñat Ugalde oñatiarrak egingo du, Historia ikasketak bukatu berritan. "Arrasateko altzairuari buruzko lan bat egin du, eta interesgarria iruditu zitzaigun. Beraz, berekin harremanetan jarri ginen, aztertutakoaren inguruan hi-



Arrasate Zientzia Elkartearen kideak, hitzaldi zikloaren kartelarekin. HASIER LARREA

## HITZALDI ZIKLOA BERRIZ EGITEA LORTU DUTE, MIGUEL DE ARANBURU ELKARTEARI ESKER

tzaldia egin zezan, eta animatu egin da". Era berean, Oñatiko Gure Bazterrak elkartearen kide ere bada Ugalde.

Hirugarren saioa Jokin Lanzen eskutik etorriko da. Antzinaroan doktorea da, Arkeolan funda-

zioko kidea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea. "Erromatar garaia buruz egingo digu berba, Arrasate eta inguruetan oinarrituta".

Azken hitzaldia, berriz, Alvaro Aragon historialariak egingo du. "1550. urtetik aurrera, mundu mailako tenperatura jaitsi egin zen eta nekazaritza asko kaltetu zuen horrek. Nekazariak ordura arte parrokiari erosten zioten hazi kopurua jaitsi egin zen. Aragonek azalduko du horrek nola eragin zuen Arrasaten", azaldu du Barrutiabengoak.



JOKIN BEREZIARTUA

## '80ko urteiek Mondrauen', irekita

Dagoeneko ikusgai dago Ez Donk Amaitu ekimenak Kulturateko klaustroan ireki duen *80ko urteiek Mondrauen* erakusketa. Astelehenetik zapatara egongo da ikusgai, 17:30etik 20:30era, azaroaren 27ra arte. 1980ko hamarkadako Arrasateko musikaz gain, hirigintza, feminismoa, euskara eta antimilitarismoa ere lantzen ditu, besteak beste, erakusketak.

### NIRE USTEZ



RAMON UGALDE

## X. urteurreneko adierazpena

"Ergelkeria handi bat da gertakari historiko batek ez zuela gertatu behar esatea", zioen iruzkin batean Pako Sudupek, Aieteko Adierazpenaren harira. Eta uste dut arrazoia duela. Baina, hala ere, nik galdera ergel batzuk egingo ditut: eta gertatu ez balitz? Nolako izango litzateke gure gizartea? Eta zergatik gertatu zen gertatu zena? Batzuek uste zutelako Kantauriko hegian herri zahar bat desagertzeko arriskuan zegoela?

Imajinatu dezagun joan deneko 60 urteetako abertzaleen jarduna gertatu ez balitz: ez Burgosko Prozesurik, ez 1975eko fusilamenturik, ez horren kontrako protestarik, ezta Espainiaren indar armatuen kontrako ezer. Eta euskararen aldeko borroketan ere "terrorismoaren" alde zeudenak aritu ez balira.

Eta Mondragoen bertan Euskal Herria zapalduta zegoela sentitzen zutenak jaio ere ez balira egin, Guardia Zibilak kuartela eta Polizia Nazionalak komisaria izango litzateke? Arrasate espainolagoa edo euskaldunagoa izango litzateke?

## Bi hitzaldi euskaraz, bi gaztelaniaz

- **Azaroak 4, eguena** *Los relojes que sincronizaron nuestras vidas. El reloj de la cerrajera*. Hizlaria: Xabier Alvarez (gaztelaniaz).
- **Azaroak 11, eguena** *Arrasateko altzairua*. Hizlaria: Beñat Ugalde (euskaraz).
- **Azaroak 18, eguena** *La época romana en Arrasate*. Hizlaria: Jokin Lanz (gaztelaniaz).
- **Azaroak 25, eguena** *La pequeña Edad de Hielo y la evolución de la agricultura a través del libro de Tazmias, de la parroquia de Arrasate (1550-1830)*. Hizlaria: Alvaro Aragon (euskaraz).

Hitzaldi guztiak 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.

errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

# Herriak egiten du herria

Eskatu saskiak eta lagundu hauen balioaren %25arekin Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari.



Okendoko ludotekako hiru haur, mozorrotuta, eurek margotutako mural txikia atzean daukatela. E.A.

## Arima txarrak uxatzeko, mozorroa soinean kalera

Euskal tradizioa berreskuratzeko asmotan, Gaba Baltzaren bueltan egitarau zabala antolatu dute herriko hainbat taldek eta eragilek elkarlanean; besteak beste, astean zehar hainbat tailer egin dituzte ludoteketan, eta gaur, Arimen Biltzarra egingo dute

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

"Azken urteetan, Halloween festa gure herri eta inguruetan asko zabaltzen zebilen, eta orain arte ez gara konturatu izan Gaba Baltza ere badagoela gurean, betidanik egon izan dela. Urte luzez ez dugu horren berri izan, eta, orain informazio gehiago daukagunez, euskal tradizio horiek berreskuratu eta gehiago ezagutarazi gura dugu", azaldu du Txatxilipurdi Elkarteko kide Itsaso Garaik.

Txatxilipurdiz gain, halaber, talde eta eragile asko batu dira egitaraua osatzeko. "Beste urte batzuetan baino askoz gehiago batu gara, eta hori oso pozgarria da", azaldu du Garaik. Hala, Ttak! gazte taldea, Ekin Emakumeak, ludotekak, gazte txokoak, Doke Antzerki Taldea eta Ibai-arte merkatarien elkarte dira egitaraua antolatu dutenak.

**Arimen Biltzarra Herriko Plazan**  
Astean zehar askotariko ekintzak egiten aritu dira ludote-

ketan. "Batetik, kukumarroaren eta Gaba Baltzaren inguruko ipuin kontaketak egin ditugu. Bestalde, gizarte hezitzaileek kukumarro bat sortu dute ludoteka bakoitzean pertsonaia moduan jartzeko, eta, horren baitan, umeekin Gaba Baltzaren gaia landu dute. Azkenik, kandelagintza saioak eta gaian oinarritutako mural bat ere egin dute", azaldu du Garaik.

Bestalde, gaur, egubakoitza, Arimen Biltzarra egingo dute. "18:30ean Biteri plazan elkartuko gara eta kalejiran joango gara plazara, *Ilargitxo*-rekin batera". Gainera, herritarrak mozorrotzera animatu gura dituzte, "baserritarrez, kukumarroz edo egoki ikusten duten beste-

**UDALAK ANTOLATUTA, BISITA GIDATUA EGINGO DUTE BIHAR, ZAPATUA, HERRIKO PLAZATIK ABIATUTA**

lako mozorro bat jantziz". Ondoren, ekitaldi nagusia egingo dute, eta 19:30 aurretik bukatuko da. "Doke Antzerki Taldeko Ezberdin Berdinak taldeak amonaren heriotzaren inguruko antzerki bat egingo du; gero, gaztainak banatuko ditugu bukaeran, eta elkarrekin abestu".

Zapatuan, Musakolako gazte txokoan afora eta errituala egingo dute, 20:30ean hasita – aurrez izena eman beharko da gazte txokoetan–. Domekan, beldurrezko film laburren emanaldia egingo dute, hori ere Musakolako gazte txokoan, 18:00etan –izen-ematerik ez–.

**Jatorriaren inguruko bisitak**

Bestalde, Arrasateko Udalak Gaba Baltzaren jatorriaren inguruko bi bisita gidatu antolatu ditu biharko. Herriko Plazatik abiatuko dira, 10:00etan euskarazkoa eta 11:00etan gaztelaniazkoa. Aurrez izena eman beharko da, 943 25 20 00 zenbakian, udal webgunean edo BAZen.

## Espazio publikoa erabiltzeko ordenantza, parte-hartze bidez

Eztabaida talde bat sortu gura du Udal Gobernuak, ordenantza idatzi baino lehen askotariko iritzia batzeko

**E.A. ARRASATE**

Udal Gobernuak azaldu duenez, COVID-19aren pandemiak "aldaketa nabarmenak" eragin ditu Arrasateko espazio publikoaren erabileran: "Izan ere, osasun neurriak betetzeko helburuarekin, espazioaren erabilerari buruzko neurriak hartu ziren, herriko hainbat negozio garatzen laguntzeko". Horrek agerian utzi du arlo horretako ordenantza baten falta, eta, hori gauzatzeko, eztabaida talde bat sortu gura du Gobernuak, honako hauek osatuko dutena: bost herritar,

Arimazubitik, Kontzezino-Erdigunetik eta Uarkapetik etorriak; ostalaritzako profesionalak diren beste bost pertsona, zona horietakoek lehentasuna izango duten arren; tokiko beste bost bizilagun, tabernari eta merkatari, herriko gainerako zonetakoa; eta desgaitasuna duten pertsonen elkartearen ordezkari bat ere izango da.

Azaroaren 4ra arte egongo da aukera izena emateko; bi bide daude: 688 64 80 40 telefonora deituz edo [smartinez@aztiker.eus](mailto:smartinez@aztiker.eus) helbidera mezu bat bidaliz.

## "Pozik eta hunkituta" aurkeztu du Ane Irazabalek 'Awlad' lana

Nazioarteko hainbat zinema jaialditan aurkeztu eta gero, Amaia antzokian plazaratu du dokumentala kazetariak

**E.A. ARRASATE**

Ane Irazabal kazetari arrasatearrak 2019an kaleratu zuen *Awlad. Hesiak gainditu* dokumentala, eta, orduetik, Grezian, Hong Kongen, Txekian eta Latinoamerikan aurkeztu du, besteak beste. "Oso harrera ona izan dute emanaldiek, herritarren jarrera oso polita izan da", dio. Hala ere, etxean aurkezteak beste zerbait esan nahi izan du Irazabalentzat. "Oso polita da norbere lana etxera ekartzea eta herritarren berotasuna sentitzea. Oso hunkituta nago".

Proiektu "berezia" dela nabarmendu du. "Garrantzitsua zen ikusi izan ditudan errealitateen berri ematea. Azken 6-7 urte hauetan errefuxiatuen drama kontatzen aritu naiz. Kanpalekuetan egonda eta umeen bizitza ikusita, konturatu naiz krisi humanitario eta politikoa kroniko bilakatzen denean, umeak ez direla eskolaratzen. Beraz, guretzat garrantzitsua zen ume horien begietatik eta ahotik haiek bizi dutena kontatzea". Lau ume errefuxiatu dira protagonistak dokumentalean.

## Emakumeen eskubideen gaineko tailerra, martitzenetik

Emakume musulmanak euskal gizartearen integrazteko helburua duen IMME elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, emakumeen giza eskubideei buruzko tailer bat abiatuko du azaroaren 2an, martitzena, elkartearen egoitzan (Errebuelta kalea, 4). Bi orduko bost saio izango dira, 10:00etatik 12:30era (azaroak 2, 4, 9, 11 eta

18). Saio horietan, lan eskubideak eta bestelakoak landuko dituzte, emakumezkoen giza eskubideen aitortza eta defentsa egiteko asmotan, eta jakinarazteko ze dirulaguntza jaso ditzaketen egoera bakoitzean. "Esaterako, Eusko Jaurlaritzak doako zerbaitu bat eskaintzen du arreta psikologikoan, eta jende askok ez daki", azaldu dute.

30 pertsonarentzako lekua egongo da saioetan, eta, hasiera batean, behintzat, ez da izenik eman beharko.

# Haurren Kontseilua abian da, elkarlanerako prest

Ikasturte berriarekin batera, seigarren aldiz ekin diote herriko haurren parte-hartzea sustatzea helburu duen ekimenari. Era horretan, Arimazubi, Gazteluondo, Herri Eskola eta Santa Teresa eskoletako hogeit hamar ikasle arituko dira Udal Gobernuarekin elkarlanean

**E.A./H.L.** ARRASATE

Duela bost urte hasi zen lanean Haurren Kontseilua, eta ordutik asko izan dira talde horretan parte hartu duten neska-mutilak. Aurten, seigarren ikasturtean, Arrasateko Arimazubi, Gazteluondo, Herri Eskola eta Santa Teresa eskoletako hogeit hamar ikasle arituko dira taldean.

Azken urteetan hainbat gai eta proposamen landu dituzte; besteak beste, ur-parkea, *parkour* parkea eraikitzeko proposamena, mahai-joko baten sorrera -herriko izakien arteko elkarbizitza zaintzeko eta soluzioa behar duten egoerak modu kooperatiboan lantzeko- eta umeentzako bozketa sistemaren sorrera. "Azken horren ondorioz, gainera, umeek aurrekontu parte-hartzaileetan bozkatu ahal izango dute aurten", adierazi du Udal Gobernuak, ohar bidez.

Abiatu berri duten ikasturte honetarako gaiak eta edukiak, beti bezala, kontseiluko kideekin

erabaki eta landuko ditu Udal Gobernuak. "Izan ere, kontseiluaren helburua da haurren parte-hartzea sustatzea herri mailan eta euren interesetatik sortzen diren proposamenak garatzea; betiere, Udalarekin harremanetan eta fokua herrian jarrita". Bestalde, "pandemia hobera doala aintzat hartuta", Udalaren eta Haurren Kontseiluaren asmoa komunitateko kideengandik "gertuago" egotea dela nabarmendu dute.

**Alkatearen harrera, udaletxean**  
Maria Ubarretxena alkateak harrera egin die udaletxean, eta eskertu egin die azaldu duten prestutasuna: "Hilabeteetako lana dugu aurretik, baina ezinbestekoa da haien ahotsa eta nahiak entzun eta Udaletik garatzen diren proiektuetan presente izatea, guztion ezaugarrietara eta beharretara egokitutako Arrasate hobea eraikitzen jarrai dezagun".



Haurren Kontseiluko kideak, plazan, Maria Ubarretxena alkatearekin. A.U.



UDALAKO INGURUMEN ESKOLA

## Ingurumen Eskola ere martxan

Urri hasieran hasi ziren ikasleak hartzen eta aurten egonaldi luzeak berreskuratu dituzte. "Lotara etorri diren lehen taldeak Arrasateko Institutuko ikasleak izan dira. Oinez egin dugu Udalarainoko bidea, eta gero, papera birziklatu, orientazio eta simulazio jolasak... eta ogia ere egin dugu eurekin", azaldu dute Udalako Ingurumen Eskolako ordezkariak.

Urriak **29** ostirala eta **30** larunbata

**BEZa** \*

oparituko dizugu

elikagaietan, freskoetan,  
drogerian eta lurrindegian.

Edariak, parafarmazia eta haurtxoentzako produktuak barne.

**Aurrezki gehiago bazkide izateagatik**

\*40€-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan eta 60€-tik gorakoa EROSKI Hipermerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabriar, Erioxan, eta Aragoian.

Kutxatik igarotzen zure EROSKI club kartela pasatzen baduzu, egindako erosketaren BEZari dagokian zenbatekoa sartuko dizugu kutxako EROSKI club kartuan. Erosketa bakoitzeko gehienez sartu daitekeen zenbatekoa: 250€. Kontsulta itzazu gainerako baldintzak zure ohiko EROSKI dendan.

Baita [supermercado.eroski.es/eu](http://supermercado.eroski.es/eu) webgunean ere.

**EROSKI**

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30

# "Errugbiaz maitemindu gara, konturatu orduko"

**IANA GARMENDIA** ARRASATE RUGBY TALDEKO JOKALARIA

laz, emakumezkoen taldea sortu zuen klubak, eta Debagoieneko kuadrilla polita batu da proiektura. Liga ofizialean debuta egin berri dute, ordiziarrekin taldea osatuta

**Xabier Urtzelai** ARRASATE

Iana Garmendiak (Arrasate, 1996) inoiz ez zuen pentsatuko errugbiko galtzak jantzi eta Mojategin plakaketak egiten ibiliko zenik. Eta, are gutxiago, kirol horrek modu horretan harrapatuko zuenik: "Urteetan jarraitzeko asmoa dut, ez dut uste talde hau berehalakoan desgertuko denik".

**Talde berria da zuena. laz, pandemia tarteko, ez zenuten liga ofizialik izan, eta orain hasi zarete.**

Halaxe da, baina iazko urtea bikain etorri zitzaigun errugbiak dituen joko-arau guztiak ikasteko. Urtebeteko tartea izan dugu ikasteko, lagunartekoak jokatu ditugu, eta orain ligan hasi garenean oinarri batekin hasi gara. Gehiago esango dizut, iaz errugbiak izugarri lagundu zidan pandemian egindako urtea beste modu batera eramaten; entrenatzera etortzen ginen, eta horrek arnasa ematen zigun.



Iana Garmendia, Mojategin. ART

**Talde gaztea duzue; zelan iritsi zarete errugbi taldea osatzera?**

Lagun batek komentatuta hasi nintzen ni, eta ez pentsa jokalarik guztiak Arrasateko kuadrilla berekoak garenik. Ez, Debagoieneko herri askotako jendea

dago; esaterako, taldekide asko oñatiarrak dira. Sekulako talde giroa dugu, eta hemen beste kuadrilla bat sortu dugu.

**Horrenbestez, taldean zaudetenok lehenago ez zenuten errugbiarekin harremanik?**

Ez; nire kasuan, telebistan ere ez neukan errugbi partidu bat ikusita. Oso gaztea nintzenez saskibaloian jokatu nuen, baina gero ez naiz inon federatuta egon, orain arte. Eta, konturatu garenerako, kirol honek maitemindu egin gaitu; orain, errugbiko jonki bilakatu gara; kar, kar, kar.

**Zer dauka, bada, errugbiak?**

Batetik, taldean daukagun giroak asko laguntzen du. Eta, horrekin batera, joko erakargarria da, kontzentratuta egotera derrigortzen zaitu, egunerokotik ihes egiteko baliagarria da eta errespetu handia dago. Hau da, badirudi joko zakarra izan behar dela, baina errugbia noblea da. Errespetu handia izaten zaio kontrarioari, eta baita epaileari ere. Eta gainera, partidu ostein egiten ditugun hirugarren denborak ere ederrak dira; kar, kar, kar. [Errugbian ohitura da partidu amaieran kontrarioarekin garagardo batzuk hartzea]

**Talde ordiziarrekin batera osatu duzue.**

Bai. 15eko errugbian jokatu gura genuen, zelai osoan, baina horretarako jokalarik asko behar dira. Berdegunean 15 lagun egoten dira, baina partiduetara komeni da 23 lagun inguru joatea, ordezkokoak izateko. Arrasateko taldean ez gaude horrenbeste neska, eta ordiziarrek egoera antzerakoan zeuden. Bada, talde polita osatu dugu. Euren artean badira jokalarik gazteak,

baina baita esperientzia gehiagoko jokalaririk ere.

**Orain arte, bi partidu jokatu dituzue; zer moduz?**

Emaitzei erreparatzen badiegu, bi partiduak galdu egin ditugu [12-33 La Unicaren kontra eta 48-20 Bilboko unibertsitarioren kontra], baina taldea aurrerapauso handiak ematen dabil. Oso kontziente gara kirol honetara iritsi berriak garela, eta asko daukagula ikasteko, baina iazko lagunarteko partiduekin alderatuta orain daukagun mailak ez du zerikusirik. Badakigu ez dela emaitzei begira egoteko urtea, baina partidu bat irabazten dugun egunean... Sekulakoa izan behar du horrek.

**Asteburuan atsedean duzue.**

Bai, zubia tarteko ez dugu partidurik. Gasteizko Gaztediren kontra jokatuko dugu hurrengo partidua; haiek ere esperientzia dute.

**Liga hasi berria da, komeniko zaitzue jokalarik gehiago taldera batzea.**

Hori da, taldeko ateak zabal-zabalik ditugu, eta mezua bidali nahi diegu Debagoieneko neskei: astelehen eta asteazken arratsaldeetan entrenatzen gara, eta gerturatu daitezela beldur barrik!

**"PANDEMIA URTEA ONDO ETORRI ZITZAIGUN ERRUGBIKO JOKO-ARAUAK IKASTEKO"**



BENJA RAMOS

## Judoka gazteak, ondo Eibarren

Eibar Hiria judo txapelketa jokatu zuten joan den domekan, eta han izan ziren Arrasateko judo elkarteko hamazortzi gaztetxo. Gazteenek entrenamendu saioa egin zuten, eta 8 eta 11 urte artekoek txapelketa jokatu, baita domina kopuru polita lortu ere. Lehen postuan geratu ziren, esaterako, Irati Jimenez, Markel Arrieta, Iker Aranegi eta Ane Aranegi.



CARLOS SANCHEZ

## Euskadiko Txapelketara bidean

Domekan jokatu zuten, Hondarribian, Gipuzkoako kadete, junior eta 21 urtez azpiko txapelketa, eta Saioa karateko ordezkariak azpimarratzeko moduko emaitzak lortu zituzten. Nabarmenezkoa da Xavier Varteniucek, Julen Bermejok, Danel Izurategik eta losu Madinabeitiak kumitean lortutako urrea. Euskadiko Txapelketarako sailkatu dira denak.

## Domekan, Becedo Santander hartuko du Muk Iturripen (18:30)

Jokatutako sei partiduetatik lau irabazita, Mondragon Unibertsitatea EBA kategoriako zazpigarren postuan dago, hamar puntu batuta. Hala, domekan, sailkapenean atzerago dagoen -bi partidu irabazita- Becedo Santander izango da Iturripen (18:30). Easoren eta Getxoren kontrako porrotak alde batera utzita, azken bi jardunaldietan Eneko Mataren mutilek emaitza onak batu dituzte, eta lesionatuta dauden jokalarien hutsunea ondo bete dute, harrobiko jokalarik gazteei aukerak emanez. Joan den astean, esaterako, maila nazionalako jokalarik gazteek eutsi zioten taldeari minutu askotan.



Banana Shake taldeko musikariak, Depos-Gaz elkarteko euren entsegu lokalean, abestiak prestatzen. BANANA SHAKE

# Gaztetxea, herriko musikarien agertoki

Banana Shake zazpikoteak debuta egingo du oholza ganean gaur gauean, 22:30ean hasita. Bihar, Ekiñe Casadoren txanda izango da: 19:00etan, 'Besterik ez' diskoa aurkeztuko du. Datorren astean, Perlata eta Crap taldeek emango dute kontzertua

## Hasier Larrea ARRASATE

Aste honetan, lau egun jarraian izango du aktibitatea gune autogestionatuak: asteazkenean, EHGM kolektiboak KOSA hausnarketa prozesua aurkeztu zuen, *Noiz bukatzen da armairua?* liburuaren aurkezpen eta guzti; atzo gauean, Kooltur Ostegunen baitako kontzertua eman zuten Joseba Irazoki eta Lagunek; eta datorren astean, Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak estreinatuko du azaroko egitaraua.

Gaur eta bihar ere, musika nagusituko da gaztetxean, eta nabarmentzekoa da arrasatearrak izango direla oholzatik pasako diren musikari guztiak.

## Freskagarri berria

25 eta 27 urte inguruko lagun talde baten "konfinamenduko asperduratik" sortu zen Banana Shake musika taldea. "Nor bere etxean entseatzeko hasi zen, eta, gogotsu geundela ikusita, ea entsegu lokala eskuratzetik bageneukan galdetu genuen Uda-

lean. Zortea izan genuen, tokia egin baitziguten Depos-Gaz elkarteko gela batean", adierazi du taldeko kide Aitor Abarra-tegi gitarrak-joleak.

Zazpikotea lehen aldiz ikusteko aukera egongo da gaur gauean, baina zer jotzen duten aurreratu dute jada. "Arrasaten ohikoak diren soinu bandak, RIP eta halakoak, aukeratzen ditugu bertsiok egiteko, baina gure erara moldatzen ditugu abestiak", aipatu du Abarra-tegi. Rocketik edaten duen errepertorioa taularatuko dute, beraz, baina haize-instrumentuen indarrarekin. Gainera, hiru abesti propio konposatu dituzte dagoeneko: "Gaurkoa ondo irtetzen bada, aurrera egitea espero dugu".

**ASTE HONETAN ETA HURRENGOAN, EGUEN, BARIKU ETA ZAPATUAN EGINGO DIRA KONTZERTUAK**

## Mimatutako kantak bihar

Ekiñe Casado bakarlarria martxoan ateratako *Besterik ez* diskoa aurkeztu dabil azkenaldian. Joan den asteburuan Bergarako Seminarixoa jo ostean aipatu zuen "harrituta" gelditu zela tokiarekin. Ez zaio hori pasako gaztetxean, ondo ezagutzen baitu aretoa, baita jarduerak antolatzeke lan egiten duten boluntarioak ere.

## Indarra dute datozenek

Azaroaren 5ean, barikua, Ez Donk Amaitu ekimenarekin lotutako kontzertuak egingo dira toki berean. Hala, Perlata hiru-koteak eta Gasteizko Zero taldeak seigarren martxa jarriko diote 22:00etatik aurrera sortuko den giroari. Beste horrenbeste egiten saiatuko dira Crap-ekoak hurrengo egunean, ordu berean, Iruñetik etorriko diren Streetwise eta Herdoil taldeekin batera, Gazte Koordinadora Sozialistaren Leintz Bailarako aurkezpen ekitaldiaren baitan.

## Errugbi taldeko Herensugeen 25. urteurrenaren hasiera, umoretik

Dani Fontecha eta 'Suko' umoristak gonbidatu ditu ARTren talde beteranoak, eta Amaian izango dira bihar

### H.L. ARRASATE

2020ko urte pandemikoan bete zituzten Arrasate Rugby Taldeko Herensugeek 25 urte, eta, ospatzeko asko zuten arren, atzeratu egin behar izan zituzten pentsatutako ekitaldiak. Javier Jauregi aritu da urtemugako kontuak koordinatzen, eta aipatu du harreman ona daukaten hiru errugbi talde gonbidatuko dituztela 2022ko maiatzean: "Burdeosko Archiball, Vigoko Melgachos eta Donostiako Bera-Bera taldeko beteranoak iaz etortzea nahi genuen, baina, azkenean, zazpi hilabete barru etorriko dira Arrasatera".

### Motorrak berotzeko, barreak

Maiatzeko jaialdirako diru-iturriak lortzeko eta klubari laguntzeko asmoz, *El Hormiguero* telebista saioan kolaboratzen duten Dani Fontecha eta Sergio



Fontecha eta Suko. 'EL HORMIGUERO' SAIOA

Gonzalez Suko bakarriketariei dei egin zieten Herensugeek. Hala, bihar, 19:30ean hasita, "zorientasun faltsua" eta gaiak tonu umoretsuan landuko dituzte. Sarrerak eskuragai daude, *arrasate.eus* webgunean eta Amaia leihatilari.

## Musika estilo dantzagarriak Iratin, Gaba Baltzarekin bat

Zuzeneko musikak ez du etenik izango zapatu arratsalde eta gaua bitartean Irati topalekuan. Reggaeaz gozatzeko aukera egongo da bertako terrazan, 18:30ean hasita, Revolutionary Brothers, King Consul eta Benaranks taldeen eskutik. IndaGlory elkarteak, Revolutionary Brothers Music, Gross garagardo artisaua eta Irati topalekua dira antolatzaileak.

leak, eta adierazi dute euria egin ez gero jantoki barruan izango dela musika emanaldia. Barrualde hori gauean, 23:00etatik aurrera, DJ Celerakak giro-tuko du musika elektronikoaren bidez. Donostiako Gross garagardoa ere egongo da dastatzeko.

Domekan ere hiru musika-jar-tzailek doinu elektronikoak jarriko dituzte, arratsaldeko seietatik aurrera. Hala, Ion Brown (Enngrad), K.Ttipia (Cowboys) eta Jiolimo (Meet Moses) izango dira saioaren gidariak.

## Biolin kontzertua izango da gaur San Juan parrokiaren

Noizean behin jasotzen dituzten kontzertu akustikoak Herriko Plaza aurreko parrokiak, eta, oraingoan, Arrasate Musikaleko Amaia Arzamendiren hiru ikasle izango dira aldarera igoko diren musikariak. Hala, herri-tarrek biolin doinuez gozatzeko aukera izango dute gaur arratsaldean, 19:45ean hasita. Emanaldia doakoa izango da.

## 'Érase una vez en Euskadi' filma, gaurtik azaroaren 8ra

Manu Gomez arrasatearrak zuzendutako pelikula estreinaldiaren egunean bertan proiektatuko dute Amaia antzokian, 19:30ean. Ordu berean hasiko dira domekako, asteleheneko eta martitzeneko proiektzioak, baita hilaren 6ko eta 8koak ere. Azaroaren 2an, gainera, zuzendariarekin solasaldia egiteko aukera egongo da amaieran.



Bi ume behorrei hostoak ematen. GOIENA

## Animalia eta artisau azoka ospatuko da bihar

Erretiratuen Eguna egingo dute bihar. Goizean zehar, Nardeaga kalean askotariko postuak jarriko dituzte; ondoren, meza eta bazkaria izango dute erretiratuek. Eta herriko nagusienak omenduko dituzte: Fermin Etxebarria eta Mari Carmen Zurbano

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Erretiratuen Eguna ospatuko dute aurten. Herrian ondo errota dagoen jaia da, eta, urtebeteko etenaldiaren ondoren, berriro ere indarrez dator. Bihar, zapatua, egingo dute azoka eta bazkaria.

Azoka Nardeaga kalean izango da, 11:00etatik aurrera, eta ia 60 postu jarriko dituzte. Herriko postuak 29 izango dira eta kanpotik datozenak, 28. Herriko postuetan denetarik egongo da. Batetik, animaliak: oiloak, behorrak, astoak eta ardiak; eta, bestetik, barazkiak, eskulanak, gozogintza... Kanpotik datozenek ere aukera ugari ekarriko dute: eskulanak, bitxigintza, sukaldereko tresnak, krocketak...

### Herriko elkarteak

Azokan, nekazariez eta artisauetz gain, herriko hainbat elkarte ere egongo dira. Ohiturari eutsiz, San Martin eskolako seigarren mailako ikasleek pastelak salduko dituzte; dantza taldekoek,

gozogintza; trikiti elkartekoek, tortilla-pintxoak; Itur Zuri elkartekoek, eskulanak; Harreman dendak, bidezko merkataritzako produktuak; eta Aramaioko ikasleek taloak egingo dituzte.

### Meza eta dantzak

Erretiratuen Eguneke meza 12:00etan egingo dute, parrokan, Bizente Goikoetxea abesbatzak

### Trafikoan eragina

Gaur, Nardeaga 20tik behera garaje eta atarrietako sarrerak libre utzi beharko dira; eta 32tik 33ra trafikoa moztuta egongo da. Bihar, Nardeaga 30etik behera eta Pedro Ignazio Barrutia 7-9an ezingo da aparkatu, eta trafikoa moztuko dute.

lagunduta. Mezaren ondoren, dantzen txanda izango da. "Aurtengo ikasturtean adin ezberdinetako sei talde gabiltza dantza ikastaroan", azaldu du Oihane Vicente irakasleak. Talde guztiek parte hartuko dute eta euskal dantzak dantzatuko dituzte. Eguraldiak laguntzen badu, plaza izango dira dantzak; eta euria egin ez gero, udaletxeko arkupeetan. Gainera, Trikikalejira trikiti taldeak kaleak girotuko ditu musikarekin.

### Nagusiei omenaldia

Urteroko ohiturari eutsiz, herriko nagusienak omenduko ditu Udalak. Iaz oroigarria jaso zuten berberak izango dira aurtengo omenduak ere: Fermin Etxebarria Elorza eta Mari Carmen Zurbano Egaña, hain zuzen. Udal ordezkarien eskutik oroigarria jasoko dute.

14:30ean, erretiratuek bazkaria egingo dute, eskolako jangelan. Egun paregabea pasatzeko aukera izango dute.



JUDITH ARRIOLABENGOA

## Aldarrikapena Gasteizen

Araba Bizirik! ekimenak antolatutako manifestaziora hainbat aramaioar joan ziren; besteak beste, irudian ikusten diren kartelak eraman zituzten aramaiorrek. *Lurra defendatuko dugu* aldarriarekin egin zuten manifestazioa zapatuan Gasteizen. Gainera, hitzaldia, traktoreen martxa, bazkaria eta kontzertuak ere izan zituzten.

### 'Bihurrikeriak' izango da aurtengo bideo kopleto gaia

Arabako Bertsozale Elkartek eta Arabako Aleak elkarlanean antolatu dute, bigarren, bideo koplak lehiaketa. 14 urte arteko arabarrei zuzendutako lehiaketa da. Bertsolaritza eta teknologia berriak uztartuz bertsolari gazteen sormena sustatzea helburu du lehiaketak. Aurtengo proposatu duten gaia hau da: *bihurrikeriak*. Parte hartzeko, hiru eta sei koplak bitartean osatu beharko ditu talde bakoitzak, koplak bideo formatuan grabatu eta azaroaren 19rako bidali Aleara –galdetegia beteta–. Argibide gehiago 695 63 28 62 telefono zenbakian emango dute. Sari banaketa abenduaren 2an izango da.

### Eguneratu egin dute udaletxera sartzeko zegoen protokoloa

Eguneratu egin dute orain arte udaletxera sartzeko zegoen protokoloa. Behin alarma egoera gaintuta, aurrerantzean udaletxeko ateak zabalik egongo dira bulego orduetan, 09:00etatik 14:30era –eguztenetan, baita, 16:30etik 18:30era ere–. Hala ere, maskararen erabilera derrigorrezkoa izango dela gogorarazi dute udal ordezkariak.

### Gizarte laguntzailea bi egunetan egongo da udaletxean

Gorbeialdeko Kuadrillak gizarte langile berria kontratatu du, eta, horren ondorioz, udaletako zerbitzua zabalagoa izango da. Aramaiori dagokionez, Leire Espinosa gizarte langileak eguztenetan eta egubakoitzetan emango du zerbitzua udaletxean, goizez. Beraz, egun horietan Espinosarekin hitzordua hartzeko aukera egongo da. Horretarako, jarraian adierazitako telefono zenbakietara deitu beharko da, egunaren arabera: astelehenetan eta egunetan, 945 45 50 11 zenbakira; eta martitzenetan, eguztenetan eta egubakoitzetan, 945 43 04 60 zenbakira. Jendaurreko ordutegia 09:00etatik 13:00etara izango da.

### San Martin pilota txapelketako finalerdiak

San Martin pilota txapelketa amaierara iristen ari da. Aste bukaeran, hainbat finalerdi jokatuko dituzte: gaur, barikua, kadete A mailako finalerdia jokatuko dute, 18:30ean. Gainontzeko partiduak domekan izango dira, 11:00etan hasita. San Martin txapelketako finalak azaroaren 6an izango dira, zapatua, 16:00etan.



# Kalabazak eta arbiak husteko gaua izango da

Txirritola euskara elkarteak, Lagun Artean dantza taldeak eta Elkartasuna guraso batzordeak Gaba Baltza antolatu dute. Gaur egingo dituzte ekitaldiak: mozorro tailerra, ipuin kontalariak, kalejira eta zenbait sorpresa izango dituzte

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Domu Santu egunaren bueltan egiten den Gaba Baltza ospakizuna gaur, egubakoitza, egingo dute. AEBetatik datorren Halloween jaiaren aurrean bertako ospakizunak aldarrikatu nahi dituzte; gaztetxoek ere garai bateko ohiturak ezagutu dezaten. Domu Santu egunaren inguruan askotariko ospakizunak egin izan dira Europa osoan, eta baita Euskal Herrian ere. Kalabazak eta arbiak hustu, gaua, beldurra, mozorroak... Horiek guztiak batu eta ospakizuna egingo dute gaur. Txirritola euskara elkarteak dabil antolatzen, Elkartasuna guraso elkartearen eta Lagun Artean dantza taldearen laguntzarekin.

## Mozorro tailerra

Gau beldurgarria izateko, ezin bestekoa izango da ondo mozorrotzea. Horretarako, mozorro tailerra egingo dute kultura etxean. Etxetik arropa zaharra eramateko eskatu dute, eta ideiak hartzeko aukera egongo da *gau-beltza.eus* atarian.

18:00etan, kaleak apainduko dituzte kalabaza eta kriseiluekin, eta 18:30ean, ipuin kontalarien txanda izango da. Aitor Vinagret kontalariak *Otsoen mokaduak* ipuina eroango du eta Ane Arrua-



2019ko irudian, herriko gaztetxoak mozorrotuta. IMANOL SORIANO

## NARDEAGA KALEKO ETA PLAZAKO ARGIAK ITZALI EGINGO DITUZTE KALEJIRAK DIRAUCEN BITARTEAN

gaetak *Izarretan idatzita*. 19:30ean, kalejira egingo dute, eta, azkenik, dantza. "Julen Alonso trikitilariaren *Sutan dantzan* abestiari koreografia ipini genion orain urte batzuk", dio Oihane Vicente dantza ira-

kasleak. Sorginen inguruko abestia izanda, egokia dela uste dute gaur egiteko. Kalejirak eta dantzak irauten duen bitartean, Nardeaga kaleko eta plazako argiak itzali egingo dituzte.

"Orain dela hiru urte hasi ginen Gaba Baltza ospakizuna egiten. Halloween jaia asko zabaldu da, eta konturatu gara hemen ere berdina egiten zela... Konnotazio globalizatzaile hori kendu nahi diogu", dio Txirritolako kide Itziar Blazquezek. Sorpresak egongo direla gaineratu du hark.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

## Emakume bat hiru gizon bihurtu zen

Ez dira gutxi historian zehar gizezkoen izenen atzean ezkutatu diren emakume artistak. Beraien senarren izenekin, ezizenekin edo anonimo bezala sinatu dutenak. Adibideak? Charlotte Brontë *Currer Bell* zen, Emily Brontë *Aston Bell*, Mary Shelley *Frankenstein*-en idazleak ez zituen bere lanak sinatzen... Virginia Wolfek zioen bezala, berak bai sinatzen zituelako lanak: "Ziur naiz anonimo bezala sinatutako poemak emakumeenak direla". Literaturan bezala, beste hainbat alorretan.

Hainbeste urtez konkistatu ezin izan ditugun espazioetara nekez iristen gara oraindik. Eta justu orain, gure izenekin sinatzen dugunean, entzunak izan nahi dugunean, justu orain, *best seller* bihurtu zen Carmen Mola autorearen saria hiru gizezko jaso dute.

Emakume bezala sinatuz, hainbeste urtetan zehar irabazi den lurra zapalduz, feminismoa *moda* bihurtuz.

Beti gustatu izan zait magia, baina truko honek ez du graziarik.

## GORA ETA BEHERA



## Etxaguen eta Arriola arteko errepidea


Etxaguen eta Arriola arteko errepidea asfaltatu berri dago. "Bereziki hondatuta zegoen gunea da. Auzotarrek eta zikloturistek igarriko dute aldea", azaldu du irakurle batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



UNAI URIBARREN GURASO ELKARTEKO KIDEA

"Txirritolak antolatzen du, eta guk lagundu. Orain bi urte egin zenean, oso polita izan zen; hortaz, ahal dugun heinean, laguntzeko prest gaude".



OIHANE VICENTE DANTZA TALDEKO IRAKASLEA

"Parte hartzeko gonbidapena jaso genuen, eta animatu egin gara. Kalejiraren ondoren, plazan egingo dugu dantza, eltzearren inguruan".



ITZIAR BLAZQUEZ TXIRRITOLAKO KIDEA

"Historian zehar hemen, eta baita Europa osoan ere, egin izan den ospakizuna da. Kutsu komertziala kendu nahi diogu, eta jatorria erakutsi".

## 'Akelarre' filma eskainiko dute domekan, 19:00etan

Ikusiz Gozatu elkartearen eskutik, *Akelarre* filma ikusteko aukera egongo da domekan. Emanaldia 19:00etan izango da, kultura etxean. Pablo Aguero zinemazuzendari argentinarrak Zugarramurdiko sorginen istorioa kontatzen du filmean. Nabarmendu behar da bailarako bi aktorek parte hartu dutela filmean.



*Akelarre* filmaren irudi bat.

# Indarkeria matxistaren aurka pausoak zehazten

'Aretxabalekako nerabe eta gazteen artean ematen den indarkeria matxistaren aurkako protokoloa' landu du Udalak hainbat eragilerekin, Hiruki Larroxa elkarteak gidatuta, eta nerabeekin lan egiten duten taldeetako kideei aurkeztu diete

**Mirari Altube** ARETXABALETAKO

Udaleko Berdintasun eta Gazteria sailletako ordezkariak, gaztelekuko eta UDAko begira-leek eta koordinatzaileak eta kale hezitzaileak indarkeria matxistaren gaineko lanketa egin dute lauzpabost hilabetez, Hernani aldeko Hiruki Larroxa elkarteak gidatuta. Eta egindako lan hori protokolo batean jaso dute, eskura izan dezaten nerabeekin lan egiten duten herriko talde eta elkarte guztiek. Eguaztenean, hain zuzen ere, aurkeztu zuten egindako lana, eta aurrera begirako pausoak ematen hasiko dira orain.

**Hiru atal dituen lana**

Hiru zatitan banatu dute protokoloa: batetik, prebentzioa eta detekzioa dago. "Helburua beti da indarkeria matxista kasuak ez gertatzea. Eta horretarako, behar-beharrezkoa izaten da aurretik lanketa ezberdinak egitea; esaterako, maskulinitate lanke-ta mutilen artean eta autodefentsa feminista nesken kasuan", azaldu du Hiruki Larroxa Egoitz Albeniz kideak. Bigarren atala detekzioari eskaini diote: "Nerabeen eta gazteen kasuan, batez ere, indarkeria psikologikoa izaten da. Indarkeria hori suti-lagoa da eta zailtasunak izaten




Udaleko, gaztelekuko, kale heziketako, UDAko eta Hiruki Larroxa ordezkariak. M.A.

dira detektatu ahal izateko. Horregatik, susmo-adierazle ezberdinak zehaztu dira, hezitzaileen-dako jarraibide izateko". Eta hirugarrenenean jaso dute zein arreta eta jarraipen eman indarkeria matxista jasaten duen edota jasateko arriskuan dagoen nerabeari.

**Sentsibilizazio mahaia**

Prebentzioari eta sentsibilizazioari garrantzi handia eman diote lanketan jardundakoei, eta protokoloaren berri ematea izan da horren abiapuntua. Txos-

ten osoa Udalaren webgunean jasoko dute eta horren laborpe-na -150 eskuorri-, nerabeekin lan egiten duten elkarten artean banatu. Era berean, Sentsibilizazio eta Prebentzio Mahaia sortu dute. "Adierazle batzuk jarriko dira jarraipena egiteko. Baina oraindik ez dugu bilerarik egin, eta joango gara zehazten", dio UDAko koordinatzaile Ainar Muga. Mahai eta dinamika horretara herriko beste eragile batzuk ere gonbidatu dituzte; ikastetxeak eta guraso elkarteak, esaterako.



**KARMELE URIBARRI**  
GIZARTEGINTZA ZINEGOTZIA

"Gaztelekutik iritsi zitzaigun gaiaren lanketaren eskaera, jarrera matxista larriak atzeman zituztelako. Berdintasun batzordean lehentasuna eman genion gaiari eta aditu batekin formakuntza saio mardula egin dugu. Lanketa hori protokoloan jaso da, nerabeekin diharduten guztiei helarazteko gero".




**JONE OJEA** GAZTELEKUKO  
KOORDINATZAILEA

"Gaztelekuan piztu arren alarma, nerabeekin lan egiten duen edonoren kezka da, eta kale hezitzaileak zein UDAkoak bat etorri dira gurekin. Jendartean oso hedatuta daude jarrera matxistak, eta, horregatik, esparru askotatik eragin behar da. Lana kaxoi batean gera ez dadin jarraipena egingo diogu".



**EGOITZ ALBENIZ** HIRUKI  
LARROXA-KO KIDEA

"Prozesurik egin gabe ezin da ulertu protokolo bat egotea, baina, gehienetan, hala eskatzen digute: produktu bat indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko. Horretan berritzailea izan da Aretxabaleta, prozesu bat egin duelako eta pisu handia eman zaiolako hezitzaileak trebatzeri eta problematika ulertzeari".



**AINARA MUGA** UDA-KO  
KOORDINATZAILEA

"Oso aberatsa izan da lanketa, eta UDArendako oso probetxugarria. Orain, erronka izango da ikasitakoa aplikatzen hastea. Horretarako, sentsibilizazio eta prebentzio lantaldetxo bat sortuko da, eta dinamika honetara eragile ezberdinak batzea da kontua, herri bezala erantzuteko indarkeria egoera horiei".

## Hiru domina eskuratu dituzte ALEko ikasleek EuskoSkills-en

Aretxabaleta Lanbide Eskolako bost ikasle izan dira Irunen jokatuako Lanbide Heziketako txapelketan

**M.A.** ARETXABALETAKO

Euskadiko Lanbide Heziketako 41 ikastetxetako 146 ikasleek jardun zuten nor baino nor gehiago joan den astean Irungo Ficoban. Txapelketa hemeretzi modalitatean banatuta zegoen; Aretxa-

baletatik joandakoei lautan jokatuz zuten, eta hiru dominarekin itzuli ziren: bi zilarrezkoak, eta bestea, brontzezkoa.

Hona hemen EuskoSkills txapelketara ALEtik joan ziren ikasleak, dominak jantzita -ar-

gazkian, makurtuta-: Maren Uriarte Fernandez de Olano eta Adriana Anes Pinto, erizain laguntzaileak; Alain Fuentes, galdaragintza modulukoak; Martin Fernandez de Pinedo, auto-moziokoak; eta Julen Esteban, karrozeriakoak.

Eta ikasleek tutoreak izan zituzten lagun lehiaketako bi egunetan -argazkian, zutik-: Iratxe Hernandez, Gari Lizarralde, Arkaitz Sandoval, Joseba Beristain -zuzendaria-, Xabier Ituarte eta Ibai Fernandez.



ALEko ikasleak -makurtuta- eta irakasleak -zutik- Ficoba aurrealdean. ALE

# Zinemak irekiko dizkio ateak azaroko agendari

Zinema azaroan itzuliko da Arkupeko pantaila handira, urtebete eta zortzi hilabeteko etenaldiaren ostean. Hain zuzen ere, helduei zuzendutako hiru film, haurrentzako beste hiru eta publiko orori zuzendutako hiru dokumental proiektatuko dituzte

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Helduei eta haurrei zuzendutako sei film izango dira ikusgai azaroan Arkupen. Horrekin batera, bi ikuskizun ez eta hiru ikus-entzunezko gozatzeko aukera emango duen kultur programa aurkeztu dute asteon Aretxabaletan.

**Proiektore digital berria**

Ainhoa Cabero Aretxabaletako Udaleko Kultura zinegotziak azaldu duenez, Udalak proiektore digital bat erosiko du zinema-programazio jarraitua eskaini ahal izateko, eta, horretarako, 45.000 euro bideratu ditu. "Zinema pandemiagatik eten eta, ondorioz, kultura aretoak itxi arte, Udalak enpresa bati esleitzen zion zinemaren kudeaketa, eta enpresa hori arduratzen zen proiektorea ekartzeaz eta filmak programatzeaz. Kontratua amaitu egin zen, eta, COVID-19aren murrizketak malgutzuz joan ondoren, pentsatu genuen hobe zela Arkupek bere proiektore propioa izatea, aukera desberdinak ematen dizkigulako. Zinemaren aldeko apustua da, herritarrentzako zerbitzu gisa, eta, bide batez, aisialdirako beste aukera bat". Caberok zehaztu du, gainera, "Aretxabaletako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiak kultura aretoetan horrelako inbertsioetarako ematen duen dirulaguntza deialdira" aurkeztuko dela. "Izapide hori ebatzen den bitartean, urte amaierara arte enpresa bat kontratatu da Zaraia aretoko zinemari berriz heltzeko".

*Nora*, *Madres paralelas* eta *Maixabel* pelikulen zenbait emanaldi egingo dituzte. Haurrentzat, berriz, hiru film izango dira; bi, euskaraz: *Space jam: Aro berria*, azaroaren 13an eta 14an; eta *D'Ortagnan eta hiru mosketxakurrak*, azaroaren 27an; eta bat gazteleraz: *La familia Adams 2: La gran escapada*,



Ainhoa Cabero, Zaraia aretoko atea irekitzen. IMANOL BELOKI

## Zinema komertzialeko proiektzioak

Zinema komertzialeko film ez, haurrentzako zinema eta dokumentalak ere izango dira ikusgai.

**'Nora'**

- 22:00 Azaroaren 12an.
- 19:30 Azaroaren 13an eta 14an.
- 16:00 Azaroaren 15ean.

**'Madres paralelas'**

- 22:00 Azaroaren 19an.
- 19:30 Azaroaren 20an eta 21ean.
- 16:00 Azaroaren 22an.

**'Maixabel'**

- 19:30 Azaroaren 25ean.
  - 22:00 Azaroaren 26an.
  - 19:30 Azaroaren 27an.
  - 16:00 Azaroaren 29an.
- Sarrera bost euro izango da film bakoitzeko. Astelehenetan, ikuslearen egunean, berriz, hiru euro.

azaroaren 20an eta 21ean. Dokumentalei dagokionez, azaroaren 4an, Kukumiku elkartearen eskutik *Aztarnak* lana proiektatuko dute; azaroaren 5ean, UDAREN *Herriaren hauspoa*; eta hilaren 19an eta 26an, Edurne Pasaban alpinistaren *Chhau-padi* dokumentala.

**Beste proposamen batzuk**

Antzerkiari eta musikari dago kienez, azaroaren 6an eta 7an, *Hiru (h)arri* proiektuaren buru diren Goio Arrietak, Beñat Arrietak eta Gari Barandiaranek *1961* musika ikuskizuna eskainiko dute. Hilaren 28an, berriz, Naita Produzioak taldeak *Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean* antzezlan taularatuko du.

Udal liburutegiak, bestalde, bi hitzordu proposatu ditu: Iñaki Martiarena *Mattin*-ek manga marrazkiari eta komikiari buruzko ikastaroa emango du azaroaren 11n. Izen-ematea, gehienez ere hamar parte-hartzaileentzat, hilaren 2tik aurrera egongo da zabalik. Azkenik, azaroaren 17an, *Marixaren baserrian* ipuin kontaketa saioa izango da Eneko Etxegarairerkin.



Eskolako ikasleek egin dute bisita gidatua. JONE OLABARRIA

## Ikasleek egin dute bisita gidatua Kurtzebarriko eraikin berrian

Haur Hezkuntzako eraikinaren aurkezpenean, eraberritutako txoko guztietan azalpenak eman dituzte

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Eguaztenean estreinatu zuten Kurtzebarri eskolako ikasleek Haur Hezkuntzako eraikin berria. Espazioa ezagutzera emateko, modu berezian egin nahi izan dute aurkezpena, eta, horretarako, lehen mailako haurren ardura izan da familiei eraikina ezagutzeko aukera ematea. *Bihotzez ikasi* kamiseta berdea jantzita eta kolore bereko kapela distiratsuekin egin diete harrera haurrek bisitariei.

**Egin beharreko lanak**

Kurtzebarri eskolako zuzendari Mikel Uribarren "pozik" agertu da Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzako eraikin berriaren itxurarekin: "Beharra genuen. Gure metodologiak aurrera egingen zuen, baina eraikina ez zetozen horrekin bat. Umeak gustura etortzea guretzat oso garrantzitsua da, eta eraikin

berriarekin hori erraztu egin da; berogailua lur azpitik jarri da, koloreak aldatu egin dira, zirkulazio librea ahalbidetzen du... Honako hau lehenengo fasea da, eta Aretxabaletako Udalarri eskerrak eman nahi dizkiogu egin duen inbertsioagatik...".

**Aurkezpena, modu originalean**

Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzako eraikin berriaren aurkezpenean ikasleei protagonismoa eman nahi izan dietela azaldu du Uribarrenek: "Nolabait, aurkeztu egin behar genuen eraberritze hau, eta modu originalean egin gura genuen. Beti diogu gure protagonistak ikasleak direla, eta horrela erabaki genuen lehen mailako ikasleak izatea aurkeztuko zutenak. Txokoz txoko joan dira gerturatu direnei lekuak erakusten, eta azalpen txiki bat ere eman diete eraberritu duten leku bakoitzean".

## Kalabaza lehiaketa egingo dute Duranan domekan

Gaba Baltzaren baitan, *scape room* jolasa izan zuten atzo, eguena, 10 eta 16 urte bitarteko haurrek, eta gaur, egubakoitza, ere arituko dira jolasarekin, Aretxabaletako mojen komentuan. Gutxienez zortzi pertsona eta gehienez hamar laguneko taldeetan, hiru txanda izango dira: 17:00-17:45, 18:00-18:45, eta 19:00-19:45.

Horrekin batera, domekan, urriaren 31n, kalabaza lehiaketa egingo dute. Durana kaleko edozein txokotan ipini dezake kalabaza nahi duenak, 19:00ak eta 21:00ak bitartean, norberak nahi duen ezizena txartel batean idatzita. Argazkia atera beharko dute kalabaza jartzen dutenek, eta sare sozialetara igo, *Loramendi* eta *Algara ludoteka* etiketatuta. Gero, jaso egingo dituzte kalabazak, eta datorren astean erakusketa jarriko dute udaletxe zaharreko atarian.

# Trialsin harrobia ereiteko gunea egokitzen dabilta

Aretxabaletako sarreran dagoen gunea txukuntzen dabilta: zona berriak eraiki dituzte Oztopo elkartekoek, eta Udalak lau farola jarri ditu. Entrenamenduetarako gune txukuna izateak emaitzak ekarri ditu bueltan, eta elkarteko bi ziklista podiumera igo dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Trialsin Debagoiengan leku bat izan zezan, orain dela hiru urte pasatxo sortu zuten Oztopo trialsin elkartea. Aretxabaletako sarreran, autobideko zubia-zen azpian, egokitu zuten entrenamenduetarako gunea, eta azken hilabeteotan egokitzapen lanak egin dituzte.

"Ingurune horretan zeuden edukiontzia kendu dituzte. Eta hori aprobetxatu dugu oztopo gehiago jartzeko. Hala, zailtasun ezberdinak dituzten eremuak egokitu ditugu", adierazi du elkarteko arduradun Aitor Muruak eta gaineratu: "Negan goizago iluntzen duenez entrenatzeko argia ere eskatuta dugu". Eskaera hori aintzat hartuta astean bertan Led argidun lau farola jarri dizkie Udalak, eta horren kostua izan da 12.317,80.

**Hamabost gaztetxo lanean**


Hamabost gaztetxo dabilta, gaur-gaurkoz, Oztopo elkartearen bueltan lanean; 5 eta 15 urte arteko mutikoak guztiak. Entrenamenduetarako gune txukunak emaitza dotoreak ekar ditzakeela badakite, eta horren erakusgarri da Espainiako Txapelketan eta Kopan lortutako lehenengo eta bigarren postuak. "Kimua dira txapelkunak, 12 urte dituzte; hortaz, jakin ez aurrera begira zer egingo duten. Dena den, oinarria hor dago eta ondo bideratuta doaz; beraz, etorkizun polita izan dezakete", azaldu du Muruak, eta gaineratu: "Kirol honetan ordu asko sartu beharra dago entrenamenduetan, eta gune txukuna izatea ezinbestekoa da".

**Azaroaren 7an txapelketa**

Azken bi urteetan ez da txapelketarik egin, pandemiaren erruz, baina, normaltasunera itzuli nahian, datorren azaroaren 7rako Open Oztopo lehiaketa



Aretxabaletako sarreran dagoen trial-gunea. MIRARI ALTUBE



Alvaro Jimenez eta Gorka Merino, Murtziako txapelketa jokatzeko. OZTOPO

## Gimenez eta Merino, txapelkunak

Hainbat txapelketa jokatu dituzte elkarteko zenbait ziklistak azken hilabeteetan, eta Mendaroko Alvaro Gimenezek irabazi ditu Espainiako Txapelketa eta Espainiako Kopa. Gorka Merino arrasatearra, ostera, txapelkunordea izan da Kopan.

antolatatu dute. Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria ez da izango, baina bai harremanak estutzeko aitzakia: "Gazteei aukera emango diegu txapelketa batean parte hartzeko. Eta, era berean, maila handiko zi-

klisten lana gertutik ezagutu ahal izango da, Madrildik datorrelako, adibidez, munduko txapelketan aurrean ibilitako bat". Gazteenek 10:00etan ekin goteko diote txapelketari eta nagusiek, 12:00etan.

## "Leku berrira iritsitakoan, birziklatu beharra izaten da"

**LUIS GOMEZ** ABADEA

Andoni Illarramendirekin batera parrokiaren arduraduna

**M.A.** ARETXABALETA

Hemeretzi urte egin ditu Sorluzen Luis Gomez Guridi abadeak (Oñati, 1966), eta orain, Andoni Illarramendirekin batera, Aretxabaletako eta Eskoriatzako parrokiekin arduratuko den lantaldeko kidea izango da. Joan den astean aurkeztu zuten Leintz barrutiko komunitatearen aurrean Jose Ignacio Munilla gozainak lagunduta.

**Lanean hasteko gertu?**

Bai; Gatzagan, Dorletan emango dut lehenengo meza, eta gero, astelehenean, Domu Santu egunean, lan dezente izango dut.

**Zeintzuk izango dira zure zereginak?**

Andoni Illarramendi parrokoarekin batera osatuko dut lantaldea, eta hiru herriekin arduratu gara; ardura partekatua izango da, eta ez zu han eta ni hemen.

**Soraluzetik zatoz; penaz agurtu dituzu hango fededunak?**

Hemeretzi urte egin ditut han; urte asko izan dira, jende asko ezagutu dut eta istorio asko bizi; hortaz, bai.

**Eta Leintz aldean zelan hartu zaituzte?**

Oraindik ezagutzen nabil. Bilerarik ez dugu izan eta elizkizunen baten egon naiz bakarrik; parrokiak ikusi eta halakoak bakarrik egin ditut. Poliki-poliki joango naiz ezagutzen hemengo kontuak eta jendea.

**Zuk zeuk aldaketa pozik hartu duzu?**

Bai; leku berrira iristerakoan, birziklatu beharra izaten da; bertako beharrak ezagutu, non-



Luis Gomez abadea. UBANE MADERA

dik norakoak jakin... Hausnartzeko sasoia izaten da, non gauden eta norantz joan behar dugun gogoeta egitekoa. Bestela, errutinan erortzen gara; bere momentuan, helburu batzuk ezarri genituen, baina gero, han nonbait geratu ere bai, eta pilotu automatikoan egiten dugu lan. Horregatik, ondo datoz aldaketak, astindu bat emateko. **Eta Andonik eskertuko du zure laguntza.**

Bera Aretxabaletara etorri zenean, bost abade ziren, eta orain, bakarrik dago. Lana ez da faltako, seguru.

**Aretxabaletan biziko zara?**

Hori da asmoa; baina etxea egokitzen dabilta, eta bueltak nabil. Hasita nago gauzak eramaten, baina oraindik Sorluzen bizi naiz; ondo bidean datorren hilean joango naiz Aretxabaletara bizi izatera.

## Agenda 2030 lanketari heldu diote berriro ikasleek

Agenda 2030en ardatza Garapen Iraunkorrerako Helburuen lanketa da udalerrri mailan zein eskolatan; eta horretan dihardute herriko hainbat ikasleek. Iazko ikasturtean, hiri eta komunitate iraunkorrak landu zituzten, eta aurten, lanketa horrekin jarraituko dute, elikadura, mugikortasuna eta energia izanik aztergai.

Kurtzebarri eskolak, Kurtzebarri institutuak eta Aretxabaleta Lanbide Eskolak hartuko dute parte aurten Eskola Agenda 2030 egitasmoan. Horiek egindako lanketaren emaitzak udal ordezkariari aurkeztuko dizkiete gero; 2022ko maiatzean egingo duten osoko bilkuran izango da hori. Udalerrriaren egoera hobetzeko irtenbideak aurkeztuko dituzte orduan, udal ordezkariari proposamen zehatzak aurkeztuta, eta nork bere konpromisoak azalduta.



Hainbat kide Olazar Erretiratuen Elkarteko tabernan. IMANOL BELOKI

## Ohiko jardueretara buelta, berritasunekin

Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak normaltasunera bidean dira; joan den astean antolatutako hitzaldiarekin batera, Aginaga sagardotegira irteera egingo dute zapatuan; eta bingoa, karta-jokoak eta dantza saioak ere bueltatuko dira

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Azarotik aurrera zenbait ekintza berrartuko dituzte Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek. Joan den asterako, hitzaldi bat antolatu zuten, ohiko jardueri hasiera emateko asmoz. *Las pérdidas en la vejez, cómo vivir de forma saludable* izenpean, Maite Urzainek, geriatrian espezializatutako erizainak, egin zuen, Zaldibar antzokian, eta, horrekin batera, ohiko jarduerekin ere hasiko dira, eta baita urtero antolatzen dituzten bidaia, irteera eta bestelakoekin. Hori horrela, zapatu honetan, Aginaga sagardotegira irteera egingo dute.

### Sagardotegira 40 lagun

Urtero egiten duten jardueretako bat da Usurbilgo Aginaga sagardotegira irteera, eta aurten, 40 lagun inguru batuko dira egun-pasa egiteko. Urteroko programari jarraituz antolatu dute eguna, baina aldaketa batzuk izango dituzte egitarauan: "Nor-

malean, Tolosako azokara joaten gara Eskoriatzatik zuzenean. Bertako produktuak ikusten ditugu, eta gero, Donostiara joan izan gara bueltatxo bat ematera. Aurten, baina, Donostiara beharrean, Usurbilera joango gara zuzenean, bertan bazkalduko dugulako, eta, bapo bazkaldu ostean, arratsaldean Zarautzera joango gara, beti bezala, malekoian paseo bat egin, zerbait hartu eta egunari amaiera emateko", adierazi du Jasone Orbe-gozok, Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak.

### Karta-jokoa eta bingoa

Azaroaren 4tik aurrera, karta-jokoa eta bingoa egiten ere hasiko dira. Olazar Erretiratuen

**ZAPATUAN,  
USURBILGO AGINAGA  
SAGARDOTEGIRA  
IRTEERA EGINGO DUTE  
ERRETIRATUEK**

Elkarteko sukalde pareko gela erabiliko dute horretarako, betiko moduan, baina arau batzuk ezarrita hasiko dira. "Dinamizatzen ari gara, eta ikusiko dugu zenbat erretiratu hasten diren batzen, baina arau aldaketak izango ditugu. Horrekin batera, egubakoitzetan egiten genituen dantza saioak hasiko ditugu; sukalde erabiltzeko aukera ere izango da... Udaberri garaian egiten dugun bidaia ere antolatu hasiko gara. Kasu honetan, antolatuta geneukan bidaia, eta dirua bueltatu genuen; horrenbestez, hori ere lantzen hasiko gara, zer, nola eta nora egin...".

### Txistor-janik ez da egingo

Gabonetan, berriz, txistor-jana izaten dute urtero, baina aurten ez da egingo, jende asko batzen delako. "Gabonak oso bereziak izaten dira elkarteko kideentzat, eta, urteroko txistor-janik egingo ez dugun arren, opari zozketa izango dugu", jakinarazi dute Olazar Erretiratuen Elkartekoek.



Auzoko Eskoriatza egitasmo taldea saio batean. GOIENA

## Bertakoa ikasi, eta euren herrialdeetako hona ekarri

Auzoko Eskoriatza taldeko bi kideren hitzaldiak izango dira azaroaren 10ean eta 17an, Zaldibar antzokian

### I.B. ESKORIATZA

Azaroan bi hitzaldi izango dira Auzoko Eskoriatza elkarteko kideen eskutik. Mexiko kontuak izango ditu hizpide Elena Herrerak, batetik, azaroaren 10ean, eta Saharako kontuak izango ditu berbagai, bestetik, Mohammed Lamine Meyarak, azaroaren 17an.

Bi hitzaldiak 19:00etan izango dira, Zaldibar antzokian, eta, Auzoko Eskoriatza taldean bertakoa ikasteko tartea hartzen dutenez, oro har, taldeko partaideen herrialdeetakoak ere ekarri nahi izan dituzte eskoriatzarren aurrera: "Eskoriatzako *Ostegun bidaiariak* egitasmoen antzera izango dira hitzaldiak. Argazkiak eta bideoak erabili ahal izango dituzte hizlariak, nahieran, beraien aurkezpena egiteko...", adierazi du Iratxe Arresek, Auzoko Eskoriatzako koordinatzaileak.

### Queretaro ezagutzen

*Hizkuntza indigenak, kultura eta modernitatea* izenpean, Elena Herrerak, Eskoriatzan bizi den mexikarrak, egingo du lehenengo hitzaldia. Queretarokoa da bera, eta hango kulturaren, hizkuntzaren eta ohituren gainean jardungo du hitzaldian. Mexikoko independentziaren sorleku izan zen hiria, zergatik den goraldi ekonomiko handiena izan duena, zergatik den nazio-mailako helmuga turistiko handiena... Halakoak kontatuko ditu, eta bertaratzen direnen zalantzak eta galderak argitzen saiatuko da.

Azaroaren 17an, Mohammed Lamine Meyara kazetariak Saharako errealitatera hurbilduko ditu herritarak. Sahararen eta Marokoren arteko gatazka, su-etena, Nazio Batuen ahaleginak, berriro gerrari ekitea... Halakoak izango ditu hizpide.

## OHARRAK

### Odola emateko autobusa

Azaroaren 9an eta 16an, odola emateko autobusa izango da Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15era bitartean.

### Hipopilates saioak

Gahir Fisioterapia eta Osteopatia Zentroan hipopilates saioak antolatu dituzte eguenetarako. Oraindik bi plaza daude libre. Interesatuak 943 71 43 41 telefono zenbakira deitu dezakete.

### Literatura Solasaldiak

Dagoeneko martxan dira. Azaroaren 18an, Yoko Ogawa idazlearen *La fórmula preferida del profesor liburu* aztertuko dute, 18:00etan, kultura etxean.



Zuhaitz Gonzalez aginduak ematen, Goiena Saski Hemen Garbiketak taldearen eta Luberriren arteko partiduan. ANGEL AYASTUY

## Bide berriak irekitzen eta helburuak betetzen

Zuhaitz Gonzalez, Eskoriatzako saskibaloia saileko kirol zuzendaria, Baskoniaren junior mailako emakumezkoen taldeko entrenatzailea izango da. Hala ere, Ointxe! Arrasatek eta Eskoriatzak elkarlanean sortutako taldearen gidari izaten segituko du

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

"Eskoriatza Kirol Elkartean harro gaude gure klubean egiten duzun lanaz; batez ere, saskibaloia sailean. Ahalegin bakoitzak bere saria dauka". Eskoriatza Kirol Elkarteko ki-deek hitz horiek sare sozialetan zabaldua jakinarazi dute Zuhaitz Gonzalez Eskoriatzako saskibaloia saileko kirol zuzendaria Gasteizko Baskoniaren junior mailako emakumezkoen taldeko entrenatzailea izango dela denboraldi honetan.

Gas-te-gaztetatik jokalaria moduan urte askoan aritu da Zuhaitz Gonzalez zenbait talde-tan, eta entrenatzaile ere ibilbide luzea du. Hain zuzen ere, geroz eta ardura gehiago hartzen ari da azkenaldian, batez ere, Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia sailean, baina, Eskoriatzara mugatu barik, ikasteko gogoz dago, proiektu berrietan aritzeko interesarekin, eta beste zenbait ate ere ireki zaizkio parez pare.

**Arduraz, baina ikasteko gogoz**

"Egia esan, orain jakinarazi dugu Baskoniaren junior mailako emakumezkoen taldearekin arituko naizela, baina, egia esan, abuztu aurretik hasi nintzen entrenatzen. Sorpresaz jaso nuen egin zidaten eskaera, eta, Baskoniaren talde baten entrena-tzaile gisa aritzea ardura handia den arren, oso pozik nago. Nire helburu nagusia hazten joatea da, ikastea, disfrutatzea, eta, hori ardatz, minutu guztiak aprobetxatu nahi ditut. Hilabete daramagu txapelketan, eta taldea sendoa da. Konfiantza izatea ezinbestekoa da, jokalariegan sinistu behar da, eta beraiek ere sinistu behar dute. Hala irteten dira ondo gauzak.

**KOMUNIKATUA ORAIN IRTEN DEN ARREN, UZTAILA EZKERO DA GASTEIZKO TALDEKO ENTRENATZAILE**

Honekin batera, beste hainbat proiektu ere badituzte esku artean, baina pausoz pauso joan nahi dut, eta laster etorriko dira albiste berriak...", adierazi du Zuhaitz Gonzalezek, Eskoriatzako saskibaloia saileko kirol zuzendariak eta, orain, Baskoniaren junior mailako emakumezkoen taldeko entrenatzaileak.

**Eraikitakoa baztertu gabe**

Baskoniaren taldearekin arituko den arren 2021/2022 denboraldian, ez du utziko Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia saileko kirol zuzendari kargua, eta ezta ere Goiena Saski Hemen Garbiketak taldearen gidaritza. Ointxe! Arrasatek eta Eskoriatzak elkarlanean sortu berri duten taldea urratsak egiten ari da denboraldi hasieran. Izan ere, orain arteko partidu guztiak irabazi dituzte, eta asteburu honetan, laugarren jardunaldi-garaipenaren bila joango dira Irunera, Erroibide Urbycolan taldearen aurkakora.



Tortolis ludotekan, apaingarri gisa erabiltzeko kalabazak hustutzen. IMANOL BELOKI

## Kalabazak hustu eta apaingarri gisa erabiltzeko tailerra izan da

Tortolis ludotekan eta gaztelekuan 40 lagun izan ziren, guztira, Gaba Beltzera begirako ekintzan parte hartzen

**I.B. ESKORIATZA**

Aurten ere Arimen Gaua, Gau Beltza, Gaba Beltza... hainbat herritan ospatuko da, eta Eskoriatzan ere izan dituzte zenbait jardura aste osoan zehar. Batez ere, ludotekan antolatutako hitzorduak "arrakatsatuak" izan dira, eta egindakoak urriaren 31n ospatuko den Gaba Beltzera zuzendutakoak izan direla adierazi dute Tortolis ludotekako hezitzaileek.

genituen, leku berean ez zire-lako sartzen ekintza gauzatze-ko", adierazi du Ane Erañak, Eskoriatzako Tortolis ludotekako hezitzaileak. "Egindakoez gain, domekan izango dugu egun handia, eta egitarauko ekintza azpimarragarriena ginkana izango da. Ginkana beldurgarria izango da, herrian zehar, eta tailerrak, ipuin kontaketak-eta ere izango ditugu gaztetxoentzat".

**Apaingarriak egiteko, jendetza**

"Kalabaza hustuketa tailerra, Gaba Beltzerako arropak prestatzea, galleta beldurgarriak prestatzea eta abar izan ditugu ludotekan, eta neska-mutiko asko animatu dira. Kalabaza hustuketa tailerrean, esaterako, 40 lagun inguru batu ginen, eta batzuk ludotekan, beste batzuk gaztelekuan eta beste hainbat kultura etxeko gela batean batu

**'Las brujas se salem'**

Gaztetxoendako ekintzez gainera, Josu Ozaita antropologoaren hitzaldia izan da Zaldibar antzokian, eta bihar, zapatua, 19:00etan, Eskoriatzako Ausartak antzerki taldearen *Las brujas se salem* antzezlanaren egongo da. Kasu horretan, sarrerak alde aurretik erosi beharko dira, bost eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian.

**Bertso-saioa, aranatarrek, Colinak eta Labakak eskainia**

Gaur, egubakoitza, bertso-saioa izango da Zaldibar antzokian, 19:00etan. Eskoriatzako Haizea eta Sustrai Colina eta Ane Labaka bertsolariak arituko dira ohol-tza gainean, eta gai-jartzaile lanetan, berriz, Saroi Jauregi arituko da. Sarrerak bost eurotan erosi daitezke, alde aurretik, Manuel Muñoz kiroldegian.

Duela zenbait urte hasi ziren antolatzen bertso-saioa Eskoriatzan data hauetan, eta, pandemiagatik antolatuta ez denez, hirugarren edizioa izango da gaurkoa. "Haizeak eta biok aspaldi ez dugu batera abestu, eta Sustrai Colinarekin eta Ane Labakarekin ez gara askotan izan plaza batean. Gogotsu gaude, eta saio ederra aurreikusten dugu; ea jendea animatzen den", adierazi du Oihana Aranak, ohol-tza gainean arituko den bertsolari eskoriatzarrak.



David Rodriguez eta Carlos Buitrago grafitigileak, Leintz Gatzagako herriko sarreran, pilotalekuko paretan, herriko elementu esanguratsuak batzen dituen mural berria amaitzeaz dutela. IMANOL BELOKI

## Herria ordezkatzeko duen horma-irudia, bertako elementuekin osatuta

Herriko sarreran, pilotalekuko paretaren atzealdean, mural berria egiten hasi ziren joan den zapatuan. Aurreikuspenen arabera, gaur amaituko dute, eta lan horretan ari dira buru-belarri Madrilgo David Rodriguez eta Carlos Buitrago grafitigileak

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako pilotalekuko atzeko paretan, errepide aldera ematen duen zatian, mural berria egiten ari dira egunotan. AP-letik edo Arlabango mendatetik herria zeharkatzen dutenek ez dute margolana ikusteko zortetik izango, baina Gatzagako errepide zaharra erabiltzen dutenek eta, batez ere, Eskoriatzatik Gatzagara goranzko bidea egiten dutenek pare-parean herri sarreran dagoen lehenengo semaforotik ikusi ahal izango dute margolana.

**Herritarrekin partekatuta**

Pandemia aurretik egitea erabakitako lana izan arren, orain jarri berri dute martxan murla, eta aurrekontua 6.000 euro ingurukoa izan dela jakinarazi dute Gatzagako udal ordezkariak. "Aspalditik genuen pilotalekuko

paretan mural berria egiteko ideia buruan, eta duela urte eta erdi adostu genuen Madrilgo grafitigileekin bertan zer egin, zein elementu agertu, zer nabarmendu... Eta, behin lehenengo zirriborroa jaso genuenean eta gure gustukoa izan zela kontuan hartuta, beraien diseinua herritarren artean zabaldu genuen, ekarpenak eta ideia berriak jasotzeko asmoz. Hala, zenbait aldaketa egin zituzten artistek, eta diseinu definitiboarekin martxan jarri ziren joan den zapatuan", adierazi du Beñat Agirreurretak, Leintz Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak. Hain zuzen, David Rodriguez eta Carlos Buitrago Madrilgo grafitigileak ari dira egiten, Grafitimadrid taldekoak, eta urriaren 23an paretan lanean hasita, gaur, egubakoitza, amaituta izatea aurreikusten dute.

**Elementu esanguratsuak**

Historikoki gatz ekoizpena, burdinotara eta ikatza egitearen jardueretara lotuta egon da Leintz Gatzaga. Herriaren ondarea, historia, kultura eta tradizioak errespetatzeko eta indartzeko ahaleginetan aritu dira gaur arte, eta, segitzen dutenez, hori islatu nahi izan dute herri sarrerako margolanean. Izan

ere, herria ordezkatzeko duen hainbat elementu agertzen dira marrazkian: herria bera, baserriak, hiru mendeko historia duen eta hamabi hodi dituen iturria; *Bateko kopako iturria* izenez ezagutzen dena, Gatz Museoko gurgila, herriko arkua, Dorletako Ama txirrindularien zaindariari erreferentzia egiten dion txirrindularia... "Gatza, txirrindularitza eta iturria agertu behar zirela argi genuen. Horrekin batera, baserriak mundua ordezkatzeko duen baserriak agertzea ere nahi genuen. Gatzaga, gatzari lotuta dagoen herria izan bada ere, baserriari eta nekazaritzari bere osotasunean lotuta egon den herria ere izan dela eta badela argi geratzeko".

**Gustuko lana, gustuz eginda**

Artistak gustura ari dira lana egiten, eta herrian oso ondo hartu dituztela azpimarratu dute: "Muralean agertzeko elementuak zeintzuk izango ziren

esan ziguten eta guk diseinua egin genuen, horiek ardatz. Gatzagako udal ordezkariak gustuko izan zuten prestatu geniena, eta martxan jarri ginen. Lan egiteko dugun zailtasun handiena altxatu da, baina ohituta gaude, hau da gure ofizioa. Bestalde, eguraldia ere lagun izan dugu, eta Aterben hartu dugu ostatu. Etxean moduan sentiarazi gaituzte. Hori horrela, oso gustura gaude gure bisitarekin eta egiten ari garen lanarekin. Murala egiteko, bestalde, pintura plastikoa eta espraiak ari gara erabiltzen. Kolore berdea asko erabiliko dugu, ingurunera ondo txertatu dadin", adierazi du David Rodriguez grafitigileak.

**'BATEKO KOPAKO ITURRIA', ARKUA, TXIRRINDULARIA ETA ABAR BATZEN DITU MURALAK**



Gatzagako muralak amaitutakoan izango duen itxura. GRAFITIMADRID



Larramendiko H partzela –Wolftrax parekoa– astelehen arratsaldean, airetik ateratako argazkian. ANDONI GOITI

## Udal Gobernuak: "Berme barik, ezin dugu onartu"

Larramendin eraiki nahi den "hondakinen kudeaketarako" plantaren gainean Udal Gobernuak Bartzelonako aholkularitza enpresa bati eskatutako txostenak zalantzak handitu ditu: "Ez ditu, gaur-gaurkoz, ingurumen eta osasun bermeak ziurtatzen"

### Jokin Bereziartua BERGARA

Larramendiko industrialdeko H partzelan eraikitzea aurreikusita dagoen plantak zeresan eta kezka handia sortu ditu azken egunotan. Horren adierazle dira azken asteotan Udaleko ordezkariak eta auzotarrek egin izan dituzten bilerak; azken bazarren artean daude urriaren 24an auzotarrek egingandakoa

eta urriaren 27an beste eragile batzuekin egingandakoa.

Era berean, proiektuari alegazioa jarri zion, urriaren 14an, gaian aditua den Carlos Arribas ekologista bergararrak, eta joan den astean GOIENARI emandako elkarrizketan aipatzen zuen, besteak beste, Larramendin garatzea aurreikusten den teknologia ez dela nahikoa heldua:

"Hondakinen kudeaketarako jarduera bat izango litzateke. Hondakin ez-arriskutsuak lirateke, nola ez, baina tratamendu termiko batekin, hau da, erraustuz. Hori da jarduera horren benetako errealitatea, oso modu argian ezkutatu diona sustatzailerak Bergarako Udalarari. Arriskutsua den teknologia bat da, ez da nahikoa heldua. Ez da

nahikoa sinesgarria teknikoki. Horregatik, teknologia horrekin martxan jartzekoak ziren hainbat proiektu bertan behera geratu izan dira Europan". Valo-greene Paper BC enpresak Udala eta herritarrak engainatzen saiatu dela dio Arribasek: "Ez da bakarrik ez dela partaidetza prozesu publiko bat egon, baizik eta orain bertan tramitatzen ari den informazio publikoa ez da osorik eman, inondik inora. Informazio oso garrantzitsua dena konfidentzial izendatu dute, Jaurlearitzak inongo oztoporik jarri gabe".

### Txostenaren gaineko iritzia

Udal Gobernuak, planta berria "hondakinen kudeaketarako lan-tegi" moduan izendatzeaz gain, dio proiektuaren berri izan bezain pronto euren helburua izan dela "ahalik eta informazio gehien, fidagarria eta inpartziala" eskuratzea: "Gaiarekiko zegoen ezagutzarik eza handia zen. Horregatik, azterketa eta txostena egin zezan eskatu genion Bartzelonako enpresa bati". Bartzelonako Fichtner aholkulari enpresaren txostena asteon jaso dute Udalean, eta Gobernuak publiko egin du txostenaren gaineko lehen iritzia; gaur bertan agerraldia egingo dute: "Txostena jaso berri dugu, eta gauza bat argi geratu zaigu: enpresak aurkeztutako proiektuak ez ditu, gaur-gaurkoz, beharrezko ingurumen eta osasun bermeak ziurtatzen. Eta, zuhurtziagatik, ezin dugu hori onartu. Zalantzak eragiten dizkigute, gainera, beste arlo batzuetan ere eragina izan dezaketenek. Udalarari herritarren hobe beharrez aritzea dagokio, herritarrak zaintzea". Proiektuaren hirigintza bateragarritasuna berrikusten ari direla ere adierazi dute.

### Beste enpresa batzuk "uxatzea"

Udal Gobernuak gaineratu du gaiaren bueltan sortu den "ziurgabetasunak" bestelako albo-kalte batzuk ere eragingo lituzkeela: "Nahi dugu Bergarako ehun ekonomikoa indartsua izatea, bergararren ongizatea eta bizi kalitatea bermatzeko. Baina ez dugu nahi edozer gauza, berme batzuk behar ditugu. Ziurgabetasun honek albo-kalteak ere ekar ditzake, eta lehen zantzuak ikusten ari gara dagoeneko. Enpresa hau Larramendiko industrialdean ezartzeak beste enpresa batzuk uxatuko dituen konfirmazioa dugu. Ehunka lanpostu daude kolokan epe motzean, eta, etorkizunera begira, Larramendiko industrialdearen eta Bergararen garapen ekonomikoa erabat baldintza dezake Valo-greene hemen ezartzeak. Larramendira joateko erabakian enpresaren batek atzera egiten badu, Bergaratik kanpora joango dira lanpostu hauek, eta honen asko kezkatzen gaitu".

### "Eztabaida sosegatua" nahi

Aurrera begira, "eztabaida publiko eta sosegatua" eskatu du Udal Gobernuak: "Aurrera egingo bada, ziurtasunak eta bermeak behar ditugu, eta hori, sustatzailearen, Jaurlearitzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren, eta talde ekologisten, herriko beste enpresen zein interesdunen eztabaida publiko eta sosegatu baten bidez soilik lor daiteke".

## PLANTA BERRIRAKO HIRIGINTZA BATERAGARRITASUNA BERRIKUSTEN ARI DA UDAL GOBERNUA

## Fusilatutakoei omenaldia

Tomas eta Ildefonso Iñarra anaiak, Ricardo Zangitu, Rufino Akizu eta Jose Garaikoetxea orain dela 85 urte fusilatu zituzten, Osintxun, eta domekan omendu egin zituzten, fusilatu zituzten tokitik metro gutxira dagoen monolitoaren aurrean. Ekitaldi "xumea eta gertukoa" izan zen; egia, justizia eta erreparazioa helburu, ekintza gehiago antolatzeke asmoa agertu zuten.



IMANOL SORIANO

## 30.000 euroko udal inbertsioa erosketabonuetan azaroan

Udalak azaroan jarriko ditu martxan bergarrendako diruz lagundutako erosketabonuak. Bonu horien funtzionamendua azaltzeko saio bat egin zuten atzo herriko merkatari eta ostalariekin; [bergara.bonoak.eus](http://bergara.bonoak.eus) webgunearen bidez kudeatuko dira eta bonuak komertzioetan bakarrik erosi ahal izango dira. Udalak 30.000 euro inbertitu ditu.





Ordenantza fiskalen bozketa, pandemia hasi zenetik modu presentzian egin zen lehen osoko bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA

# Udal zerga eta tasetan, %3,3ko igoera orokorra

Estatu espainiarreko abuztuko KPIren %3,3ko igoera orokorra proposatu zuen EH Bilduren Udal Gobernuak 2022ko ordenantza fiskalarako. EAJk kontra bozkatu eta pandemia egoera honetan zero igoera eskatu zuen; PSE-EE abstenitu egin zen

## Ehundu ekimena aurkeztuko dute gaur Seminarixoan (19:00)

Ehundu "herri dinamika" aurkeztuko dute gaur Seminarixoan (19:00). "Eraldaketa sozialerako" bulego bat irekitzekotan dira, besteak beste: "Bergaran bizi gara eta bizi nahi dugu. Horretarako, beharrezkoa den tokiko ekosistema eraldatzailea, inklusiboa, feminista, ekintzailea eta askotarikoa eraikitzeko tresna izango den Ehundu herri dina-

mika aurkeztuko dugu". Aurkezpena ekimena sustatzen duten erakundeetako ordezkariak, herriko eragileetako ordezkariak eta herritarrek egingo dute. Alde ludikoa ere izango du, eta amaieran mokadutxo egongo da. Ehundu ekimenaren sustatzaileak honako hauek dira: Bergarako Udala, Gipuzkoako Diputazioa, Mondragon Unibertsitatea (Huhezi), Debagoiena 2030 eta Olatukoop ekonomia sozial eta eraldatzailea sustatzeko sarea.

## OHARRAK

### Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen bilera

Bihar egingo dute, Seminarixoan (12:00). Honako hizlari hauek egongo dira: Gorka Artola alkatea, EAE Gipuzkoako presidente Luis Elizegi, Laboratorium museoko Rosa Errazkin, EAEko adiskide numerario Ines Pellon, Miguel Angel Elkoroberezibar idazlea eta EAEko adiskide numerario Jorge Askasibar.

### 'Berbalagun ibiltariak': izen-ematea

Jardunen eman behar da izena: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69 telefonoetara deituta edo [jardunkultura@gmail.com](mailto:jardunkultura@gmail.com) helbidean.

### Euskal presoen aldeko Azken Ostirala

Agerraldi ibiltaria egingo dute, San Martin plazatik (19:30).

### Jokin Bereziartua BERGARA

Espainian abuztuan izan zen Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) %3,3ko igoera orokorra aplikatuko zaie udal zergei eta tasei 2022an modu orokorrean. Igoera hori aplikatzea onartu zen astelehenean, pandemia hasi zenetik modu presentzian egin zen lehen osoko bilkuran.

### EAJ kontra, PSE-EE abstenitu

EH Bilduren Udal Gobernuaren arabera, "kalitatezko zerbitzu publikoak" mantentzeko ezinbestekoa da igoera aplikatzea. "Orokorrean, abuztuko KPIren eguneraketa bat egingo dugu ordenantza fiskalaren. Momentu honetan kalitatezko udal zerbitzuak eskaintzea lehentasuna da guretzat. Proposatzen dugun eguneraketa honekin, gainera, datoen urteetarako progresibitatea ere bermatzen dugu; urte baten KPI zeroan uzteak datorren urtea ezin berreskuratzea ekarriko luke".

Udal Gobernuaren proposamenari ezezko botoa eman zion EAJk. Diote pandemiak eragindako egoera ez dela zergak eta tasak igotzeko modukoa, eta

zero igoera proposatu zuten. "Daroagun urte eta erdi berezi honekin, ez da unea zergak igotzeko, eta argi genuen %3,3ko igoera onartezina dela. Egoera medio herria geldi egon da, inbertsioak oso mugatuta, eta, gainera, foru funtsetik espero baino ia milioi bat eta ehun mila euro gehiago jasoko da; argi genuen igoera zero izan behar zela". Bi udal talde horiek eztabaida izan zuten lanketaren inguruan. Jeltzaleek "denbora eta benetako borondate falta" leporatu zioten EH Bilduri. Udal Gobernuak, hasierako kronograma baino denbora gutxiago izan dela onartu arren, adierazi zuen lanketarako hilabete oso bat izan dela eta EAJk ez duela erakutsi iazko lankidetzarako borondaterik.

Alderdi sozialista, berriz, abstenitu egin zen. "Ez dira sozialistok aurkeztuko genituzkeen ordenantza fiskalak. Zergak eta tasak izoztearen alde gaude horren garai zailotan. Abstenitu egin gara, ondoren aurrekontuen lanketan eragin nahi dugulako, 2022koak ahalik eta aurrekontu progresiboan izan daitezten".



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

#### Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
3. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
4. Eralkuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
5. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
6. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituena.

Erabakia udalbatza osoak 2021eko urriaren 25eko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean, udaltxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal dituzten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiririk behin betirako onartuak izango dira, akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2021eko urriak 27  
ALKATEA

# "Partidua ez da kantxa barrutik berdin ikusten"

**JOSEBA ELORTZA** SORALUCE BKE-KO ENTRENATZAILEA

Urteetan Bergarako eskubaloitako taldeko entrenatzailea izan eta gero, Josetxo Muniategik Joseba Elortzari eman dio talde nagusia zuzentzeko ardura, baina ez ditu zapatirik zintzilikatu

**Xabier Urtzelai** BERGARA

Begarako klubean harrobitik egin dute tira talde nagusiaren ardura izango duen pertsona aukeratzeko. Hala, Joseba Elortzak (Bergara, 1996) aitortu du hasieran errespetua eman zio-la baiezkoa emateak, baina jokalariek ederto hartu dutela taldean. Hala ere, ez dio eskubaloian jokatzeari utzi: bigarren taldean dihardu aurretik; hor, Josetxo Muniategiren aginduetara.

**Lehenengo taldeko entrenatzailea zara, eta bigarren taldeko jokalaria. Kuriosoa da.**

Iaz, lehenengo taldeko jokalaria nintzen eta bigarren taldeko entrenatzailea, eta orain, jokalaria moduan pisu txikiagoa dut, eta ardura handiagoa entrentzaile moduan. Dena dela, Josetxok urteak zeramatzen lehenengo taldeko entrenatzaile lanetan, eta normalagoa da proposamena bigarren taldeko entrenatzaileari egitea harrobian talde oso gazte batekin lanean dabilenari baino.

**Gaztea zara, baina, goiko taldean entrentzaile jarduteko.**

Bai; horrek ematen zidan errespetua: ni baino dezente nagusiagoak diren jokalarien entrentzaile naiz. Hasieran, ezetz esan nion Josetxori, baina animatu egin ninduten gero. Aldaketek beti sortzen dute ilusio berritua, Josetxoren erabakia ere ez da sorpresazkoa izan, eta jokalaria jakitun ziren niri egin zidatela proposamena. Oso ondo hartu naute. **Jokalaria eta entrentzailearen ikuspuntuak dituzu; ze rol da errazagoa?**

Jokalaria moduan dena ematera irteten gara kantxara, ondo entrentzen saiatzen gara... Baina hor amaitzen dira ardurak. Entrentzaileak gauza asko izan behar ditu kontuan, eta partidua amaitzearekin batera buruari bueltak ematen jarrai-



Joseba Elortza, aste barruan Labegarietan. J.E.

## "LEHENENGO TALDEAREN ARDURA IZATEAK ERRESPETUA EMATEN ZIDAN, BAINA ONDO HARTU NAUTE"

tzen dugu, zertan hobetu behar-ko genukeen, zer egin dugun ondo, zer txarto...

**Partidua berdin ikusten dira kantxa barrutik eta kanpotik?**

Ez; jokalaria zarenan, ez duzu ikuspuntu orokorrik izaten, egiten ari zaren lanaz baino ez zara jabetzen, jokatzeari arduratzen zara. Akaso, taldekideekin alderatuta beste gauza batzuetaz konturatzen zara, baina entrentzailea da, kasu honetan, Josetxo, kanpotik gauzak askoz ere hobeto ikusten dituen. Kantxa barruan partidua gainera ikuspuntu mugatua izaten da.

**Entrentzaile lanetan zaudenean, eskertuko duzu Josetxoren esperientzia.**

Zalantza barik; azken batean, nire entrentzailea ere bada, eta gauza asko kontsultatzen dizkiot, bere ikuspuntua jaso. Baina hark ere esaten dit nire bidea egin

behar dudala, bestela gauza bera egiten amaitzeko arriskua dago eta. Dena dela, 25 urte bete berri ditut, eta oraindik asko dut ikasteko.

**Lagungarria izango da, baina, entrentzailea aldatu eta liga horren txukun hastea.**

Oso lagungarria da, zalantza barik. Egia da denboraldiurre ona egin genuela, partidu guztiak irabazi genituen, eta, liga hasieran, bolada haren jarraipena izan dugu. Ordiziaren kontra, esaterako, oso partidu ona egin genuen, eta aurrean ibiliko den taldea da, seguru (29-37).

**Pena asteburuan Tolosaren kontra galdu izana...**

Bai; azken asteotan, defentsan zailtasunak izan ditugu. Baina Tolosaren kontra normalean baino gol gutxiago egin genituen, eta hor egon zen gakoa. Azkar jokatzeko duen taldea da, gol asko egiten dituen, eta hor asmatzen ez dugunean...

**Mailari eustea izango da helburua?**

Bai; urtarril amaieran amaituko da lehen fasea, eta sei onenek igoera fasea jokatuko dute. Eder- rra litzateke horrako sailkatzea, jaitsiera faseak dakarren presiorik gabe.



Maddi Barrocal, ezkerrean behean; selekzio kideei harrera egitera joan zen. M.B.

## COVID-19aren QR kodeak zapuztu dio ametsa Barrocali

Txertoaren agiriak arazoak eman zituen Loiu, eta pilotari gaztea ezin izan da Europako junior txapelketan egon

**X.U.** BERGARA

Maddi Barrocalek ezin izan du asteburuan Europako Junior Pilota Txapelketa jokatu. Gazte bergararrak euskal selekzioarekin zuen hitzordua, Herbehereetan, baina frontoietan baino gehiago, Loiu aireportuan jaso zuen kolpea, QR kode batekin izandako arazoagatik.

**Eguenean ezin hegazkina hartu** Eguen arratsaldean jaso zuen ezustea Barrocalek. Loiu aireportuan batu zen hamalau pilotari eta teknikariek osatutako euskal selekzioa. Hegazkina igo aurretik, COVID-19aren aurkako bi txertoak jaso izanaren QR kodea zuten denek eskuan, baita bergararrak ere. Baina Barrocalen kodeak huts egin zuen. Hori izan zen, hain zuzen, pilotari bergararrak bizi izan zuen trantzea. Euskal selekzioaren deialdian sartu, eta Europa-

ko Junior Pilota Txapelketan "gozatuz gozarazteko" zuen ilusioa bertan behera gelditu zitzaion Loiu aireportuan. Gurasoek GOIENARI adierazi diotenez, teknikariek egin zuten ahalegina kodea berriz deskargatzeko, baina, sistemaren arazo bat tarteko, ez zitzaion azaltzen irail hasieran hartutako txertoaren bigarren dosia jaso izana.

**Ez zuten amorerik eman**

Barrocalek ez zuten amorerik eman: Bergarara itzuli zen, Osakidetza agiria eskuratu zuen eta teknikariek eman zioten bigarren aukera: bakarrik hegazkina hartu, Parisen eskala egin, eta iluntzean Franekerko ostatura iristea. Gurasoek GOIENARI azaldu diotenez, baina, "ez zen erabaki erraza izan, baina 15 urteko kirolari batek bidaia hori bakarrik egitea gehitxo" iruditu zitzaion.

## Donostian Aierbe nagusi

Donostiako Klub Nautikoaren 125. urteurren txapelketan, estropadalarik bergararra nagusitu da. Hala, aurrean hautagai asko daude Espainiako Txapelketan eta Espainiako Kopan lehiazteko gertu, baina, asteburuko emaitzarekin, Gasteizko Klub Nautikoko ordezkariak dagoeneko poltsikoan du hor egoteko txartela.





2020an Migel Altuna Lanbide eskolan egindako escape room teknologikoak ikusmina eragin zuen haurren.

# Zientzia eta teknologia, herritarrengandik gertu

Urriaren 19tik azaroaren 21era, askotariko tailer, hitzaldi, lehiaketa eta erakusketak egiten dabilta Bergaran. Hamazazpi eragilerekin elkarlanean, haurrak eta gazteak zientziara eta teknologiarantz gurturazteko ahalegin berezia egin dute

Pandemia garaia hutsunea nabarmenago baino ez du egin, eta "gizartea zientziarazteko beharra" azaleratu du. Helburu horrekin datoz, beste urte batez, eta oraingoan bere ohiko formatua berreskuratuz, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak. Izan ere, askotan, alor horretan lan egiten ez duenak edota sentsibilitate berezirik ez duenak urrun sentitzen dituen arren, herritarren egunerokoan uste baino pisu handiagoa dute zientziak, teknologiak eta berrikuntzak.

Jaterakoan, bainatzerakoan, bizikletan ibiltzerakoan, jolasterakoan, oihuka egitean, arnasa hartzerakoan eta abar. Hain zuzen ere, jarduera eta mugimendu bakoitzean zientziaren presentzia dago.

## "Ezinbestekoa"

Izan ere, Laboratorium museo-ko arduradun Rosa Errazkinek ere ohiko jardunean duten garrantzia azpimarratu gura izan du, baita gizarteratzeko beharra: "Zientziaren esparruan ari garenok maiz aldarrikatzen dugu egunerokoan zientziak eta teknologiak duten ezinbesteko papera. Ezezaguna askotan, baina eragin zuzena dute gure bizitzetan aipatutako gaiak, eta, horregatik, beharrezkoa da jende

## "TEKNOLOGIA ESKU ARTEAN ERABILTZEKO AUKERA EMAN BEHAR ZAIE GAZTE ETA UMEEI, PROBATZEKO"

guztiari zientzia gerturatzea; nolabait, zientziaraztea".


## Aniztasuna, aberasgarri

Askotariko hartzailak izaten dituzten jardunaldiak izanda, aniztasuna izaten da aberasten dituen ezaugarrietako bat. Jarduerak hainbat gaitan adituak direnei zuzendutakoak badira ere, beste asko publiko orokorrari begirakoak dira. Eta aurtengo aldian, bereziki interesgarria iruditu zaie ikastetxeen bitartez gazteengana heltzea, erakargarri zaizkien formatuen bitartez.

Horren adibide dira Wolfram Encounter bideo-joko lehiaketa, *Bailarako ikertzaile gazteak etorkizuneko mundua moldatzen* hitzaldi-sorta eta "harrera oso ona" izan ohi duen *escape room*

## Bueltan da Wolfram Encounterra

Urtebeteko etenaldiaren ostean, ZTB jardunaldiek orain arteko hitzordu preziatuenetakoa izan dena berreskuratuko dute: Wolfram Encounterra. Hala, azaroaren 13an 10:00etan hasiko da Euskal *gamer*-en elkargunea, Zabalotegin. Adin tarte askotarikoentzako aukerak egongo dira: hasieran, txikiendako, eta eguerditik aurrera, *League of legends* jokoaren txapelketa hasiko da. Guztira, bost jokotan aritzeko aukera izango dute *gamer*-ek: *League of legends*, *Fallguys*, *Pokemon unite*, *Rocket league* eta *Amongus*. Twitch bidez ere jarraitu ahalko dira txapelketak, *Rekisab* twitchlariaren kanaletik. Plazak mugatuak izango dira -48-, eta txapelketan ez jokatu arren bertara joan daitezke ikustera. Izena emateko [wolframencounter@gmail.com](mailto:wolframencounter@gmail.com) helbide elektronikora idatzi behar da.



2018ko Wolfram Encounterra. W.E.

## Ikastetxeekin elkarlanean

Etorkizuna gazteena dela aldarrikatuz, adin tarte horretan jarri dute fokua. Miguel Altuna Lanbide Eskolako teknikari Oihana Garmendiak azaldu du ikastetxeen bidez gazteengana heldu gura dutela, formatu erakargarriekin: "Hezkuntza proposamen osatua egin dugu elkarlanean. Hitzaldiak jasoko dituzte ikasleek, zientziako esperimenduak ere egingo dira eta *escape room* teknologikoa izango dute LH-5eko eta LH-6ko ikasleek".

## Gailuekin ere, euskaraz

Jardunaldien zazpigarren aldi honetan, euskarari keinua egin nahi izan diote, eta herritarrei auzolanerako deialdia egin diete. Azaroaren 13an, *Librezale.eus*-ek gidatuta, *Euskarazko ahotsen grabaketa maratonia* izango da, teknologiarekin euskaraz aritzeko auzolan digitala. Helburua ahaliak eta euskarazko ahots gehien grabatzea da, gailuei erakusteko nola hitz egiten duten pertsonak, eta euskarazko ahots bidezko aginduak uler ditzaten.

teknologikoa. Migel Altuna Lanbide Heziketako Oihana Garmendia teknikariak azpimarratu du gaztetxoenei zientzia gerturatu behar zaiela: "Teknologia esku artean erabiltzeko aukera eman behar zaie, saltsetzeko, probatzeko... Hori ere bada gure helburuetako bat, gure eskolaren instalazioak gerturatzea eta berdintasuna bultzatzea".

**Ohiko formatua berreskuratuz** Iazko osasun egoerak bultzatuta, hainbat saio *streaming* bidez

eman ziren, eta horrek aukera eman zuen bestelako pertsona batzuegana heltzeko. Iazkoaren balorazio "ona" eginda, aurten ere Seminarixoko saioak zuzenean ikusteko aukera egongo dela gogorarazi dute.

Baina edukiera mugak zabaldu badira ere, jendeari gomendatzen zaio aurrez izena ematea, Laboratoriumen, telefonoz edo posta elektronikoz: 943 76 90 03 edo [laboratorium@bergara.eus](mailto:laboratorium@bergara.eus). Jardunaldien inguruko informazioa [ztbergara.eus](http://ztbergara.eus) webgunean egongo da eskuragarri.

# Ahantzuratik atera dute Gau Beltza, elkarlanean

Jardunek Udalaren laguntzarekin eta beste eragile batzuekin batera antolatu duen programak presentzia lortu du herrian, eta, egitarauko ekintza garrantzitsuenak asteburuan egingo badira ere, antolatzaileak pozik daude: "Hasierako helburu xumea bete egin dugu"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

"Asteburu indartsuena dugu aurretik, eta, orain arteko ekintzak oso-oso ondo joan direnez, espero dugu azken asteburu honetan ere arrakasta lortzea. Lehenengoz egin dugu lanketa berezi bat, eta, hasieran zehaztu genuen helburua xumea izanda, esan dezakegu helburu hori dagoeneko bete dugula. Izan ere, presentzia lortu dugu herrian, jendeak gaiaz hitz egitea, eta horrek indarra ematen digu datorren urteari begira helburu handiagoak zehaztu eta beste eragile batzuekin elkarlan sendoagoa lortzen saiatzeko". Jarduneko Maitane Arizabaletaren hitzak dira, urriaren 20an abiatu eta urriaren 31n amaituko den Gau Beltza ekimenaren inguruan berbetan.

**Hainbat ekintza asteburuan**

Bedelkarren eskutik, gaur eta bihar gozokiak banatuko dira herriko komertzioetan, Gau Beltzaren bueltako esaldia esanez gero: *Xanduli manduli, kikirriki, eman goxokiak guri*. Umeendako tailerrak ere egongo dira gaur (17:30) eta bihar (11:00) San Martin plazan, eta bihar, bissap freskagarria dastatzeko aukera eskainiko du Ndank Ndank elkarteak, 11:30ean. Ordu eta leku



Ume batzuk mozorrotuta, urriaren 22ko tailerraren ostean. JARDUN

## GOZOKIAK HERRIKO KOMERTZIOETAN, TONBOLA, TAILERRAK, TXOKOLATE-JANA, DEABRU BELTZAK...

berean egingo dute Mintzapoz tonbola. Gero, 18:30ean, musika eskolak *Kalaberak* abestia aurkeztuko du plazan, eta txokolate-jana ere egongo da, San Joxepe elkarteari esker. Zapatuko ekintzak amaitzeko, Deabru


Beltzak taldearen *Su danborrak* ikuskizunaz gozatu ahalko da.

**Bautista legenarduna, "pozik"**

Azkenik, domekan, Bautista legenardunaren bisita gidatuak izango dira. Ugutz Basauri dago bisiton atzean, eta "pozik" hartu du aurtengo egitaraua: "Duela urte batzuk, inor gutxik ezagutzen zuen, nire inguruan, behintzat, Gau Beltzak zuen jatorri euskalduna. Eta polita da ikustea, bereziki aurten, eragileen artean egin den ahalegina festa berreskuratzeke".

## Beste bisita bat azaroaren 5erako

Gau Beltzaren barruan antolatu den Bautista legenardunaren bisitek ikusmin handia piztu dute; izan ere, urriaren 31ko bi bisitetarako izen-ematea 24 orduan bete zen. Euskarazko bisitan 25 lagun eta gaztelerazkoan beste horrenbeste, harrera ona ikusita azaroaren 5ean beste bisita bat egingo dute, egitarautik kanpo. Izena emateko: 695 75 34 30 (Ugutz).



Bautista legenarduna Artekalen, duela bi urteko bisita bat hasi aurretik. GOIENA



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

## Euskal erreferenteak

Sarri esan ohi da euskal gazteek erreferente egokiak behar dituztela; izan ere, influencerrak eta futbolariak jarraitzen dituzte, gehienbat, eta euskarak ez ditu esparru horiek bereganatu. Hala ere, gure herriak erreferente egokiak –eta ezagunak– ere baditu; adibidez, Joxe Mari Agirretxe *Porrotx* nahiz Itziar Ituño. Lehenengoak Euskal Herrian duen fama gainerakoei laguntzeko aprobetxatzen du; esaterako, gaixotasunak dituzten haurrei. Gainera, euskararen alde hainbat gauza egiten ditu, eskolatik kanpo euskararik entzuten ez duten umei euskarazko inputa emateaz gain. Bigarrenak ere hainbat balio transmititu izan ditu; euskara, besteak beste. Hala, helduaroan euskaldundu eta euskararentzat oztopatzailea den testuinguru batekoa izan arren, sare sozialetan euskaraz idazten du beti, euskarari ikusgarritasuna emanez. Aipatutako biak adibideak baino ez dira. Beste hainbat aktore, idazle, bertsolari nahiz musikari antzeko erreferenteak izan daitezke. Beraz, oso eredu egokiak ditugu Euskal Herrian, euskararekiko proaktiboak izateaz gain, beste hainbat balio ere zabaltzen dituztenak.

## Antzerkia protagonista aste bukaeran kartzela zaharrea

Angiolillo liburutegiaren eskutik, Zaragozako bi antzerki taldek obra bana taularatuko dute bihar eta etzi

**J.B. BERGARA**

Angiolillo liburutegiaren eskutik, Zaragozatik etorritako bi antzerki talderen emanaldiak izango dira urriaren 30ean eta 31n kartzela zaharrea. Bihar, hilak 30, Teatro PezKao taldearen *Padre* antzezlana egongo da (22:30). Antzezlaren berri eman dute antolatzaileek: "Izan nahi izateari, atzean uzten dugunari eta inoiz ezagutuko ez dugunari buruzko fabula bat da. Ahalik eta zintzotasun handienarekin, umore beltzarekin eta inprobisazio apur batekin,

pertsonaiak istorio bakar batera gidatzen gaitu. Antzezlaren pertsonaia narkotikoen detektibe bat da, peluxe lotsagabe batekin bizi dena". Fran Martinez idazleak idatzi, zuzendu eta interpretatzen du.

Bigarren obra domekan, hilak 31, taularatuko du Teatropupado taldeak (22:30); *Petricor* antzezlarekin datoz: "Sei esketx independente dira; pandemia aurreko garaian eta pandemian landu zein entseatu zirenak". Antzezlan bakoitzerako sarrera bost euro ordaindu beharko da.

## Kartzela zaharra: Mukuru jaia antolatu dute azaroaren 13rako

Euskal Herri osoko kultura sortzaileak elkartzen dituen Mukuru ekimenak 2021eko jai nagusia azaroaren 13an egingo du, kartzela zaharrea. Bederatzi sortzaile igoko dira kartzela zaharrea jarriko dituzten bi agertokietara; Mukuru ekimeneko ia artista guztiak, hain zuzen. 18:00etatik 21:00etara arteko saioan, Paxkal, Hatxe, Nigara

Zuek, Birket eta Txost! izango dira protagonista da eta 22:30etik 01:00etarako tartean, berriz, Kaskezur, Muskulo, Klak!son eta Hegazkin –Gvridi bideo-jartzailea ere igoko da azken hauekin–. Saio bakoitzerako sarrerak bost euroko prezioa du. Sarrerak egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira, festa hasi aurretik; ordubete lehenago jarriko dira salgai. "Ilusio eta animo handiz antolatzen ari gara egun hori, ez da nolana hikoia izango", diote Mukurukoek.

# Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez goienakide!

goiena<sup>“</sup>  
kide



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)



# %2ko igoera izango dute udal zerga ordenantzek

EH Bilduren aldeko sei botoekin onartu dira 2022ko ordenantza fiskalak. Euzko Alderdi Jeltzalea abstenitu egin da eta alderdi sozialistak bozketan parte hartzeari uko egin dio, "informazioa denboraz aztertzeke eskura ez izana" iritzita

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, 2022ko ordenantza fiskalak onartu zituen Udal Gobernuak. Hala, zerga ordenantzek %2ko igoera izango dutela argitu zuen Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak: "Ikusita KPIa abuztuan %3,3an zegoela eta jada %4 ere gainditu duela, bada, uste dugu herritarrendako zama potoloa izan daitekeela igoera hori. Gainera, Udalaren egoera ekonomikoa ez da txarra eta kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko gai da. Hori guztia kontuan hartuta, KPIaren igoeraren erdia igotzea adostu dugu: %2, hain zuzen ere".

Antzuolako alkateak gaineratu zuen horrelako erabaki batek herritarren bizi kalitatean eragin zuzen-zuzena duela: "Logikoena izango litzateke KPIaren igoera aplikatzea, inork gal ez dezan, baina guri iruditzen zaigu ziurgabetasun egoera honetan ez dakigula zer etorriko den. Hau da, oraindik ez dakigu pandemiak zein eragin ekonomiko ekarriko duen; gainera, herriko enpresa bat nahikoa lanekin dabil. Horrelako erabaki batek jendearen bizi kalitatean eragin zuzena dauka, eta, Udala dagoen moduan egonda, uste dugu %2ko igoerarekin nahikoa izango dela".

**Terrazen tasa berrezarri**

Osasun egoerak hobera egin du, eta neurriak ere aldatu egin dira, eta, horregatik, 2022ko urtarriletik aurrera, terrazen zerga %100ean ordaindu beharko dute herriko ostalariek. "Oraingo osasun neurriekin tabernek, eta, ostalaritzak, oro har, edukiera osoarekin lan egiteko aukera dute; hori dela-eta, filosofia da lurzoru publikoa okupatzen baduzu eta hori baliatuta onura ekonomikoa ateratzen baduzu, tasa ordaindu egin behar duzula".



Herritarrek Aitz Garbi eta Larrea tabernen inguruan. M.A.

## 2022KO URTARRILETIK AURRERA TERRAZEN ZERGA %100EAN ORDAINDU BEHARKO DUTE OSTALARIEK

**Sozialistak, bozketari uko**

Miren Gallastegi sozialistak, protesta gisa, bozketan parte hartzeari uko egin zion: "Osoko bilkura aurretik informazioa garaitz eta eskura izatea ezinbestekoa da gaiak ondo azter ditzagun. Funtzionamendu egoia nahitaezkoa da demokrazian. Gainera, bada udal lege bat aniztasun politikoaren printzipioa dakarrena, eta udal honek ez du betetzen; errespetu falta da. Eskatzen dudana da dokumentazioa garaitz jasotzea, eta bi hizkuntzatan. Bete ez denez, ez dut parte hartuko gaurkoan".

Era berean, alkateak zehaztu zuen giza akatsa gertatu zela, eta atzokoa izan zela lehen aldia sei urtetan osoko bilkurako informazioa 48 orduko epean jaso ez zutena. "Alderdi sozialistako ordezkari Miren Gallastegi ez zen iraileko Ogasun batzordean

izan, eta han, sakon sartu barik, gaiaz berba egin genuen. Gero, iraileko osoko bilkuran, ikusita zerga ordenantzen gaia gehiago landu nahi zutela, hilabete atzeratzea erabaki genuen. Urrian ere egin dugu Ogasun batzordea, eta bertan sakonago aztertu dira ordenantzak, eta Miren Gallastegik hor ere ez du parte hartu", argudiatu zuen.

**EAJK, abstentzioa**

"Alderdi sozialistak esandakoarekin bat egiten dugu. Inolako dokumentazio gabe ordenantza fiskalak onartzea nahi izan zuen EH Bilduk iraileko osoko bilkuran. Hilabete atzeratu zen, eta, tarte hartan, Ogasun batzordea egin genuen. Gure ekarpenak onartu egin dituzte, eta horregatik ez dugu aurkako botorik eman. Izan ere, funtzionarioen soldata %2 igo da, eta igoera hori eskatzen genuen. Baina informazioa falta zitzaigun, zaborraren tasak izango zuen igoera, esaterako", kontatu zuen Babilio Ormazabalak. Udal Gobernuak, bestalde, adierazi du EAJrekin adostu duela hileroko Ogasun batzordean zergak aztertzea.



Erizaina txertoa jartzen. BEATRIZ GUELBEZU

## Gripearen eta COVID-19aren aurkako dosiekin txertatuta

Guztira, Eguneko Zentroko hamabi egoiliarrek hartu dituzte gripearen eta COVID-19aren aurkako txertoak

**M.A. ANTZUOLA**

Eguazten goizean txertatu zituzten Antzuolako Eguneko Zentroko hamabi egoiliarrek –hiru gizonezko eta bederatzir emakumezko–. Guztiek gripearen aurkako dosia eta COVID-19aren aurkako hirugarren dosia jaso zituzten, beso banatan. "Desiratzen zeuden, eta beldurrik gabe, gainera. Dena ondo joan da, eta, protokoloak hala eskatuta, beso banatan txerto bana jaso dute. Eta gaur, egubakoitza, gripearen aurkako txertoa langileok jasoko dugu", kontatu du zentroko arduradun Beatriz Guelbenzuk.

**Normaltasuna**

Osasun egoerak izan duen bilakaerak ohikotasunerako urratsa egiten lagundu die eguneko zentroko egoiliarrei. "Taldekotik jarduerak, irteerak, eskolan egiten zituzten belaunaldien arteko topaketak, Nagusilaneko boluntarioen bisitak, dutxa zerbitzua... Pixkanaka-pixkanaka, guztia berreskuratzen joan gara. Ez dakizue nolako ilusioa egiten dien egoiliarrei berriro elkarrekin espazioak elkarbanatu eta komunikazioa edukitzeak; behar handia zuten", aitortu du Beatriz Guelbenzuk.

## 17.000 euro herriko kultura eta kirol elkarteendako

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran aho batez onartu ziren herriko kultura eta kirol taldeei diruz laguntzeko proposamena. Hala, 2021erako, guztira, 17.000 euro bideratuko dira kultura zein kirol elkarteetara. "Kirol taldeen artean 11.000 euro banatuko dira aurrean eta kultura taldeen artean, 6.000 euro. Sormen Batzordean parte hartu zutenen artean aho batez onartu zen laguntza hori bideratzea", argitu zuen Garazi Larrea zinegotziak.

Hala, COVID-19ak baldintzatutako 2021eko hitzarmena orain sinatuko dute. Datorren urtekoa, berriz, urtarrilean egingo dela adierazi zuen Larreak.

## Gazte txokoak hezitzailea behar du ikasturte berrirako

Idolaz aisialdi elkarteak jakinarazi du hastear den ikasturterako gazte txokoak hezitzailea behar duela. Hala, interesa dutenek mezua bidali dezakete informazio eske [adolazantzuela@gmail.com](mailto:adolazantzuela@gmail.com) helbidera. Gazte txokoak honako ordutegi hau du: zapatuetan 17:00etatik 21:00etara bitartean eta domeketan 17:00etatik 20:00etara.

Bestalde, Idolaz aisialdi elkarteak 6 eta 12 urte arteko gaztetxoendako irteera antolatu du. Hala, azaroaren 21ean, egun osorako Basabere baserri eskolara joango dira. Joateko interesa dutenek liburutegian eman dezakete izena, azaroaren 7ra arte.



Hira eta Baleegha Ghulam Kouser ahizpak Antzuolako lagunekin. GOIENA

## Euskal nortasunari eta euskarari eusten diote

Hira eta Baleegha Ghulam Kouser ahizpak Antzuolan izan dira bisitan. Ia bi hamarkada igaro dira familia pakistandarra Antzuolara etorri zela, eta, gaur egun Ingalaterran bizi badira ere, euskal izaera, kulturari eta hizkuntzari eusten diote

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

Ia bi hamarkada igaro dira Ghulam Kouser familia pakistandarra Antzuolara etorri zenetik. Gaur egun, ordea, sei anaia-arrebaz osatutako familia Londrestik gertu dagoen -54 kilometro iparraldera- Luton herrian bizi da. Baina Antzuola oso presente dute, eta, tarteka, haurtzarora eta nerabezarora igaro zuten lekua bisitatzeraz etortzen dira.

Hala, bost eguneko egonaldia egin berri dute Hira eta Baleegha Ghulam Kouser ahizpek. Txikitik bizi izandakoak gogoratu ez ezik, belaunaldi berriari bertako esperientzia eta hizkuntza bera transmititu nahi izan diote. Izan ere, Hira bere bi semeekin etorri da Antzuolako lagunak bisitatzeraz. "Hiru urte jarraian Antzuolara etorri gabe egin ditugu. Txikitik oso lagun onak egin genituen, eta oroitzapen apartak ditugu; horregatik, argi geneukan berriro bisitan etorriko ginela. Izan ere, hemen hazi gara; etorri ginenean, 8 eta

9 urte genituen, hurrenez hurren, Hirak eta biok. Hala, Antzuolako txokoak erakusteaz gain, haurrei nola bizi ginen erakustea eta kontatzea izan da gure helburua", azaldu du Baleegha Ghulam Kouserrek.

**Euskarari eutsita**

Bost eguneko egonaldian, oso gustura eta etxean bezala sentitu direla aitortu dute. "Anparo Arregiren etxean egon gara, oso gustura, eta oso ondo pasatu dugu. Herritar gehientsuenek ezagutu gaituzte, eta oso gertuko ditugu. Berritoki ikusteak poztu egin ditu antzuolarrak. Gainera, euskara mantentzen dugula ikusteak are poztasun handiagoa eragin du herrian.

**"GURE ARTEAN EUSKARAZ EGITEN DUGU; HERRITARRAK ASKO POZTEN DIRA GU ENTZUTEAN"**

Izan ere, argi daukagu euskarari eutsiko diogula. Gure artean euskaraz egiten dugu, ez dugulako hizkuntza ahaztu nahi, eta herritarrek hori entzuten dutenean asko pozten dira".

**Komunitatearen kide**

Familia pakistandarra lan bila etorri zela ia bi hamarkada igaro dira. Lehenik eta behin, gurasoak etorri ziren, eta ondoren, seme-alabak iritsi ziren herrira. Lehen Hezkuntzan, 8 eta 9 urterekin abiatu zuten ikasturtea Hira eta Baleegha ahizpek Herri Eskolan.

"Berehala, harreman oso estua eraiki zuen familiak Antzuolarekin. Eskolak sekulako lana egin zuen familiaren integrazioa bermatzeko. Antzuolara etorri ziren lehen familia etorkinetako bat izango zen, ziurrenik", gogorarazten du Hira eta Baleegha Ghulam Kouser ahizpen lagun taldeak. "Hemen jasotakoa transmititu nahi izan dute, eta gure euskal kulturari eutsi diote".

## Karabana batean girotutako 'scape room'-a antolatu dute

'Scape room'-az gozatzeko aukera zabala izango dute herritarrek, eta, guztira, 28 txanda banatuko dituzte

**M.A. ANTZUOLA**

Hiru eguneko zubia ate joka dagoen honetan, antzuolarrak *scape room* ibiltariak gozatzeko aukera izango dute, gaur hasi eta astelehenera bitartean, lau egunez. "Ordubete inguruko entretenimendua da *La Caravana* izeneko *scape room*-a. Arazo bat planteatuko dizute eta ordubete izango duzu irtenbideak bilatuz karabatan irteteko", diote antolatzaileek.

Guztira, 28 txanda daude, eta aurretik izena eman behar dela gogorarazi dute. "Lau edo bost

laguneko taldeetan txanda ezberdinak antolatuko dira. Parte hartu nahi dutenek udaletzeko bulegoan eman dezakete izena". 10 urtetik gorakoendako da, eta izena ematerakoan taldearen izena eta partaide-kopurua ere adierazi behar da.

*Scape room*-a daraman karabana edo roulottea Herriko Plazan egongo da, egun eta ordu-tegi hauetan: gaur, urriak 29, 17:30etik 23:30era; urriaren 30ean, 09:30etik 23:30era; eta urriaren 31n eta azaroaren 1ean, 09:30etik 21:30era bitartean.

## Rock doinuak, Antzuolako hari-doinuak jarraipena izan dezan

Herriko hainbat musikari eta sortzaile batuko dituen musika jaialdia egingo dute azaroaren 6an, Zurrategin

**M.A. ANTZUOLA**

Azaroaren 6an, zapatua, Antzuolako Rock Eguna ospatuko dute. Herriko musikariak izango dira protagonista, eta hainbat estilo entzuteko aukera izango da, Zurrategi plazan, gaueko bederatzietan hasita.

Esandako moduan, herriko musikariek eta sortzaileek izango dute ahotsa: Spinalonga, Patxi Luke, Udazken taldea, Irati Jauregi eta Irati Gardoki, Ainhoa eta Nahia, Koldo eta Irati Lizarralde, eta Lemak, besteak beste.

Rock-and-roll gauaz gozatzeko dei egin diote antolatzaileek herritarrei. "Jaialdi honek aspaldian Aitz Garbi tabernan egindako musika jaialdi bat dauka abiapuntu. Eta, hain zuzen, elkarlanean, musikariek harremana zuten herritarrek antolatutako emanaldia izan zen orduko hura. Hala, hau ere herritar talde baten inizatibaz antolatu dugun jaialdia izango da eta herritar ororendako irekia egongo da", argitu du antolatzaile lanetan dabilen Mikel Bargielak.

## Gau Beltzeko ipuin sortak girotuko du astelehen arratsaldea

Antzuolako udal liburutegiak antolatuta, azaroaren 1ean, astelehena, ipuin kontaketa saioa egingo dute. Hala, Lur Korta ipuin kontalariak Gau Beltzean girotutako ipuinak kontatuko ditu, Torresoroa aretoan. Lehen saioa 17:30ean izango da, 3 eta 6 urte artekoendako; bigarren emanaldia 18:30ean izango da, 7 eta 10 urte artekoendako.

## Sailkapeneko azken postutik irteteko lehiatuko da AKE

Ez du batere ondo hasi denboraldia erregional preferente mailako taldeak. Azken postuan jarraitzen dute Iker Epelderen mutilek, eta puntu bakar bat ere ez dute lortu jokaturako zapi jardunaldietan. Hala, lehen bi puntuak eskuratzeko, zapatuan, urriak 30, 15:30ean, Soraluze taldearen aurka neurtuko ditu indarrak talde gorriak.



Elgetako udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. L.Z.L.

## Udal zergek %3,3ko igoera izango dute

Salbuespenak badaude, baina igoera orokorra hori izango da. EH Bilduren aldeko botoekin onartu dira 2022ko ordenantza fiskalak. EAJko ordezkariak kontra bozkatu dute, testuinguru honetan zergak izoztea posible ikusten dutelako

### Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Hurrengo urtera begira, udal zergetan eta tasetan EAEn abuztutik abuztura izan den KPIaren igoera aplikatzea erabaki du Udal Gobernuak; hau da, %3,3ko igoera. Hala, neurri horretan egingo dute gora, besteak beste, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak zein hondakinen kudeaketarako tasak.

Badira zenbait albuespen. Ondasun higiezinaren gaineko zerga %2,2 igoko du Udalak. "Arrazoa da katastroko balioa %1,5 igo dela. Foru Aldundiak urtero eguneratzen duen balioa da, eta biderketa eginez gero igoera, azkenean, %3,3koa da bi faktore horiek kontuan hartuta", azaldu zuen osoko bilkuran Iraitx Lazkano alkateak.

Hilerriarekin lotuta ematen diren zerbitzuetan dago beste albuespenetako bat. Zerbitzua ematen zuen enpresa itxi egin da, eta aurrerantzean Hargoi enpresak egingo ditu lan horiek. "Enpresarik merkeena izanda ere, prezioak handiagoak dira, eta horregatik eguneratu behar izan dira tasa horiek, Udala lurperatze bakoitzean galtzen

ez irteteko". Hala, aurrerantzean, lurperatze zein deshobiratze bakoitzeko 655 euroko tasa ordaindu beharko da, kolunbarioaren erabilera 20 urterako 150 euro izango dira, kolunbarioaren errauts-kutxa sartzea 288 euro eta errauts-kutxa bat lurperatzea 288 euro. Azken hori tasa berria da.

Udalak, halaber, eguneratu egin du energia berriztagarrien aprobetxamenduagatik indarrean den hobaria. Eguzki-plakak jarzteagatik ematen zen hobaria bestelako energia berriztagarrietara ere zabaldu dute.

Alkateak azaldu du zuzeneko zergen eguneraketarekin aurreko urtean baino hamabost bat mila euro gehiago jasotzea aurreikusten dutela. Konstituzionalak behin-behinean bertan behera utzitako balio gehikuntzaren zergari ere egin zion erreferentzia. "Ikusgai dago, egia esan, zerga horrekin zer gertatuko den, baina kopuru hori da Udal honek kobratzen duena".

### Oposizioa, igoeraren kontra

EAJko ordezkariak zerga igoeraren aurka bozkatu zuten, eta horiek izozteko eskaera egin. "Aurka bozkatu dugu, gure iritziz oraindik ere pandemia egoeran gaudelako eta herritar batzuek gaizki pasa dutelako. Oraindik ondorioak daude, eta Elgetan ere bai; bai familietan eta bai enpresetan. Ikusita testuingurua zein den eta ikusita Foru Funtsetik aurreikusitakoa baino diru gehiago etorriko dela udaletara, uste dugu Udalak, ahal den neurrian, lagundu egin behar diela herritarrei", azaldu zuen EAJko bozeramaile Aintzane Oiartzabek. "Ez da zergak igotzeko momentua, eta uste dugu zergak ez igotzeko testuin-

guru onean gaudela. Udalak esfortzu hori egin dezakeela uste dugu. Horregatik, zergak izoztea eskatu dugu, baina, azkenean, Udal Gobernuak nahi izan duena ateratu da aurrera", gehitu du.

### Zerga politika sendoa

Ez dira iritzi berekoak Udal Gobernu taldean. "Foru Funtsetik diru gehiago etortzeak ez du esan nahi udal zergak gutxiago kobratu behar ditugunik. Udalaren autonomiaren ikuspuntutik garrantzitsua da, nire iritziz, gure sarrera propioak edukitzea, horrela gure zerbitzu propioak ondo mantendu ahal izateko", esan zuen Lazkanok. "Gertatu daiteke, eta gertatu da, Foru Funtsera diru bueltatu behar izatea. Horrelakoetarako gure sarrera propioak sendo samar edukitzea interesgarria da".

Bestelako gastuen igoera ere aipatu zuen alkateak. "Hurrengo urtera begira ematen ditugun zerbitzuetan prezioak mantentzen baditugu ere, aurreikuspena da kostuak asko igoko direla: lehengaien igoera itzela izango da, energiaren igoera ere itzela izango da, pertsonal gastuen igoera ere kontuan hartu beharrekoa da; izan ere, %2ko igoera aurreikusten dute Espainiako aurrekontuek... Uste dugu gastuetan ere gorakada nabarmen samarra izango dugula. Igoera potoloak dira, eta eragina izango dute. Udal zerga politika sendo bat interesgarria da".

## ZERGEN IGOERAREKIN UDALAK HAMABOST BAT MILA EURO GEHIAGO JASOTZEA AURREIKUSTEN DU

## Gaztaina-erre jana eta egun osoko irteera azaroan

Xalbadorpe elkarteak bi ekintza antolatu ditu datozen asteetarako; parte hartzera animatu dituzte bazkideak

### L.Z.L. ELGETA

Pandemiak eragindako etenaldiak luze jo du, baina Xalbadorpe elkartearen hasita daude ekintzak antolatzen. Azarorako prestatu dituzte lehen hitzorduak eta ia zeterik izan ez zuten

gaztaina-erre jana izango da lehenengoa. Azaroaren 5erako iragarri dute. Ozkarbi elkartearen egingo dute, 17:00etan hasita. Mahaiaren bueltan elkartuko dira eta bazkide guztiak daude gonbidatuta.

### Irteera Gasteizera

Gasteizera egingo dute, berriz, egun osoko txangoa azaroaren 10ean. Santa Maria katedrala eta XV. mendean eraikitako Hurtado Andatarren dorretxea bisitatuko dituzte goizean. Bazkaria eta arratsalde-pasa ere programatuta dituzte. Parte hartu nahi dutenek aurrez eman behar dute izena. Prezioa 30 euro da. Xalbadorpeko ardura-dunak Ozkarbi elkartearen izango dira domekan, 11:00etatik 12:30era, izen-emateak jasotzeko.



Orain bi urteko gaztaina-erre jana. L.Z.L.



# Pandemia osteko nerabezaroa aztergai

Adikzioen prebentziorako formakuntza saioak antolatu dituzte eskolak eta Udalak elkarlanean. Aste honetan, bi saio egin ditu Harremanak Hezkuntza elkarteko Miren Ayertzak LH-6ko ikasleekin. Familiei zuzendutako hitzaldi bat ere egin du

L.Z.L. ELGETA

Dozena bat guraso elkartu ziren Harremanak Hezkuntza elkarteko psikologo Miren Ayertzak martitzenean eskaintako formakuntzan. Adikzio bihurtu daitezkeen kontsumoei buruz hitz egin zuen, eta nabarmendu zituen bi bloke handi: drogak eta teknologia.

Gurasoen egitekoa bidean lagun izatea dela azpimarratu zuen adituak, eta ohartarazi zuen pandemiaren eraginez aldatuta handiak ari direla sumatzen askotariko saioetan eta espazioetan gazteekin egiten dituzten dinamiketan. "Nolabaiteko etsipena eta nekea sumatzen ditugu, eta uda ostean bi jarra orokor nagusitu direla esango genuke: alde batetik, kontrol gabeko kontsumo baterako zein jarduera arriskutsuetarako joera nabarmen da. Ohikoa da adin hauetan, baina neurritz kanpoko izaten ari dela iruditzen zaigu".

Justu kontrakoa ere gertatzen dela azaldu zuen. "Itxialdiaren ostean, gaztetxo askok beldurra edo bertigoa dute mundura ateratzeko, eta hobeto daude etxean pantailen aurrean. Ematen du ondo egokitu direla pandemiak eragindako egoeretara, baina ondorioak sumatzen ari gara eta komeni da gurasoek ere jakitea non kokatzen diren gure gazteak. Itxialdiak etapa ebolutibo konkretu batean harrapatu ditu, eta gauza asko galtzetik datoz haiek ere".

Ayertzak azaldu zuen nerabezaroa berez dela dolu garaia, baina pandemiak nabarmendu egin duela egoera hori. "Galera asko gertatzen dira nerabezaroan: gurasoen idealizazioa amaitzen da, gorputza aldatu egiten da, ardura berriak datoz eta haurtzaroaren amaiera da, baina helduen munduan guztiz sartu gabe... Horiei guztiei pandemia eta itxialdia gehitu zaizkie".



Guraso taldea Ayertzaren azalpenak entzuten, martitzenean. L.Z.L.

## NERABEEK TALDEAN BIZI DITUZTE GAUZA POSITIBOAK, BAINA NEGATIBOAK, BAKARDADEAN

### Prebentzio lana

Neurri gabeko kontsumoa izan daiteke askotariko substantziekin lotutakoa –tabakoa, alkohola...– zein teknologiarekin lotutakoa. "Prebentzio lana egitea ez da debekatzea, baizik eta erabilera arduratsua egiten erakustea eta gara daitezkeen menpekotasunen inguruan ohartaraztea. Gazteek ulertu behar dute denok ez ditugula predisposizio berberak: batzuek jarduera batetik mendekotasuna garatuko dute eta beste batzuek, berriz, oso bestelako jarrerak izan ditzakete. Horregatik, prebentzio lana, debekatu ezartzea baino gehiago, gaitasun konkretu batzuk garatzen laguntzea da. Esaterako, landu behar dira erabakiak hartzeko gaitasuna, autokontzeptua, autoestimua, nortasuna... Ezinbestekoak izango dira talde presioari aurre

egiteko, eta familia egiturak garrantzi handia du honetan. Familia da haur baten lehen ingurune soziala. Esparru horretan iristen dira lehenengo gogobetetzeak, lehenengo frustrazioak, estimulazioa, gertutasuna, babesa... Hala, familiaren egitura oso garrantzitsua da, eta erreferentziatzko helduak eredu izatea ere bai".

### Sare sozialen indarraldia

Sare sozialak tribu bateko kide izateko modua bihurtu dira gazte askorendako. "Detektatzen ari gara oso kontuan hartu beharreko gai bat dela; izan ere, etengabeko frustrazio egoeran daude gazte asko. Une oro konektatuta egon beharrak presio handia dakar, eta espazio horietan erakusten diren estetikak eta bizi mailak ez dira gure gaztetxoaren errealitate gerturatzeko, askotan". Beste gako garrantzitsu bat ere eman zuen Ayertzak. "Nerabezaroan gauza positiboak taldean bizi dira, baina negatiboak, bakardadean". Teknologia berez ez dela txarra esan zuen adituak, baina gaztetxoaren jardunari jarraipena egin behar zaiola.



Sorgina eta Mikel, duela bi urteko Arimen Gauean. L.Z.L.

## Argiak itzaltzeko eta beldurrak pizteko orduak gaur Elgetan

Arimen Gaua ospatzeko, 'Karlita galduaren bila' antzezlan ibiltaria egingo dute neska-mutikoen

L.Z.L. ELGETA

Iaz ez zen posible izan, baina aurten, urteroko bisita egingo dute Elgetara Txominek, Mikel eta Maritxuk. *Karlita galduaren bila* antzezlan ibiltariko pertsonaia nagusiak dira, eta Arimen Gauarekin berpizten dira, herriko neska-mutikoen gozamenarako. Gaur ez dute hutsik egingo, eta, jende pilaketa handiak saihesteko, hiru aldiz egingo dute antzezlan ibiltaria.

Haur Hezkuntzako neska-mutikoendako egingo dute lehenengo kontakizuna, 18:30ean. Ordu bete geroago errepikatu

egingo dute, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailetakoko umeendako, eta hortik gorakoendako emanaldia, berriz, 20:00etan hasiko da. Hiru saioak eskola ataritik abiatuko dira.

### Adinera egokitutako saioak

Beldurrezko pasarteak eta ikara eragiteko sorpresak izango dira. Hiru emanaldi izanik, umeen adinera egokitutako proposamenak izango dira. Piroteknia efektuak, esaterako, azken emanaldiaren amaieran izango dira soilik. Gomendio bat: ez ahaztu linterna!

## Adimen kognitiboa lantzeko tailerra laster hasiko da

Azaroaren 11n hasiko da eta astean behin ordu eta erdiko saio bat izango da; zabalik da izen-ematea

L.Z.L. ELGETA

Azaro erdialdean hasi eta otsail bukaerara bitartean, egun oro egingo dute memoria tailerra Elgetan. Saioak kultura etxean izango dira, 10:00etatik 11:30era, eta Eguneko Zentroko terapeutak gidatuko ditu.

Aurreko urteetan egindako tailerretan moduan, askotariko funtzio kognitiboak lantzeko ariketak egingo dituzte. Oroi-mena, arreta eta hizkuntza landuko dituzte, besteak beste. Horrekin batera, nork bere aldetik etxean egiteko moduko

teknikak ere erakutsiko ditu terapeutak. Udalak egiten duen eskaintza da, eta orain arte egindako tailerrek harrera oso ona izan dute.

### Autonomia eta ongizatea

Adin batetik aurrera ohikoa da lehen ahanzturak gertatzea. Horiek atzeratzeko edo hobetzeko teknikak garatuko dituzte tailerretan. Izen-ematea doan da, eta zabalik da, azaroaren 8ra arte, udaletxean, Gizarte Zerbitzuetako bulegoan zein [gizarte@elgeta.eus](mailto:gizarte@elgeta.eus) helbide elektronikoa.



Iñaki Olalde, Maialen Arregi, Izaro Elorza, Manu Egaña eta Aitor Madina martitzeneko aurkezpenean. JOKIN BEREZIARTUA

## Musika eskolaren proiektua abian da

Diagnostiko batekin hasiko da prozesua, eskaintza pedagogikoa aztertu, plan estrategikoa diseinatu eta hartarako beharrezko litzatekeen espazio egokia zehazteko. Prozesua parte-hartzailea izango dela adierazi du Udal Gobernuak

### Oihana Elortza OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolaren etorkizunari heldu gura dio Udal Gobernuak agintaldia bukatu bitartean, eta aste honetan adierazi du prozesua martxan dagoela. Jose de Azpiazu musika eskolako eta Hiritit At! Kooperatibako ordezkariekin batera abiatuko du.

### Diagnosia izan da hasiera

Musika eskolaren gaiari irtenbidea eman nahi dio Oñatiko Udal Gobernuak. Irisgarritasunari eta bestelako arazoei begira, gaur egungo egoitza ez da egokia, eta etorkizuneko musika eskola nolakoa izango den irudikatzen prozesua abiatu dute. Lehenik eta behin, aztertu eta informazioa jasoko dute. "Orain egingo duguna da proiektuaren diagnostikoa idatzi, jaso, aztertu, eta ikusiko dugun informazioa nahikoa izango den etorkizuneko eskola nolakoa izango den jasotzeko", azaldu du Iñaki Olalde,

Oñatiko Udaleko Kultura zinegotziak.

Diagnostiko batekin hasiko da prozesua, eskaintza pedagogikoa aztertu, plan estrategikoa diseinatu eta hartarako beharrezko litzatekeen espazio egokia zehazteko. Musika eskolak Oñatin herritar asko mugiarazten dituelako. "350 bat ikasle dabilta; matrikulak, berriz, 800 bat dira. Ikasle bakoitzak matrikula bat baino gehiago du. Esan guratsua da kopurua", aipatu zuen alkateak, Izaro Elorzak.

Proiektu "estrategikoa" izango da Udal Gobernuarendako, eta "azterketa estrategikoa" bat garatu nahi dute. Partaidetza prozesu bat, bereziki musika eskolako komunitatea eta Uda-

**DIAGNOSIA OTSAILERAKO BUKATU GURA DUTE, ETA PROIEKTUA BERA EPE MOTZEAN EGIN**

la gidari izango dituen. Diagnostikoa 2022ko urtarril edo otsailerako amaitzea espero dute. Noizko bukatuko duten ez zuten zehaztu, baina bai esan epe motzean egin gura duten proiektua dela.

### Musika eskolakoekin batera

Tokiko garapen estrategiak lantzen dituen Hiritit At! Kooperatibarekin batera egingo dute diagnosia eta hasiko dira proiektua definitzen. "Ez dugu nahi prozesu amaigabe bat burutu baina bai sakona eta epe motzean egindakoa, gero bestelako lanak ere badaudelako. Saiatuko gara martxa sartzeko eta epe motzean ahalik lan osatuena burutzen", dio hango langile Maialen Arregik.

Musika Eskolako presidente Manu Egañak eskerrak eman zizkion Udal Gobernuari proiektuarekin hastearren, baita aurretik lanean ibili direnei ere. Proiektua egiteko momentu ona dela aipatu zuen.



Hilerriko gune berrira joateko egindako arrapala. O.E.

## Arrapalak eta Herribusak irisgarriago egingo dute bisita

Kanposantuko gune berrirako arrapala erabilgarri dago eta Herribus zerbitzua ere egongo da astelehenean

### O.E. OÑATI

Kanposantuko gune berrirako sarbidea irisgarriagoa izan dadin arrapala jarri du Udalak. Aurretik, eskailera-igogailu bat zegoen, gune horretara joateko zailtasunak zituztenek erabiltzeko, baina hainbat matxura izan ditu gailu horrek eta Udalak erabaki du hori kendu eta arrapala egitea. Lanak bukatu dituzte eta dagoeneko erabilgarri dago; Domu Santu egunean ere horrelaxe egongo da.

Astelehenean, azaroak 1, bestalde, egunerokoan baino jende gehiago joango da hilerrira,

ohiturari jarraituz, eta, askoren joan-etorria errazteko, hilerriraino joango da Herribusa. Neguko ordutegia estreinatuko du egun horretan jaiegunetan Arantzazura doan zerbitzuak, eta herrigunetik abiatzen den guztietan joango da hilerriraino.

Udaltzainek, berriz, kanposantuko inguruko zaintza zorrotz egingo dute astelehenera bitartean, eta baliozko gauzarik edo poltsarik bistan ez uzteko oharrak ere jarri dituzte hilerriraino, lapurretak gertatu izan direlako gune horretan Domu Santu egunean.

## GORA ETA BEHERA



### Edukiontzia autoa aparkatzeko tokian

MUko Enpresagintza Fakultatearen parean, Ibarren, beirak botatzeko edukiontzia dago elbarriendako aparkalekuan. Gune horiek libre egon beharko luketela uste du herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

# Kiroleko tasan igarriko da igoera handiena

Gainerako zergak baino igoera handiagoa izango du datorren urtean kiroldegikoak, baina hobariak ere izango ditu, diru-sarreraren arabera hobariak, lehenengo aldiz. EAJren proposamena izan da zerga guztiak izoztea, eta aurka bozkatu du

## Oihana Elortza OÑATI

Datorren urteko udal zergak %2,5eko igoera orokorra izango dute Oñatin. Horixe onartu du udalbatzak, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoekin, urriaren 21ean egindako ezohiko osoko bilkuran. Kiroldegiko tasak, baina, igoera handiagoa izango du, %20koa.

## Bi abonua mota

Azken urteetan mantendu egin den tasaren igoera eraikin eta zerbitzu berriekin datorrela arrazoitu zuen EH Bilduk, eta nabarmendu ondoko herrietakoa baino merkeagoa dela. Hobariak izango direla ere gaineratu zuen Udal Gobernuan dagoen alderdiak; lehenengo aldiz, errenta aitortpenaren arabera. Aurrierantzean ere norbanakoaren abonua zein familiarra egongo dira eskuragarri eta herritarren diru-sarrerak hartuko dituzte kontuan hobariak aplikatzeko, bizi-unitateko kideen kopururekin batera. Lau adin tarte

finkatu dituzte 22 urte bitartean –25era luzatzea izan da EAJren proposamena– eta abonua familiarretan %25eko hobaria izango dute familia-buruek eta %50ekoa seme-alabek. Xabier Igartuak, Ogasuneko zinegotziak, adierazi zuen moduan, "kiroldegia erabilgarri izaten jarraituko du herritar guztiendako".

## Mantendu eta igo

Oposizioan dagoen EAJ alderdiaren ustez, baina, "gehiagizkoa" da igoera hori. Berez, udal tasa guztiak izoztea izan zen bere proposamena udal zergak onartzeko egindako ezohiko osoko bilkuran. "Pandemiak sortutako egoera gogorretik pasata, herritarrei arnasa emateko momentua da. Dirua foru funtsetik edo beste leku batzuetatik ere iritsiko da", esan zuen Anjel Biain jeltzaleak.

Udal Gobernuan dagoen EH Bilduren iritziz, ordea, zergak izoztea "ez da serioa. Oñati herri bizia izaten jarraitzea da guk

gura duguna. Kiroldegia egin da, Natur Eskola bukatzeaz dago, musika eskola eta Emakumeen Etxea badatoz eta futbol zelai berria edo bestelakoak ere etorriko dira. Proiektu asko ditu Oñatik, herri bizia da. Zerga ordenantza erreminta garrantzitsua da Udalaren diru sarrearendako eta 2,5eko igoera onartu dugu ez dugulako geldirikusi gura herria", erantzun zuen Xabier Igartuak.

## Hobariak

Kiroldegian ez ezik, beste arlo batzuetan ere egongo dira hobariak. Tokiko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan; landa garapenean –segregazio eta larreratzeko tasak), gazterian

## AURRERANTZEAN ERE BI BONU MOTA EGONGO DIRA: NORBANAKOA ETA FAMILIARRA

–ludotekan kurtso erdiko kuota eta udalekuetako zaintza tasa– eta energia berriztagarrietan egongo dira hobariak, kasuan kasu. Azken horretan, gainera, jeltzaleen proposamena kontuan hartuta jarri dituztela aipatu zuen Igartuak; geotermian, biomasan eta aerotermian, hain zuzen ere.

Udal ordenantza fiskaletan hainbat hobari sartu eta doikuntza egitea proposatu zuten jeltzaleek ere, hiru helburu nagusi gogoan: COVID-19ak erasandako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen arloa sustatzea; landa-eremuaren ekarpena eta lana babestu eta saritzea; eta jasangarritasuna bultzatuz klima-aldaketa saihestea.

Alderdi bakoitzak bere proposamenaren alde eta bestearen aurka bozkatu zuen ezohiko osoko bilkuraren amaieran, eta, hortaz, EH Bildurena onartu zen, gehiengoz.

## Eztabaida

Aurretik, baina, eztabaida sortu zen bi alderdien artean. EH Bilduk adierazi zuen "kezkatu" egiten duela EAJk "hainbat proposamen landu gabe egin izana, esaterako, egindako proposamen batzuk, kontu hartzailearen oharpenaren ondoren baztertu beharrean" izan direlako, "foru arauak ez dituelako onartzen". Gezurretan ari direla ere aipatu zuten: "Udalak duen diru soberakina ez delako bost milioikoa, prentsara bidalitako oharrean diozuen moduan, hirukoa baizik". Iazko likidazioarekin Udal Gobernuak zer egingo duen ez duela esan ere aipatu zuten dutela gaineratu zion EH Bilduk EAJri, eta hori gezurra dela esan, "musika eskolaren eta Emakumeen Txokoaren berri" eman dutela iritzita.

Jeltzaleek, baina, proiektu horien berri gero jakin zutela adierazi zuten, eta "ez modu egokian". "Askotan eskatu dugu likidazioarekin zer egiteko asmoa duzuen. Aurrekontuetan abstenitu egin ginen, likidazioarekin zer egin gurekin batera adostuko zenutela esan zenuelako. Eta ez da horrela izan", erantzun zuen EAJko udal bozeramaileak, Ainhoa Galdosek, eta gaineratu: "Hauek ez dira formak". Diru kontuari dagokionez, kontu hartzaileari ere eskatu zizkieten azalpenak, eta hark adierazi zuen hirukoa dela Udalaren gerakina.



NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA

## 'Barbie ETBn'

Kazetaritzan gizonei profesionaltasuna eskatzen zaie, eta emakumeei, horrez gain, erakargarriak izatea. Emakume lodia bazara, umore saioetan ariko zara, seguruenik. Negua bada ere, emakumeak "eder egoteagatik" blusa edo tirantetan agertuko dira kamera aurrean; eta beti takoiak gainean.

Hauek eta antzeko beste testigantza batzuk irakurrituen duela egun batzuk June Fernandez kazetariak *Argia*-n argitaratutako erreportaje batean. Fernandezek Naiara Vink EHuko ikerlariaren doktoretza tesiko datu batzuk biltzen ditu artikuluan, eta kasu honetan, EITBko emakume kazetarien testigantza azpimarratzen ditu.

Gauza jakina da hedabideek gure nortasunaren eraikuntzan parte hartzen dutela eta denok dakigu beti pertsona eredu berberak agertzeak –eta, are gehiago, beste eredu batzuk ez agertzea– zer ondorio dakartzan; baina artikulua irakurtzen nuen bitartean ezin izan nuen Kau Kori Kura taldearen *Barbie ETBn* kantua burutik kendu. Mesedez, entzun abestia eta zuek atera ondorioak.

## 'Harira' saioan izango da Izaro Elorza, martitzenean

Izaro Elorza izango da mahai inguruan martitzeneko *Harira* telebista saioan. Ainhoa Galdos EAJren bozeramaileak ere gonbitatu dute, baina Oñatiko EAJk uko egin dio saioan parte hartzeari. Herritarrek galderak bidaltzeko bideak dira: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) eta Whatsapp edo Telegram bidez: 688 69 00 07. Domekara arte.



Hainbat herritar Zubikoa kiroldegiko sarreraren kanpoaldean. O.E.

# Etxean eta zaleekin bihar Mekalki-Aloña Mendi

Denboraldiko bigarren partidua jokatu du bihar Mekalki-Aloña Mendi saskibaloit taldeak, aspaldiko partez etxean eta zaleen aurrean jokatu duen lehena. Defentsako lana indartuta egingo diote aurre denboraldi berriari

## Oihana Elortza OÑATI

Joan den denboraldian ez lehia-tzea erabaki zuen Aloña Mendiko saskibaloiko talde gorenak, pandemiagatik. Entrenatzen ibili dira, ordea, eta sekulako gogoarekin hasi du aurtengo denboraldia taldeak. Joan den astean jokatu zuen lehen partidua, Bilbon, eta bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegiko kantxan, 18:30ean, arituko dira, aspaldiko partez.

## Defentsako lana oinarri

Denboraldia indartsu hasteko asmoz eta Zubikoako harmailetan eseriko den jendea gertu sentitu eta euren animoak entzuteko gogoz hasiko dute bihar partidua. "Oso garrantzitsua izaten da guretako harmailetan zaleak ikustea eta uste dut oraindik ez garelako jabetu zapatuan horrek transmitituko digunarekin, aspaldian ez dugu horrelakorik izan eta. Indarra emango digu, duda barik", zioen astean Mekalki-Aloña Mendi taldeko entrenatzaileak, Aitor Ugartek.

Ugartek azaldu du moduan, pandemia aurreko taldea mantentzen da, hein handi batean, pare bat baja badituzten arren. "Pablo Zubia eta Unai Guridi lesionatuta daude eta horrela egongo dira epe ertain-luzean.



Xabi Santakruz eta Ander Kortabarria, baloiarekin, lagun artekoan. ALOÑA MENDI

Beheko taldearekin eta gazte mailakoekin dugun harremana zuzena da, eta hortik etorritakoek hartuko dute bi horien tokia".

Zapatuko partiduari eta denboraldiari begira, pausoz pauso joatea dela onena dio Ugartek. "Denboraldiko lehenengoa, joan den asteburuan, galdu egin genuen Bilbon, La Salleren kontra. Talde indartsua zen eta bagenekien ez zela erraza izango garaipeña lortzea. Zapatuko taldea, berriz, berriagoa da, Gasteizko Araberri. Elkarteak berak izan ditu taldeak goi mailako kate-

gorietan, baina hemen ez, eta ez dakigu zer-nolakoa den. Dena den, ez dago talde errazik".

Jarritako helburuei dagokienez, Ugartek azaldu du partidu bakoitza irabaztea izango dela asteroko helburua. "Defentsako lanari esker irabazten ditugu partiduak. Ez gara altuenak edo pisutsuenak, adibidez, eta defentsa lantzea izaten da gure ezaugarria, eta errebotea aprobetxatuz jotzen dugu erasora. Aurkariak 70 tanto baino gehiago egiten baditu, nekez irabaziko dugu partidu hori, adibidez".

## Euskal Herriko erreferentziekin dator bueltan 'Zarramarra'

Gaur, egubakoitza, da bigarren denboraldiko lehen saioa, Santa Anan, 22:30ean; sarrerak daude oraindik

### O.E. OÑATI

Lau gonbidaturekin ekingo dio *Zarramarra* umore ikuskizunak denboraldi berriari, bigarrenari. Nobita, Doraemon, Lufi eta Euskalteleko publizitateari aho-tsa jartzen dioten bikoizleak dira gonbidatuak: Arantxa Moñux, Ane Aseginolaza, Xabier Alkiza eta Iker Bengoetxea.

Aurreko denboraldian moduan, Santa Ana antzokian izango dira zuzeneko saioak, *late night* formatuan, lehen bezala. Gaurkoa ere horrela izango da. Baina bigarren denboraldi honetan, Euskal Herrira egingo dute salto eta umorezko erreferentziak ez dira Oñatikoak bakarrik izango. Iker Plazaolak gidatu du, eta berak elkarrizketatuko ditu gonbidatuak, baina ohiko kolaboratzaileak ondoan izango ditu oraingoan ere: Eneko Ibabe, Izar Biain,



Zarramarra umore ikuskizuna. GOIENA

Iñaki Zabarte eta Ander Zubia-girre. Gauean 22:30an da ikuskizuna gaur, egubakoitza, eta oraindik badaude sarrera batzuk salgai, bost eurotan; ohiko tokietan eros daitezke. Goiena telebistak osorik grabatuko du, eta azaroaren 5ean eskaini.

## Martitzenean hasiko dira Udalaren eskulan ikastaroak

Datorren martitzenean, azaroak 2, hasiko dira Udalak antolatutako udal ikastaroak, altzariak apaintzekoa salbu. Aurten ere harrera ona izan dute ikastaroek, baina oraindik tokia dago nagusie eskainitako pintura ikastaroan eta dekoratiboan. Umeendako pintura ikastaroan eta *patchwork*-ekoan, aldiz, itxarote-zerrendak sortu dira.

## Abereh eta Arima taldeek joko dute gaur gaztetxean

Paule Bilbaok, Josu Gonzalezek eta Gontzal Bilbaok osatzen dute Arima taldea, eta Antixena gaztetxean izango dira gaur, egubakoitza, rock giroko musika zuzenean eskaintzen. Abereh izenaren atzean ezkututzen den Erik Berganzak, berriz, *Joan-etorrian* diskoa aurkeztuko du. 22:00etan da kontzertua. Sarre-ra bost euro da.

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!

## HARIRA OÑATI

HERRI ORDEZKARIEKIN BERBETAN  
IZARO ELORZA ALKATEA  
AZAROAREN 2AN, MARTITZENEAN,  
21:30EAN ETA 23:30EAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

✉ [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

☎ 688 69 00 07

goiena

Zu hemen zaude.





JANIRE DAVILA 'JANDA'  
SORTZAILEAK

"Beharbada, neskek beldur handiagoa dute reggaetona egiteko, matxista dela esaten dutelako? Ez dakit"



NEREA LORON, 'LA FURIA'  
SORTZAILEA

"Dena azkar kontsumitzea da kontua, eta horrek eragina du musika sortzeko moduan"



XADI AYASTUI ETA  
IKER HIRIART,  
'K-PO ETA HRT'  
SORTZAILEAK

"Zergatik ez dugu euskaraz ekoiztuko, hemengo izanda?"



AINHOA VITORIA  
IRRATI ESATARIA

"Diskurtsoa kontatzeko moduagatik eta erritmoagatik heldu dira estilo hauek gazteengana: rapa, trapa..."



IÑAKI BENGOA  
SHOT ESTUDIOA

"Ideologiarik izan ez duten musika-mugimendu gehienak eskuinaren asmakizunak dira"



HODEI VICARIO, 'DENSO'  
EKOIZLEA

"Irudia oso inportantea da eta zaindu egin behar da"



MIKEL EGIA ETA  
MARKEL BENGOA,  
'PXLI ETA EKSO'  
SORTZAILEAK

"Gazteleraž ekoizten jarraituko dugu, seguruenik"



MARTIN ERRASTI 'TATTA'  
SORTZAILEAK

"Hiru eurogatik daukat abestia plataforma guztietan"

# 'MUSIKA URBANOAREN ILUNPEKO LORALDIA'

ERREPORTAJEA  
URRIAREN 29AN, 21:00ETAN

goiena

Zu hemen zaude.



Manex Balerdi antzuolarra eta Ander Murua arrasatearra dominekin, aste barruan, Soroluzen. IBAI ZABALA



Balerdi eta Murua, Espainiako selekzioko kideekin. NAZIOARTEKO PILOTA FEDERAZIOA

# "Domina hau baino zailagoa da profesional izatera iristea"

**PILOTA MANEX BALERDI ETA ANDER MURUA MUNDUKO TXAPELDUNAK**

Valladoliden eta Segovian jokatu dute astebetetz zenbait lurraldetako pilotariak batu dituen torneo, eta debagoiendarrak eskuz binakakoan nabarmendu dira

**M. Bikuña / X. Urtzelai** ARRASATE

Ander Murua eta Manex Balerdi 23 urtez azpiko munduko txapeldun dira. Hala, duela urte batzuk Beñat Rezusta bergararrak eta geroago Ibai Bolinaga arrasatearrak irabazitako dominak osterera ere ekarri dituzte Debagoienara. Segovian eta Valladoliden egin duten txapelketako esperientzia ederra izan dela diote. Hori bai, pilotan ibilbide profesionala egin ahal izatea beste kontu bat dela nabarmendu dute biek.

**Munduko txapeldun zarete. Berba potoloak dira horiek.**

**Manex Balerdi:** Bai; izenak berak dio garrantzi handiko txapelketa irabazi dugula; egunerok ez da halako bat irabazten, baina egia da Euskal Herriko

**"HAMAR EGUN EGIN DITUGU LURRALDE ASKOTAKO PILOTARIEKIN, EDERRA IZAN DA"**

beste torneo batzuetan normalean maila handiagoko pilotarien kontra jokatzeko dugula. Partiduak nahiko erraz irabazi gehituen, baina txapelketa garrantzitsua da, bai.

**Txapelak irabazterakoan, presioa kendu zenuten gainera?**

**Ander Murua:** Presioa kendu baino gehiago, poztasun galanta sentitu genuen. Hilabeteak egin genituen torneo hori prestatzen; Espainiako selekzioan hautatuen artean egotea ez zen erraza izan, eta egia da helbu-

rua urrezko domina lortzea zela. Horregatik guztiagatik, poztasuna izan zen sentitu genuena. Gainera, Mexiko zen kontrario gogorrena, eta finalean eurak izan genituen aurrean. Faboritoak geu ginen, baina ez zen partidu erraza izan.

**Ander, finalean mexikarren kontra garaipena eman zizuen tantoaren osteko ospakizunak erakutsi zuen tentsio handia izan zenutela.**

**A.M.:** Urduri hasi nuen partidua; final askotan egondakoak gara, baina ez halako txapelketa handi batean. Hala, 9-4 irabazten gindoazenean, mexikarrak gerturatu egin zitzaizkigun eta zortzigarren tantoa ere egin zuten, eta hor beldurtu ginen apur bat. Zorionez, lehenengo set-a irabazteko behar genuen tantoa egin genuen eta bigarren set-ean lasaiago ibili ginen.

**Manex, lastima, ezin izan zenuen finalean Anderrekin bikotea osatu.**

**M.B.:** Bai, pena eman zidan finala jokatu ez izanak, baina pozik nago selekzioan egin dugun ekarpenarekin; azken batean, guztion lanaren emaitza izan da txapel hau. Hautatzaileak erabaki zuen ze bikotek jokatu behar zuten finala; hasieran, amorruta ematen dizu hor ez egoteak, baina erabakia onartu eta harmailetan prest egoten saiatzen zara, edozer gertatuz gero kantxara irten behar duzulako, ordezko. Ondorengo ospakizunak ere ederrak izan ziren.

**Halako txapelketa bat irabazteak lagundu egiten du profesionalismora begira? Beñat Rezustak bide hori egin zuen...**

**M.B.:** Bueno, gure curriculumean geratuko den zerbait da, baina *profesionalismoa* berba potoloa da. Orain momentuan, Beñat Rezusta oso urrun dago, sekulako maila duen pilotaria

da, eta gu beste maila batean gaude.

**A.M.:** Errazagoa da Munduko Txapelketa irabaztea profesional mailara iristea baino. Gora iristen lagunduko du honek, baina...

**M.B.:** Txapelketa honetan, zailena zen bertan egotea; alegia, selekzioan aukeratuen artean egotea. Behin txapelketan egonda, kontrarioen maila ez da handia izan. Torneoa irabazteko faboritoak ginen, eta urrea jantzita bueltatu gara.

**Zer ekarri duzue torneotik, txapelez harago?**

**A.M.:** Esperientzia ederra izan da; hamar egun egin ditugu hango egoitza batean, eta selekzio guztietako pilotariak izan gara elkarrekin.

**M.B.:** Oso ondo egon gara, oso gutxik dute halako esperientzia bat bizi izateko aukera.

**Pilota denboraldiak, baina, aurrera jarraitzen du.**

**A.M.:** Gipuzkoako txapelketa amaitzea geratzen zaigu orain, eta ondoren, inguruan torneo mordoia izaten dira.

**Eta Herri Arteko Txapelketa da etorriko den horietako bat. Antzuolak eta Arrasatek ez dute ordezkartzarik izango.**

**A.M.:** Pena da, baina ez dugu gure herriko klubarekin jokatzerik izango, kadete eta gazte mailetan ez ditugulako pilotariak.

**Amaitzeko: baduzue profesionaltera iristeko esperantzarik?**

**M.B.:** Nik uste dut txikitatik hor gabiltzan guztiok izan dugula inoiz profesional mailara iristeko ametsa, jakinda oso-oso zaila den zerbait dela.

**A.M.:** Ados nago; ikusi baino ez dago gaur egungo profesionalen zer-nolako maila duten, oso maila onean daude goian daudenak. Baina ez dugu esperantza galduko.



Xubane Garai. FUNDACION EUSKADI



Olatz Gabilondo. GOIENA



Garazi Estevez. FUNDACION EUSKADI

# Gabilondok beteko du Barrainkuaren hutsunea

**TXIRRINDULARITZA** Debagoieneko hiru txirrindularik jarraituko dute emakumezkoen maila goreneko taldean lehia, Laboral Kutxa. Ainhize Barrainkua aretxabaletarrak ziklismoa uztea erabaki du, baina Olatz Gabilondok beteko du hutsune hori

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Laboral Kutxa txirrindulari taldeak aditzera eman du 2021-22 denboraldirako ziklisten zerrenda, eta nobedadeak daude. Zazpi txirrindularik jarraituko dute emakumezkoen taldean: Usoa Ostolazak, Irantzu Belokik, Tania Calvok, Elena Cuencak, Idoia Erasok, Xubane Garaik eta Garazi Estevezek; azken bi horiek, aretxabaletarrak. Horrenbestez, Uxue Albizuak, Nekane Gomezek, Eukene Larrartek eta Ainhize Barrainkua aretxabaletarrak ez dute taldean jarraituko, eta Paula Suarezek elastiko hori defendatzen jarraituko du, baina beste modalitate batzuetan.

Hala, beste sei txirrindulari batuko dira proiektura: Olatz Gabilondo (1999) bergararra – Bolintxo Okindegia taldeetik dator –, Mireia Arriazu (2003), Yurani Blanco (1998), Ariana Gilabert (2000), Sandra Gutierrez (2003) eta Amaia Lartitegi (2001). Hain zuzen, Debagoieneko ziklistei dagokienez, ibarrak or-

dezkarri kopuru berbera izango du taldean: hiru; izan ere, Lo-katzako harrobiko Olatz Gabilondok lan arrazoiak tarteko txirrindularitza alboratzea erabaki duen Ainhize Barrainkua ordezkaturiko du.

**Nabarmendu diren ziklistak**

Taldera batu diren txirrindulariak kategoria gazteagoetan nabarmendutako ziklistak dira, taldeko zuzendari Jon Lazkanok nabarmendu duenez: "Alde batetik, Bizkaia-Durangotik datozen hiru txirrindulari ditugu. Esperientzia dute mailan, bada-kite zer den egutegi lehiakorra izatea, eta esperientzia hori oso baliagarria izango da taldearentzat eta taldekideentzat. Bestal-

**BOLINTXO OKINDEGIA-LANA TALDETIK DATORREN OLATZ GABILONDO DA NOBEDADEETAKO BAT**

de, gaztetasuna dugu; batez ere, junior mailatik datozen Mireia eta Sandrarena. Haien zatia eta Olatzentzat dena berria izango da. Maila, egutegia... baina ilusioa eta motibazioa dute. Oro har, taldearen maila igo egingo da sei txirrindulari hauekin, eta horrek kirol mailan beste pauso bat emateko eta heldutasun eta oreka puntu bat gehiago lortzeko aukera emango digu".

**lazko ilusioarekin**

Euskadi Fundazioaren babesarekin, Laboral Kutxako ziklistak mundu mailako txirrindulari onenekin lehiatuko dira. "Laboral Kutxa taldeak euskal emakumeen tropelaren erreferentzia izaten jarraitzeko apustuari eusten dio, eta nazioarte mailako lasterketa garrantzitsuetan egongo gara", dio Lazkanok. "Ilusioa eta motibazio berberarekin lanean jarraitzearen aldeko apustua egiten dugu, progresioa dutela eta izango dutela uste dugulako", gaineratu du.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### O. ERREGIONAL GIZON.

#### Mondra-Eibar

Ostir. 20:00. Mojategi.

#### Bergara-Mutriku

Zap. 16:00. Agorrosin

#### Zarautz-Aloña Mendi

Zap. 16:30. Asti.

#### Aretxabaleta-Oiartzun

Dom. 16:30. Ibarra.

#### O. ERREGIONAL EMAK.

#### Ostadar-Leintz Ariz.

Zapa. 17:30. Lasar.

#### Bergara-Lagun Onak

Dom. 17:00. Zumaia.

#### GORENGO GIZONEZK.

#### Idiazabal-UDA

Zap. 15:30. Idiazabal.

#### Soraluze-Antzuola

Zap. 15:30. Ezozia.

#### GORENGO EMAK.

#### Leintz Aloña-Euskal.

Zap. 16:15. Azkoaga.

#### Bergara-Zarautz

Dom. 15:30. Ipintza.

### EMAKUME. GORENGO

#### Leintz Aloña-Amaikak

Zap. 16:15. Azkoaga.

### ARETO FUTBOLA

#### MAILA NAZIONALA

#### Mondrate-Tolosa.

Zap. 17:15. Musak.

#### Elorrio-Eskoriatza

Zap. 17:30. Elorrio

#### EUSKADIKO TXAPELKE.

#### Zabalga.-Aretxabaleta

Zap. 11:30. Gasteiz.

#### SENIOR EMAKUMEZKO.

#### Ordizia-Eskoriatza

Dom. 10:00. Ordizia.

### ESKUBALOIA

#### EUSKADIKO EMAKU.

#### Cons. Aloña-Eraiken

Zap. 12:00. Zubikoa.

### SASKIBALOIA

#### EBA

#### MU-Santander

Dom. 18:30. Iturripe.

#### MAILA NAZIONALA

#### F.Bilbao-MU

Zap. 19:15. Casilla.

### Alkideba Ointxe-Easo

Zap. 17:30. Iturripe.

#### BIG. GIZONEZKOAK

#### Mekalki Aloña-Araber.

Zap. 18:00. Zubikoa.

#### BIG. EMAKUMEZKOAK

#### Barakaldo-MU

Asteh. 12:30. Barakal.

#### GIP. SENIOR EMAKUME.

#### Antigua-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Donostia.

### PILOTA

#### GIPUZKOAKO TXAPELK.

#### ARETXABALETA

Egub. 17:45.

Bederatzi partidu.

#### OÑATI

Egub. 18:30.

Sei partidu.

#### BERGARA

Egub. 19:00.

Bost partidu.

#### ANTZUOLA

Egub. 19:30.

Bi partidu.

#### ANTZUOLA

Egub. 19:30.

Bi partidu.

## MENDI LASTERKETAK Letek onenen artean amaitu du Espainiako Kopa

Espainiako Mendiko Kirol eta Eskalada Federazioak (FEDME) antolatutako mendi lasterketen Espainiako Kopako lau proba puntuagarriak jokatu ostean, euskal selekzioko kide Xabier Letek hamargarren postua eskuratu du sailkapen orokorrean. Erregularitasuna izan da, orain arte, oñatiarraren bertute nagusia.

## FUTBOLA Mondrak talde guztietako familia erretratua egingo du

Iaz, pandemia arrazoiak tarteko ezin izan zuten halako hitzordurik antolatu, baina, aurtengo denboraldira begira, astelehenean (11:00, Mojategi) klub zuri-moreak kategoria guztietako jokalariek batuko ditu familia erretratua egiteko. Jokalari guztien erretratuekin hasiko dute goiza, eta ondoren, gazteenen argazkiekin jarraituko dute.

## HOCKEYA Urrezko Ligari ekiteko prest da Burdinola taldea

Oraingo asteburuan ekingo diote Bergarako Burdinola Irristaketa Klubeko senior neskek denboraldi berriari. Saguntan (Valentzia) jantziko dituzte patinak, eta ez nolanhiko mailan, gainera: Urrezko Ligan egingo dute debuta, Espainiako bigarren mailan jokatu dute. Bi partidu jokatu dituzte zapatuan. Goizean eta arratsaldean, bana.

## ZIKLISMOA Iban Velasco fitxatu du Movistar taldeak

Azken urteotan Astanan jardun duen Iban Velasco ingeniari arrasatearra fitxatu du Movistarrek. Euskalteleko eta Caja Ruraleko ziklista ohia ziklismoa aplikatutako teknologian aditua da, biomekanikan, *big data*-n eta baita aerodinamismoan ere. Hain zuzen, Astanan materiala aztertzen eta erlojupekoak zorrotz prestatzen ibili da.

# Musika eta poesia ikuskizuna Kulturaten

Bibliotekaren Egunaren ospakizunak borobiltzeko, gaur, egubakoitza, Jon Basagurenen eta Iñigo Astizen 'Oraindik, orain eta oraingoz' emanaldiaz gozatu ahal izango da, 19:00etan. Areto nagusian izango da, eta ez da gonbidapen edo sarrerarik behar

## Amaia Txinturreta ARRASATE

Jon Basaguren musikariak eta Iñigo Astiz idazleak euren azkenaldiko sorkuntzak erakutsiko dituzte Arrasateko Kulturaten egingo duten emanaldian. Poesia eta musika saioa da *Oraindik, orain eta oraingoz* izeneko, eta bertan, besteak beste, sortzailetasunaz hausnartuko dute. Hauxe adierazi du Basaguren musikariak: "Sortzaile izateak dakarrenari buruz hausnartuko dugu ikuskizunean, tonu umoretsuan. Osotasun batean sortu dugu proiektua, Astizen poesiak eta nire musika alderdia oinarri hartuta".



Iñigo Astiz eta Jon Basaguren, euren promozio irudian. JON BASAGUREN

## Enkargu batetik sortua

Izaki Gardenak taldeko Basagureni proposatu zioten proiektua Bilboko Arriagakok, bertako Udalarekin batera antolatzen duten *Literatura eta musika euskaraz* ziklorako. Eta galdetu zioten ea idazleren batekin batuta zer egiteko aukera zuen. Musikariak, besteak beste, Euskadi literatura sariaren irabazle den eta hainbat liburu eta poesia idatzi dituen Astizekin daukan konexio artistikoa kontuan hartuta, hari egin zion proposamena, eta hortik abiatuta sortu zuten lana. "Astizekin landu du ikuskizuneko gidioia

gure sorkuntzei osotasuna emateko, nahiz eta alderdi inprobisatu pare bat ere izango dituen ikuskizunak, zuzeneko den heinean. Poesia oso ederren bat ere estreinatuko du Astizek ikuskizunean, esaterako, eta nik kantatu berri-berririk ez dut joko, baina aspaldi jo gabekoak entzun ahal izango dira, moldatutakoak ere bai, eta zuzenekoren batean estreinatutako baina gutxitan jotako bertsioren bat ere eskainiko dut", azaldu du Basagurenek. Gaineratu du emanaldi "freskoa" izango dela.

## Ikuskizun "dinamikoa"

Bi artisten kasuan, normalean euren lanetan "oso gauza serioetara" jotzen dutela zehaztu du musikariak, baina argi utzi nahi izan du orain esku artean duten ikuskizunak umore puntuak izango dituela eta saiatu direla momentu batzuetan umore beltzetik edo alde sarkastikotik jotzen. Gaineratu du normalean jotzen ez dituen instrumentuekin "zarata" apur bat ere egingo duela une batzuetan, esaterako, gitarra elektrikoa ere joko du-eta ikuskizunean.

Proiektu horrek balio izan die bie euren lanak taula gainetik erakusteko, eta, orainaldia lehen-gai izanda, ia ezinbesteko dirudi pandemiaren aritzea. "Atzeko lanetan aritu naiz pandemia garaian; izan ere, pandemia bera sartu zaigu bizitzetan, eta, edozertaz hausnartzen hastean, agertu egiten da, baita poema eta kantatu batzuetan ere", adierazi du Basagurenek. Dena den, emanaldia "dinamikoa" eta ikus-entzulea "ez aspertzeko" modukoa izango dela adierazi du musikariak.

## Zuzeneko saioak

Bilboko estreinaldiaren ostean, Zarautzen eta Getxon eskaini dute ikuskizuna orain arte, eta bi artistak oso pozik daude momentuz izan duten harrerarekin. "Poesia eta musika ikuskizun bat izatera, zerbait dinamikoa egin nahi genuen, ikus-entzuleak ez genituen aspertu nahi, eta uste dut jendea gustura gelditzen dela gure emanaldien ostean, gauzak gertatzen baitira emanaldian zehar, eta gu ere oso gustura sentitzen gara", esan du Basagurenek.

Abenduan, esaterako, Gasteizen eskainiko dute euren ikuskizuna, baina aurretik, gaur bertan, Arrasaten egingo dute geldialdia. Musikariak gaineratu du "gogotsu" daudela Arrasaten gaur, egubakoitza, 19:00etan Kulturateko areto nagusian eskainiko duten ikuskizunera begira, herritarrek nola hartuko duten jakiteko irrikaz.

Bertara joateko ez da gonbidapen edo sarrerarik behar, eta *Oraindik, orain eta oraingoz* emanaldiarekin borobilduko dituzte, hain justu ere, Bibliotekaren Egunaren inguruan antolatu dituzten ospakizunak.

## Iñigo Arregiren artelanak Burgosen daude ikusgai

Portia upeltegietan daude eskultore arrasatearraren 30 obra inguru, datorren urteko martxora arte

## A.T. ARRASATE

Joan den egubakoitzean inauguratu zuten Iñigo Arregi eskultore arrasatearraren lanekin osatutako erakusketa, Burgosko Gumiel de Izan herrian dagoen Portia upeltegian. Iaz muntatutako erakusketa ia urtebetez jende barik egon ostean, azkenean, zabaldu dituzte bertako ateak, eta, ondorioz, dagoeneko ikusgai daude Arregiren formatu handiko 30 obra inguru: "Sarreran altzarizko formatu handiko obra bat jarri dugu eta barruan egurrezko lan handiak daude, erliebeekin batera. Izan ere, eskulturen eta erliebeen arteko lotura handia dago. Erakusketa erraldoia da, ez da-eta galeria batean", azaldu du Arregik. Gaineratu du pisuagatik ez dituztela metalezko piezak jarri erakusketa horretan.

Madrilgo David Bardia arte galeriaren bitartez jarri dituzte arrasatearraren eskulturak Portia upeltegian, eta artistak adierazi du oraindik goizegi dela jakiteko erakusketa zein harre-razen izaten ari den, baina gaineratu du hilean bertatik 1.500 pertsonatik gora pasatzen direla. Gutxi gorabehera, datorren urteko martxora bitartean egongo da zabalik erakusketa.

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA

**BESTELAKO OLATUA!**

**SONIC TRASH**

URRIAREN 29AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN  
KOOLTUR OSTEGUNAK

**goiena**

Zu hemen zaude.





Lemak musika taldeko kideak. BEÑAT BIZENTE ©SRTO.ALOHA

# Estreinako lana eskuetan, kontzertuetarako gogoz

'Hegikide' izeneko hamaika rock kanturen bilduma argitaratu du Bergarako eta Antzuolako musikariak batzen dituen Lemak hirukoteak; datorren asteko zapatuan Antzuolan egingo duten musika jaialdian aurkeztuko dute lana zaleen aurrean

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA 2019an hasi ziren entsegu lokalean elkartzeko Bergarako Beñat Larrañaga eta Biken Larrañaga eta Antxon Arregi antzuolarra. Ikasketa kontuek baldintzatuta etenaldi batzuk egin behar izan zituzten, eta, kontraesana badi-rudi ere, konfinamendu garaian hartu zuen indarra taldeak.

Sarean kantu batzuk argitaratu izan dituzte aurrez, eta urriaren 22an kaleratu zuten euren estreinako diskoa: *Hegikide*. Bergarako Arrano eta Antzuolako Aitz Garbi tabernetan eta taldearen sare sozialen bitartez eros daiteke.

**Begarako 'hegi' hitzetik tiraka** Diskoaren izena asmatzeko orduan buelta asko eman ondoren *Hegikide* izena aukeratu zutela azaldu du Biken Larrañagak. "Platonen teoria interesgarria iruditu zitzaigun, eta hari tira-ka hasi ginen. *Marra* hitzaren sinonimo bila hasi, eta hara non topatu genuen *hegi*; hain justu,


Begarako jatorria duena. Mendiak eta zerua banatzen dituen lerroa adierazten du, eta hitz jokoia eginda asmatu genuen *hegikide* kontzeptua: bi bergarar eta antzuolar bat, mendien lerro arteko kideak garelako adierazteko modu bat".

Kantuen hitzei dagokienez, denetariakoak direla dio abeslariak: "Lagunek idatzi dizkiguten

bi kantuen hitza ezik, besteak guk sortutakoak dira. Denetariakoak dira; adibidez, erlijioei kritika egiten diegu *Azken amenetan* izenekoa; desamodio kantua da *Zu*; gertuko jendea faltan igartzeari buruz jarduten diegu *Gertu-n*; Lemak taldeari egiten dio erreferentzia *Gu-k...*".

**Rocka, zentzu zabalean** *Hemen gaude* eta *MM* kantuen bideoklipak egin dituzte eta dagoeneko euren sare sozialetan dituzte ikusgai. "*Hemen gaude* izan zen iaz argitaratu genuen lehen kantua; bertsio akustikoan zen hori, eta orain, doinu gogoragoak jarri dizkiogu. Orokorrean, rock kantuek dira guztiak, lasaiagoak batzuk, popetik ere badutenak, eta punkagoak beste batzuk".

Jendaurrean jotzea da orain euren asmoa, eta ari dira kontzertuak lotzen; datorren astean Antzuolan izango dira, Zurragi plazan egitekoak diren Antzuolako Rock Eguna jaialdian.



HEGIKIDE

- **Egilea** Lemak.
- **Estiloa** Rock.
- **Autoekoiztua**
- **Non grabatua** Pottoko estudioan.

## Goienakideen txokoa

### Urriko sariak

#### Kobo e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bezikidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia  
 "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena LFP 137995 legez eraberritua izango da. Zozketaren datuak Goiena Fomakide Zerbitzuen Itxuragutza Zerbitzua bidezkoak dira. Zozketaren irabazlearen izena eta irabazlearen izena zozketaren datuak Goiena Fomakide Zerbitzuen Itxuragutza Zerbitzua bidezkoak dira. Zozketaren irabazlearen izena eta irabazlearen izena zozketaren datuak Goiena Fomakide Zerbitzuen Itxuragutza Zerbitzua bidezkoak dira. Zozketaren irabazlearen izena eta irabazlearen izena zozketaren datuak Goiena Fomakide Zerbitzuen Itxuragutza Zerbitzua bidezkoak dira.

### Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko udalari esker

Whatsu antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Azaroaren 7an | 19:30ean

#### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) Whatsapp: GOIENAKIDE "Arasate" [bezikidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia  
 "goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena LFP 137995 legez eraberritua izango da. Zozketaren datuak Goiena Fomakide Zerbitzuen Itxuragutza Zerbitzua bidezkoak dira. Zozketaren irabazlearen izena eta irabazlearen izena zozketaren datuak Goiena Fomakide Zerbitzuen Itxuragutza Zerbitzua bidezkoak dira. Zozketaren irabazlearen izena eta irabazlearen izena zozketaren datuak Goiena Fomakide Zerbitzuen Itxuragutza Zerbitzua bidezkoak dira.

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### HILARION JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 2



943 25 05 05



[goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea  
 [bezikidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€  
 Datu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGA TU GOIENA APP BERRIA!

goiena  
 kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



## HILDAKOAK

- Felix Urkia Usandegi.** Aretxabaletan, hilaren 19an. 73 urte.  
**Pilar Pereira Ramos.** Arrasaten, urriaren 19an. 89 urte.  
**Felisa Nogal Miguel.** Bergaran, urriaren 19an. 88 urte.  
**Mohamed Salem Nafe Abedid.** Eskoriatzan, 20an. 52 urte.  
**Kontxi Villar Igartua.** Arrasaten, urriaren 21ean. 94 urte.  
**Maria Bengoa Elorza.** Aramaion, urriaren 21ean. 93 urte.  
**Inazio Inza Leturiaga.** Oñatin, urriaren 22an. 90 urte.  
**Eduardo Larreategi Bolinaga.** Arrasaten, 24an. 88 urte.  
**Vicenta Lara Lara.** Arrasaten, urriaren 25ean. 92 urte.  
**Lourdes Olaetxea Kortabarria.** Bergaran, 26an. 61 urte.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
 edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**  
**ARRASATE** Goiena: Otorlora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
**BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.  
**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
**ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.  
**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 29 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15  
 Zapata, 30 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99  
 Domeka, 31 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26  
 Astelehena, 1 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39  
 Martitzena, 2 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74  
 Eguztzena, 3 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65  
 Eguna, 4 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

### BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 29 DIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05  
 Zapata, 30 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63  
 Domeka, 31 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63  
 Astelehena, 1 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15  
 Martitzena, 2 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74  
 Eguztzena, 3 ZABALA: Barrenkale 25 / 943 76 16 87  
 Eguna, 4 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

### OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Zapata, 30 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Domeka, 31 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Astelehena, 1 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58  
 Martitzena, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28  
 Eguztzena, 3 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16  
 Eguna, 4 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

### EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)  
 Urte bukatu arte  
 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

### EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)  
 Urtea bukatu arte:  
 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:  
 COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

### ESKER ONA



## Felix Ormaetxea Goitana

'Urbe'



2021eko urriaren 18an hil zen, 82 urte zituela.

*Eskerrik asko senar, aita eta aitaita zoragarria izan zarelako. Erreza izan da zu maitatzea, ezinezkoa ordea zu ahaztea. Beti gurekin izango zara.*

Bere emazteak, seme-alabek, bilobek eta senideek asko eskertzen dugu jasotako babesa, gertutasuna, hiletara etorri eta gurekin egon izana.

Arrasaten, 2021eko urriaren 29an.

### ESKER ONA

## Felix Urkia Usandegi



2021eko urriaren 19an hil zen, 73 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko urriaren 29an.

### ESKER ONA



## Josu Azkarate Alberdi



2021eko urriaren 14an hil zen, 40 urte zituela.

Ume, gazte, ez hain gazte, nagusi... Telefono dei, mezu bidez edo presentzialki babesa eman diguzuen guztioi, eskerrik asko familia guztiaren partetik.

Elgetan, 2021eko urriaren 29an.

### URTEURRENA

## Francisco Moreno Garcia



2020ko urriaren 31n hil zen.

Pandemia egoeratik ezin izan zenez hileta-elizkizunik egin, senide eta lagunak gonbidatzen zaituztegu urteurren mezara.

Elizkizuna domekan izango da, urriak 31, 11:00etan, Antzuolako Errukizko amaren parrokian.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko. Antzuolan, 2021eko urriaren 29an.

### OROIGARRIA

## Mohamed Salem Nafe Abeid

Eskolako aita

2021eko urriaren 21ean hil zen.



*Luis Ezeiza Herri Eskolako komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.*



Eskoriatzan, 2021eko urriaren 29an.

### OROIGARRIA

## Kepa Jauregi Olabe



2014ko urriaren 28an hil zen.

*Zein amets politta zurekin bizi izana orain hegan zoaz, Kepa maitea baina gurekin egongo zara ametsik ederrenean.*

Aretxabaletan, 2021eko urriaren 29an.

## Oroilore

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak guran izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA | Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## TXUTXU-MUTXUAK



1



2



3



4



5

**1. Oñatzekoak, Valladoliden**

Oñatiko dantza taldeak hainbat emanaldi egin zituen aurreko asteburuan, hango Gure Txoko euskal etxeak gonbidatuta. Herriko dantzak eta 50. urteurrenekoak dantzatu zituzten.

**2. 50 urte ezkontuta**

Aber eta Maria Angeles aretxabaletarrek gaur bete dute urteurrena. "Zorionak, aitona eta amona! Askok maite zaituztegu. Segi zoriontsu izaten. Izaro eta Aitzol".

**3. Liburutegia, kalera**

Liburutegiaren Eguna ospatzeko, Oñatiko erabiltzaileak, eguraldia lagun, Santa Marina plazara irten ziren, liburuak irakurtzera eta irakurketaz gozatzera.

**4. Maeztura bisita**

Bailarako Berbalagun taldeak Maeztuko (Araba) Santa Catalina lorategia bisitatu zuen aurreko asteburuan. Hango landareak, zuhaitzak eta aztarnak ezagutu zituzten.

**5. Hamar onenen artean**

Espainiako Kopako lau proba puntuagarriak jokatu ostean, euskal selekzioko kide Xabier Lete oñatiarrak hamargarren postua eskuratu du sailkapen orokorrean.

**Kontatu, kontatu!**

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzue? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ZORION AGURRAK

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARRASATE  
**Aaron Fernandez Jimenez**  
Azaroaren 2an, 7 urte.  
Zorionak, Aaron!  
Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat familia osoaren partetik!




BERGARA  
**Eider Leturia Zurutuza**  
Azaroaren 1an, 4 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Maitxe zaitxugun danon partetik.



OÑATI  
**Paul Anduaga Arregi**  
Urriaren 29an, 9 urte. Zorionak, Paul! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo potolo bat etxekuon, eta bereziki, Martin, Sara eta Maddalenen partetik!



OÑATI  
**Ander Odriozola Larrañaga**  
Urriaren 28an, 5 urte.  
Zorionak, Ander!  
Oso ondo pasatu zure egunian, txapeldun! Patxo pilia, familia danaren partetik.



BERGARA  
**Aimar Lamikiz Rementeria**  
Urriaren 25ean, 8 urte.  
Zorionak, txapeldun.  
Muxu potolo bat familia osoaren partetik.



ARRASATE  
**Aitor Canales Losa**  
Urriaren 23an, 12 urte.  
Zorionak, txapeldun!  
Oso ondo pasatu zure eguna, maitia.  
Muxu asko familiako guztien partetik.



BERGARA  
**June Iturrospe Arrondo**  
Urriaren 28an, 6 urte.  
Zorionak, June!  
Ondo ospatu zure urtebetetze eguna.  
Patxo handi bat danon partetik!



BERGARA  
**Aida Roman**  
Urriaren 26an, 41 urte.  
Zorionak, ama!  
Ondo pasatu eguna.  
Maite zaitugu. Muxu pila bat Haizearen eta Heleneren partetik.



ARAMAIO  
**Enai Bolinaga Altuna**  
Urriaren 22an, 2 urte. Zorionak, Enaitxo!  
Jada bi urte gure egunek alaitzen!  
Jarraitxu holaxe poz-pozik bizitzie deskubritzen!



ARRASATE  
**Nahia Domingos Garay**  
Azaroaren 2an, 9 urte.  
Zorionak, sorgintxo!  
Oso ondo pasatu zure egunean lagunekin eta etxekoekin. Muxu handi bat etxekoekin eta familia osoaren partetik. Batez ere, Aimarrena. Maite zaitugu.



ARRASATE  
**Saioa Bergaretxe Astigarraga**  
Urriaren 30an, 10 urte.  
Zorionak polit hori.  
Azkenean iritsi da eguna! Arrate, aitatxo, amatxo, aitiitte eta amamaren partetik, mila kilo zorion.



ESKORIATZA  
**Kimetz Karpio Azpitarte**  
Urriaren 30ean, 10 urte. Gure mutiltxuek hamar urte polit. Zorionak! Zure amama Resu, aita Txomin, osaba Gorka eta, ez ahaztu, gure lon txakurbxue. Ondo pasatu zure eguna.



ESKORIATZA  
**Jabier Etxebarrieta 'Patas' eta Lierni Altuna**  
Urriaren 29an, 57 urte Patasek eta azaroaren 1ean, 48 urte Liernik. Zorionak, bikote. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunetan, familia osoaren partetik. Muxu pila bat biontzako.



OÑATI  
**Amaiur Beitia Urkia**  
Urriaren 22an, 7 urte.  
Zorionak, bihotza!  
Urte askotarako!  
Egun politta pasatu eta muxu handi bat familiako danon partetik.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 29

## ARAMAIO Gaba Baltza

17:00etan, mozzorro festa;  
18:00etan, kale-apainketa kalabaza eta kriseiluekin; 18:30ean, ipuin kontalaria; eta 19:30ean, sorgin dantza plazan.  
*Aramaion.*

## ARETXABALETA Gaba Baltza: 'Scape room'-a

10-16 urte artekoendako, gutxienez bost pertsona eta gehienez, zazpi. Hiru txanda. Izenak emateko: 685 75 67 29 edo *euskara@loramendielkartea.eus*.  
*Mojen komentuan, 17:00etan.*

## BERGARA Gau Beltza: tailerrak

Kuiak hustekoa, makillatzen ikasteko, mozzorroak egiteko...  
*San Martin plazan, 17:30ean.*

ARRASATE Dantzaldi irekia Euskal dantza tradizionalak eta gaur egun plazetan dantzatzatzen diren dantzan praktikatzeko aukera, Portaloi elkartearen eskutik.  
*San Martin plazan, 17:30ean.*

## ARRASATE Gaba Baltza: 'Arimen biltzarra'

Ilargixorekin kalejira, eta Herriko Plazan, biltzarra. Mozorrotuta joatea eskatu dute antolatzaileek: kukumarroz, baserritarrez...  
*Biteri plazan, 18:30ean.*

## ELGETA Arimen Gaua: 'Karlita

galduren bila' antzezlana  
18:30ean, HHkoendako; 19:30ean, LHko 1tik 3ra artekoendako; eta 20:00etan, LHko 4tik 6rakoendako.  
*Escolatik abiatuta.*

## ARRASATE 'Oraindik, orain eta oraingoz', musika eta poesia emanaldia

Jon Basagurenekin eta Iñigo Astizekin, 16 urtetik gorakoendako.  
*Kulturaten, 19:00etan.*

## ESKORIATZA Bertso saioa

Haizea Arana, Oihana Arana, Sustrai Colina eta Ane Labaka bertsoan. Saroi Jauregi izango da gai-jartzailea. Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ARETXABALETA 'Herriaren Hauspoa' dokumentala

UDAren 75. urteurrenaren harira.  
*Arkupen, 19:30ean.*

## ARRASATE Biolin ikasleen kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleek Amaia Arzamendiren gidaritzapean egingo dute emanaldia.  
*Parrokian, 19:45ean.*

## OÑATI Abereh + Arima

Soldatadunak bost euro eta soldata gabeak hiru euro.  
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 30

## ESKORIATZA Aginaga sagardotegira irteera

*Olazar erretiratuen elkarte*koendako.  
*Olazarren, 09:00etan.*

## ARAMAIO Erretiratuen azoka eta bazkaria

Goizean, azoka; 12:30ean, hildako erretiratuen aldeko meza; eta 14:30ean, bazkaria.  
*Herriko kaleetan, 10:00etan.*

## ARRASATE 'Gaba Baltza' bisita gidatua

Ospakizunaren nondik norakoak ezagutzeko aukera, 10:00etan euskaraz eta 11:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-25 20 00 edo *Arrasate.eus/ezagutu* atarian.  
*Herriko Plazan.*

## BERGARA Gau Beltza: tailerrak

Kuiak hustekoa, makillatzen ikasteko, mozzorroak egiteko...  
*San Martin plazan, 11:00etan.*

## OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua

Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izenak, aurrez.  
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

## BERGARA Gau Beltza

18:30ean, *Kalabera* abestia musika eskolakoekin, eta, ostean, txokolate-jana, San Joxepekoekin; eta, 19:30ean, kalejira eta Deabru Beltzak taldearen *Su danborrak* ikuskizuna.  
*San Martin plazan, 18:30ean.*

## ESKORIATZA 'Las brujas se salem' antzezlana

Ausartak taldearen eskutik. Sarrerak, bost euro.  
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ARAMAIO Libertad Condicional eta Bordan Bizio taldeak

Debalde.  
*Bizente Goikoetxea plazan, 19:00etan.*

## ARRASATE Dani Fontecha eta 'Suko' komikoak

Bakarriketa emanaldia egingo dute, biek ala biek, errugbi taldeak gonbidatuta. Sarrerak, 20 euro.  
*Amaia antzokian, 19:30etan*

## ARRASATE Gaba Baltza: gazteen afari girotua eta errituala

Edukiera mugatua. Aurrez eman behar da izena gazte txokoetan.  
*Musakolako gaztetxokoa, 20:30ean.*

## BERGARA 'Padre' antzelana

Zaragozako Teatro Pezkaio taldea, Angiolillo Liburutegiak gonbidatuta. Sarrerak, bost euro.  
*Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

## DOMEKA 31

## ARAMAIO Oñatira bisita

Itur Zuri elkarteak bisita gidatua egingo dute Oñatin. Ostean, bazkaria.  
*Aramaion, 10:30ean.*

## OÑATI 'Altxorren bila', ibilbide irisgarrian

Pisten jolasa, familiendako. Aurrez eman behar da izena: *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* helbidean edo 943-78 28 94 telefonoan.  
*Parketxean, 11:00etan.*

## ELGETA Gasteizeko irteera: izen-ematea

Gaur eman behar da izena. Santa Maria katedralera eta dorrera bisita gidatua eta bazkaria, 30 euro.  
*Ozkarbi elkarte*an, 11:00etan.

## OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua

Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izenak, aurrez.  
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*



GOIENA

## BERGARA Bautista legenardunaren bisita

Begarako *kronika beltza* ezagutzeko aukera bikoitza: 21:00etan euskaraz eta 23:00etan gazteleraz. San Pedro parrokiaren inguruetara gerturatuko da Bautista, kanpaitxoarekin eta kriseiluarekin.  
*Ezti, domeka, San Pedro parrokiaren kanpoaldean.*

## ARRASATE Gaba Baltza: beldurrezko laburmetrai emanaldia

Gaztetxoendako  
*Musakolako gaztetxokoa, 18:00etan.*

## ARRASATE '80 urtiak Mondrauen' erakusketa

Ez Donk Amaitu egitasmoaren baitan, azaroaren 27ra arte ikusgai.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

## ARETXABALETA 'Las brujas se salem' antzezlana

Eskoriatzako Ausartak taldearen lana. Sarrerak, lau euro.  
*Arkupen, 19:00etan.*

## ARETXABALETA Gaba Baltza: kalabaza lehiaketa

Durana kaleko edozein txokotan ipini daiteke kalabaza, ezizena txartel batean idatzita. Argazkia atera, eta sare sozialetara igo behar da, Loramendi eta Algara Ludoteka etiketatuta.  
*Durana kalean, 19:00etan.*

## BERGARA Gau Beltza: Bautista legenardunaren bisita gidatua

21:00etan, euskaraz, eta 23:00etan, gaztelaniaz. Debalde, edukiera mugatuarekin. Izena emateko: *ugutztoours@gmail.com*.  
*Bergaran.*

## BERGARA 'Petricor' antzezlana

Zaragozako TeatrOkupado taldea, Angiolillo Liburutegiak gonbidatuta. Sarrerak, bost euro.  
*Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

## ASTELEHENA 1

## OÑATI 'Oñatiko kriptak' bisita gidatua

Oñatiko kondeak lurperatuta dauden txokoa ezagutzeko aukera. Izenak, aurrez.  
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

## ANTZUOLA Gau Beltzeko ipuinak, Lur Kortarekin

17:30ean, 3-6 urte artekoendako; eta bigarrena; bigarren emanaldia, 7-10 urte artekoendako.  
*Torresoroan.*

## MARTITZENA 2

## BERGARA Teknologia

*aurreratuen tailerra*  
DBH 1eko eta DBH 2ko ikasleendako, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan. Euskaraz.  
*Miguel Altuna Institutuan, 09:00etan.*

## ARRASATE 'Dantzaren onurak zahartzaroan' hitzaldia

Maialen Araolazak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.  
*Kulturaten, 10:00etan.*

## BERGARA 'Zientziaren izarrak. Emakumeak itzaletik argira' liburuaren aurkezpena

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan. Euskaraz.  
*Seminarioan, 18:00etan.*

**BERGARA Kontzientzia Elkartearen aurkezpena**

Arrasateko taldeak bere helburuen berri emango du. Irekia. *Irizar jauregian, 18:00etan.*

**EGUAZTENA 3****BERGARA 'Perseverancia en Marte y la búsqueda de vida más allá de la Tierra' hitzaldia**

Ricardo Huesok egingo du berba, gaztelera. *Seminarioan, 10:00etan.*

**BERGARA Adineko pertsonak elkar ezagutzeko kafea**

Begirada Adia ekimenaren baitan. *San Joxepen, 16:30ean.*

**OÑATI Irakurketa feminista zikloa**

Luciana Alfarak gidatutako saioa, Jabetze Eskolaren baitan. *Kultura etxean, 18:00etan.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**

Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Diru-zorroak egiteko tailerra**

Feltrozko diru-zorroak nola egin ikasiko dute. *Ludotekan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Kontzientzia Elkartearen aurkezpena**

Arrasateko taldeak bere helburuen berri emango du. Irekia. *Kultura etxean, 18:30ean.*

**BERGARA 'Gilda' pelikula**

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarioan, 20:00etan.*

**EGUENA 4****OÑATI Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa**

Saioa Baenak emango du, Jabetze Eskolaren baitan, urtarrilaren 27ra arte, eguenetan. Gaur egingo dute lehen saioa. *Gaztelekuan, 09:30ean.*

**ESKORIATZA 'La promesa. La vida es un derecho, no una obligación' dokumentala**

Maribel Tellaetxeak eta bere familiak eutanasia lortzearen alde egindako istorioa kontatzen du. Ostean, solasaldia, Tellaetxearen senar Txema Lorenterekin eta Derecho A Morir Dignamente elkarte kide Rafa Salekin. *Zaldibarren, 19:00etan.*

**ARRASATE 'El reloj de la cerrajera' hitzaldia**

Xabier Alvarez Yereguik egingo du berba, IX. Arrasateko Iragana Astintzen zikloaren baitan. *Kulturaten, 19:00etan.*

**ARRASATE Iker Martinez Eta Zaldi Errenak**

Koiltur Ostegunetako kontzertua. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

**EGUBAKOITZA 5****ELGETA Erretiratuen gaztain-erre jana**

Elgetako erretiratuen elkarteak antolatuta. *Gaztelekuan, 09:30ean.*

**ARRASATE 'Zer da zuretzat gizalegezko lanbidea?' erakusketa**

Debagoieneko Ezker Kultur Guneak eta Fundacion Paz y Solidaridad Fundazioaren bilduma. *Debagoieneko Ezker Kultur Gunean, 18:00etan.*

**ARETXABALETA 'Aztarnak-Huellas' dokumentala**

Ondoren, solasaldia Hazi Hezi Prebentzio Guneko J. Ramon Mauidutekin. *Arkupen, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Gazteak eta bizi eredu kapitalista' hitzaldia**

Gazte Koordinadora Sozialistaren aurkezpenaren baitan. *Kulturaten, 19:00etan.*

**ARRASATE Perlata eta Zero taldeak**

Ez Donk Amaitu egitarauaren baitan. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA****Erase una vez Euskadi**

Egubakoitza, domeka, astelehena eta martitzena: 19:30.

**BERGARA****SEMINARIOA****Madres paralelas**

Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30.

**D'Artagnan eta hiru mosketxakurak**

Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA****Entre dos rosas**

Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30 eta 22:00. Astelehena: 19:30.

**Bebe jefazo**

Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR****COLISEO****El ultimo duelo**

Zapatua: 16:30.

Domeka eta astelehena: 19:30.

**Habr  matanza**

Zapatua: 19:45, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**El espia ingl s**

Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00.

Astelehena: 17:00, 20:30.

**ANTZOKIA****La familia Addams**

Zapatua, domeka eta astelehena: 17:00.

**El  ltimo duelo**

Zapatua: 19:30, 22:30. Domeka: 20:00. Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ****BOULEVARD****El espia ingl s**

Zapatutik astelehenera: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30. Egubakoitza, eguaztena eta eguena: 17:15, 19:30, 21:45.

Martitzena: 19:30, 21:45.

**Erase una vez Euskadi**

Zapatua, domeka eta astelehena: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30. Egubakoitza, eguaztena eta eguena: 17:30, 19:45, 22:00.

**El ultimo duelo**

Zapatua, domeka eta astelehena: 16:00, 19:00, 22:00. Egubakoitza, eguaztena eta eguena: 18:00, 21:00.

**Sin tiempo para morir**

Egubakoitzetik domekara: 19:30. Astelehena, eguaztena eta eguena: 20:00.

**Halloween kills**

Zapatutik astelehenera: 16:00, 18:30, 21:00, 23:30.

Eguaztena eta eguena: 17:20, 19:50, 22:20.

Martitzena: 19:50.

**Habra matanza**

Egunero: 18:30, 21:00, 23:30. Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 17:00, 19:30, 22:00. Martitzena: 22:00.

**Madres paralelas**

Egubakoitzetik domekara: 17:00. Astelehenera: 17:30.

**La cronica francesa**

Egunero: 16:00. Eguena: 17:00.

**La familia Addams**

Egunero: 16:00, 18:00, 20:00.

**Maixabel**

Zapatutik astelehenera: 21:30. Egubakoitza eta martitzenetik eguenera: 20:15. Astelehena: 22:30.

**Dune**

Egubakoitzetik domekara: 22:45. Egubakoitza, eguaztena eta eguena: 21:45.

**La patrulla canina**

Zapatua eta domeka: 16:30.

**El buen patron**

Egunero: 18:30, 21:15.

**GORBEIA****Bebe jefazo**

Egubakoitza eta zapatua: 17:30. Domeka eta astelehena: 12:00, 17:30.

**La patrulla canina**

Egubakoitza eta zapatua: 17:20. Domeka eta astelehena: 12:00, 17:20.

**Maixabel**

Egubakoitza, zapatua eta domeka: 19:25, 21:45. Astelehena: 19:25. Martitzenetik eguenera: 17:20.

**Sin tiempo para morir**

Egubakoitzetik domekara: 21:10. Astelehenera: 19:30.

**La familia Addams**

Egubakoitza: 17:30. Zapatua: 16:50. Domeka eta astelehena: 12:00, 16:50.

**Madres paralelas**

Egubakoitzetik

domekara: 19:35, 22:00.

Astelehena: 19:35. Martitzenetik eguenera: 20:00.

**Las leyes de la frontera**

Egubakoitza eta zapatua: 19:45. Domeka eta astelehena: 12:00, 19:45. Martitzenetik eguenera: 17:30.

**El buen patron**

Egubakoitzetik domekara: 21:10. Astelehena: 18:55. Martitzenetik eguenera: 17:20.

**Ron da error**

Egubakoitza: 19:00. Zapatua: 16:50, 19:00. Domeka: 12:00, 16:50, 19:00. Astelehena: 12:00, 17:20.

**Erase una vez Euskadi**

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:30, 21:40. Domeka: 11:30, 17:30, 19:30, 21:40.

Astelehena: 11:30, 17:30, 19:30.

**KRITIKA****Petite maman**

**Zuz.:** Celine Sciamma. **Herr.:** Frantzia (2021). **Aktoreak:** Jossephine Sanz, Nina Meurise, **Iraupena:** 72 min. ★★★★★

**Adiskidetasun magikoa****ANTONIO ZABALA**

*Petite maman* filmak 9 urteko bi nesken artean sortzen den adiskidetasun harreman magikoa kontatzen digu. Nellyren amona hil egin da, eta, gurasoeekin, amonaren etxera joango da, haren gauzak handik ateratzeko. Nelly triste dago, ezin izan zuelako amona agurtu. Amaren tristura nabarmena da, galduta sentitzen da. Etxetik alde egingo du, eta Nelly bere aitarekin geratuko da amonaren gauzak jasotzen. Etxea mendian dago. Handik gertu, Marion izeneko bere adineko beste haur bat agertuko da. Nelly eta Marion oso lagun egingo dira, eta bien arteko adiskidetasun harremana nola jaiotzen eta sendotzen den erakutsiko digu pelikulak.

Zuzendariak esku zoragarria erakusten du pertsonaien sentikortasuna eta sentimenduak erakusteko.



Detaile guztiak harrapatzen ditu magiaz beteriko harreman horietan. Bost pertsonaia, etxe bat eta baso bat besterik ez du behar, istorio labur batetik zinema handia ateratzeko. Istorio fantastikoa eta magikoa izan arren, ez du efektu berezien beharrik, naturaltasun eta normaltasun osoz batera

arrunta ez den istorioa kontatzen du. Detaile txikiak handi bihurtzen ditu, babesa eta hurbiltasuna behar duten bi pertsonaren arteko istorioa kontatzeko. Sciammak 72 minutuarekin nahikoa du liluratuta utziko gaituen istorio poetikoa eta fantastikoa sortzeko.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

## Egiaren balioa

Zenbaitetan, kosta egiten zaigu egia esatea. Batzuetan, gogorregia delako; besteetan, geure burua babestu nahi dugulako; askotan, hanka sartu dugula onartzen ez dugulako. Guztiak dira giza emakumeon izaeraren parte. Badira beste kasu batzuk, ordea, sibilinoak, makiavelikoak edo auskalo ze kalkulurengatik egia ezkututzen dutenak.

Ezer ezkutatzekorik ez duenak ez du arazorik izaten egia esateko, egia egia da. Hemen eta han, beti berdina dena da egia. Arazoa noiz dator? Hemen gauza bat esan eta han bestea esaten denean, han esandakoa hemen esplikatatu egin behar denean. Benetako egia bihotzetik irteten da, maleziarik gabe eta ezer ezkutatzeko edo antzezteko beharrik gabe.

Akaso, joan den astean Arnaldo Otegi Aieteko Jauregi aurrean esandakoak ez ziren bihotzetik ateratakoak izan eta esplikatatu egin behar izan zituen bere etxe barruan. Ez da txantxetako gaia askok jasan behar izan duten sufrimendua, biolentzia, mehatxuak eta hilketak. Baita euskal gizarteak ere. Aurrerapausoak ematen direnean, eta Aietekoa hala da, zinez eta egiaz eman behar dira, gure arteko bakezko elkarbizitza benetakoa izatea nahi badugu.

GOIENA OKM GIDA

# "Ostalaritzan lan eginda, ordutegiak dira okerrena"

ITZIAR FERNANDEZ DE ARROYABE MAULANDA JATETXEKO ARDURADUNA

Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko errepidean kokatuta, Maulandan geratzen denak gazta tarta eta etxeko txorixoa probatu behar dituela diote bertakoek, "nahitaez"

Jone Olabarria ESKORIATZA

Aititik eta amamak hasitako bideari jarraipena eman zioten Itziarren gurasoek, eta egun, berak eta senarrak kudeatzen dute Marulanda auzoan dagoen Maulanda jatetxea. Janari tradizionala eskainita, "denetik" duten plater konbinatuak eskaintzeagatik dira famatuak.

**Familiatik datorkizu negozio hau, baina zergatik duzu gustuko?**

Bai, ni hemen jaio nintzen, eta betidanik ezagutu dut negozioa. Jendearekin egotea da nik gehien baloratzen dudana. Egia da gustatu egin behar zaizula jende askorekin tratua izatea, eta askotan denak ez direla atseginak izaten.

**Hala ere, ostalaritzan lan egitea sakrifikatua da...**

Ordutegiak dira okerrena; askotan, faltan igartzen duzu seme-alabekin egoteko denbora. Hala ere, beraiek ohitu egiten dira, eta badakite hau tokatzen dela. Gazteagoak zirenean, askotan galdetzen zuten: "Gaur norekin goaz etxera?".

**Eskoriatza eta Gatzaga arteko errepidean egonda, nondik datoz zuen bezeroak?**

Gatzagarrak eta eskoriatzarrak bai, baina asko etortzen zaizki-



Txikitatik ezagutu du Itziar Fernandez de Arroyabek jatetxeke lana. M. ARRAYAGO

## Alemaniatik arrautza eta txorizo bila

"Behin, bi alemaniar etorri ziren, astean zeharreko egun batean, menua genuen egun batean, eta kanpoan eseri ziren. Menua genuela esan nien, eta beraiek ezetz. Bazekitela zer nahi zuten, eta gaztelaraz esan zidaten: 'Huevos con chorizo'. Beste behin, munduari buelta bizikletan ematen ari zen bat etorri zitzaigun; ez genuen sinistu, eta, handik urtebetera, han ikusi nuen telebista bidez, Hegoafrikan. Halako asko tokatzen zaizkigu hemen".

gu bergararrak, oñatiarrak eta arrasatearrak. Pandemia garaian, itxiera perimetralekin, hor igerri dugu gehiago herrikoen presentzia.

**Zuenaz gain, bailarako beste jatetxeren bat gomendatu beharko bazenu... Zein?**

Leku oso on asko ditugu hemen gertuan. Eskoriatzan Txalaparta, adibidez; eta Gatzagako Gure Ametsa aipatuko nuke.

**Extean jaten duzue, jatetxean bezalako menua edo zerbait prestatzeko azkarra...**

Orain arte, domeketan bakarrik genuen etxean afaltzeko aukera, eta hemendik igotzen genuen. Orain, astelehena eta asteartea itxita izaten dugu, deskantsurako, eta gainerako jatetxeetara joan eta bertako menua probatzea gustatzen gaizu.

**Maulandara etortzen denak zer jan behar du bai ala bai?**

Ba, txorixoa, buztana eta bakailaoa. Eta postreerako, gazta-tarta, zalantza barik.

**Igarriko zuten autobidea egin zutenetik trafikoa murriztu egin dela...**

Bai, baina, egia esanda, bezeroengan ez du horrenbesteko eraginik izan. Hala ere, etorri gura duenak autoa hartu eta etorri egiten da. Baina ez pentsa, askotan, autobidetik irteten dira hemen jateko; Lisboatik etorri zitzaigun behin familia bat, Parisera bidean, eta jateko leku baten bila hasi eta hona bidali zituen GPSak. Eskoriatzan irten, gurera etorri, afaldu eta bideari berrekin zioten.

Goiena OKm  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!

# ZUBIAK

HEMEN DEBAGOIENA  
AZARDAREN 4AN, EGUENEAN,  
18:00/20:00 ETA 22:00  
MARKEL IRIZAR, ETORKIZUNEN  
ERRONKEZ BERBETAN

goiena  
Zu hemen zaude.

